

Ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak
idatzi eta izapidetzeko eskuliburua,

EAEko MEATZE USTIATEGIEI APLIKATUTA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Ingurumen inpaktuari buruzko azterlanak idatzi eta izapidetzeko eskuliburua, EAEko meatze ustiatzei aplikatuta

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

KOORDINAZIOA ETA ZUZENDARITZA

Jesús de Cospedal Pérez-Cosío, Eusko Jaurlaritzako Meatze Zerbituzuko Burua

IDAZLEAK

Ekos Estudios Ambientales, S.L.: Ángela Oscoz Prim, Antonio Bea Sánchez,
Ana Herreras Moratinos eta Leire Retegi González

ESKER ONAK

Bruno Arrieta Atxa

AZALA

Cantera Apario, Cementos Leмона

Argitaraldia:	1.a, 2008ko azaroa
Ale-kopurua:	500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Composiciones RALI, S. A. Particular de Costa, 8-10, 7.a - 48010 Bilbao
Inprimatzea:	Estudios Gráficos ZURE, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2824-6
LG:	BI-3298-08

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	13
2. LEGE ESPARRUA	15
2.1. MEATZARITZARI BURUZKO LEGEDIA	15
2.1.1. Segurtasuna eta osasuna	18
2.1.2. Segurtasunaren eta osasunaren arloko beste lege interesgarri batzuk	19
2.2. INGURUMENAREN ARLOKO LEGEDIA.....	19
2.2.1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa	19
2.2.2. Ingurumen-arloko beste lege interesgarri batzuk	23
2.3. HIRIGINTZA LEGEDIA	26
3. HIRIGINTZA IZAPIDETZEA	31
4. PROIEKTUA BAIMENTZEKO PROZEDURA	35
4.1. MEATZE IKERKETAKO PROIEKTUA	35
4.2. ERAUZKETA JARDUERAREN USTIAPEN PROIEKTUA...	36
4.2.1. Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren izapidea, proiektua baimentzean	37
4.2.1.1. Proiektua ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxikitzeko sustatzailearen eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera (5. artikulua)	38
4.2.1.2. Ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren nondik norakoa erabakitzea, eraginpean hartutako administrazioei eta, dagokionean, interesdunei kontsulta egin ostean (8. artikulua).	38
4.2.1.3. Proiektuaren sustatzaileak Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlana (IIA) egitea	39

4.2.1.4.	Organo eskudunak jendaurrean jartzeko eta eraginpean hartutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko izapidea betetzea.	39
4.2.1.5.	Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktuaren ebaluazioa amaitzeko, ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren deklarazioa egin beharko du eta publiko egingo da.	41
4.2.1.6.	Desadostasunak ebaztea	41
4.2.1.7.	Baimendutako proiektuaren publizitatea	41
4.2.2.	Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren II. eranskinean barne hartutako proiektuak izapidetzea	43
4.2.2.1.	Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxikitzea edo ez atxikitzea erabakitzeko eskaera.	43
4.2.2.2.	Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxiki behar otezaion erabakitzea	43
4.2.3.	Izapidea, Natura 2000 Sarean eraginez gero	45
4.2.3.1.	Natura 2000 Sareko espazioetako eraginak balioesteko metodologia	46
4.2.4.	Jarduera-lizentziaren, obra-lizentziaren eta irekitzeko lizentziaren izapideak	52
4.3.	USTIATEGIA BERRIZ IREKITZEA, MEATZE ESKUBIDEREN BAT BIZIRIK ETA INAKTIBO IZANIK . . .	54
4.4.	BAIMENDUTAKO ETA AKTIBO DAUDEN USTIATEGI PROIEKTUEN ALDAKETAK.	54
5.	PROIEKTU ETA AZTERLANEN EDUKIA	57
5.1.	INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIO BATERATUARI BURUZKO AZTERLANA EDO INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA	57
5.1.1.	Planaren edo programaren helburu estrategikoak deskribatzea, baita helburu horiek lortzeko bestelako aukerak ere . . .	58
5.1.2.	Beste plan edo programa batzuekiko elkarreagina aztertzea	58
5.1.3.	Nazioan, Erkidegoan edo nazioartean ezarritako ingurumenbabeseko helburuak	58

5.1.4.	Plan edo programaren eraginpean hartutako eremuaren azterketa, diagnostikoa eta balioespina, ingurumenari dagokionez. Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak, plana edo programa aplikatzen ez bada izan dezakeen bilakaera dela-eta	59
5.1.5.	Teknikoki zentzuzkoak diren beste aukeren ingurumen-azterketa. Hartutako soluzioaren justifikazioa	59
5.1.6.	Plan edo programako jardunen eraginak identifikatu eta balioestea	59
5.1.7.	Babes-neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio-neurrien proposamena	60
5.1.8.	Plan edo programaren efektuak gainbegiratzeko programa. .	60
5.1.9.	Sintesi-dokumentua	61
5.1.10.	Beste aukeren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena	61
5.1.11.	Dokumentazio grafikoa	61
5.2.	USTIAPEN PROIEKTUA	61
5.2.1.	Memoria	61
5.2.2.	Planoak	62
5.2.3.	Azterlan geologikoa	63
5.2.4.	Azterlan geoteknikoa	63
5.2.5.	Azterlan hidrologikoa eta hidrogeologikoa	64
5.2.6.	Ustiategiaren instalazioak	64
5.3.	LEHERKETA PROIEKTUA	64
5.4.	LOHI GORDAILUEN PROIEKTUA	64
5.4.1.	Memoria	65
5.4.2.	Aurrekontua	67
5.4.3.	Planoak	67
5.5.	SEGURTASUN ETA OSASUN DOKUMENTUA	68
5.6.	INGURUMEN IZAPIDEARI EKITEKO DOKUMENTUA	70
5.6.1.	Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa egin beharreko proiektuak. Proiektuaren hasierako dokumentua (PHD)	70
5.6.1.1.	Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena . .	71
5.6.1.2.	Aintzat hartutako bestelako aukera nagusiak, eta aukera bakoitzaren inpaktu potentzialen azterketa . .	71

5.6.1.3. Proiektuaren eraginpean hartutako lurraldearen eta ingurumenaren diagnostikoa	72
5.6.2. Kasuan kasu, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ingurumen-organoak erabakitzen duenean soilik egin behar duten proiektuak. Proiektuaren ingurumen-dokumentua (PID).	72
5.6.2.1. Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena . .	73
5.6.2.2. Aztertutako bestelako aukera nagusiak.	73
5.6.2.3. Ingurumenaren gaineko inpaktu potentzialen azterketa	73
5.6.2.4. Ingurumena behar bezala babesteko prebentzio-neurriak, neurri zuzentzaileak edo konpentsazio-neurriak	73
5.6.2.5. Jarraipena egiteko modua, betiere ingurumen-dokumentuan bildutako adierazpenak eta neurriak –babe-sekoak eta zuzentzaileak– betetzen direla bermatzeko	74
5.7. LEHENERATZE PLANA	74
5.7.1. Memoria	75
5.7.2. Preskripzio teknikoen orria	77
5.7.3. Planoak	77
5.7.4. Azterlan ekonomikoa eta aurrekontua	77
5.7.5. Leheneratze-planaren edukia, ikerketa-baimenatarako	78
5.7.6. Urteko lan-planen leheneratze-eranskina	78
5.8. INGURUMEN INPAKTUAREN BANAKAKO EBALUAZIOA IZAPIDETZEKO INGURUMEN INPAKTUARI BURUZKO AZTERLANA.	78
5.8.1. Proiektuaren deskripzio orokorra	79
5.8.2. Aztertutako bestelako aukera nagusien azalpena, eta hartutako soluzioaren arrazoi nagusien justifikazioa, betiere ingurumenaren gaineko efektuak kontuan izanik	80
5.8.3. Proiektuak biztanleriarengan, floran, faunan, lurzoruan, airean, uretan, faktore klimatikoetan, paisaian eta ondasun materiale-tan, eta ondare historiko, artistiko eta arkeologikoan izan ditzakeen efektuen –zuzenekoak nahiz zeharkakoak– ebaluazioa	81
5.8.3.1. Ingurumen-inbentarioa eta ekologiarekin nahiz ingurumenarekin loturiko gako-elkarreraginak deskribatzea. .	81
5.8.3.2. Inpaktuak identifikatu, ezaugarritu eta balioestea. . .	87

5.8.4.	Ingurumen-efektu esanguratsuak murriztu, ezabatu edo konpentsatzeko aurreikusitako neurriak	95
5.8.4.1.	Lan Plana	95
5.8.4.2.	Jardunak mugatzea	96
5.8.4.3.	Airearen kalitatea babesteko neurriak	96
5.8.4.4.	Kalitate akustikoarekin loturiko neurriak	98
5.8.4.5.	Bibrazioak minimizatzeko neurriak	99
5.8.4.6.	Babes-neurriak leherketetarako	99
5.8.4.7.	Sasi-garbiketekin eta landare-lurraren kudeaketarekin loturiko neurriak	99
5.8.4.8.	Konpostajea	100
5.8.4.9.	Lur gaineko eta lurpeko urak babesteko neurri orokorrak	100
5.8.4.10.	Lur gaineko urak babesteko neurri espezifikokoak	101
5.8.4.11.	Hondakinak kudeatzea	103
5.8.4.12.	Landaredia babesteko neurriak	104
5.8.4.13.	Fauna babesteko neurriak	104
5.8.4.14.	Kultura-ondarea	104
5.8.4.15.	Zerbitzuen jarraitutasuna eta irisgarritasuna	105
5.8.4.16.	Instalazioak eraistea	105
5.8.4.17.	Paisaiaren integrazioa	105
5.8.5.	Ingurumena Zaintzeko Programa	105
5.8.5.1.	Ustiapen-fasea	106
5.8.5.2.	Zaintzeko Programa bertan behera uzteko fasean	108
5.8.5.3.	Kontrol-planaren emaitzak igortzea	109
5.8.6.	Azterlanaren laburpena eta ondorioak	110
5.8.7.	I. eranskina. Leheneratze-plana	110
5.8.8.	2. eranskina. Natura 2000 Sarea	110
5.9.	INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUA IZAPIDETZEKO INGURUMENARI BURUZKO AZTERLANA	111
5.9.1.	Proiektua eta ekintzak deskribatzea	112
5.9.2.	Ingurumen-diagnostikoa eta ingurumenaren eta ekologiaren arloko gako-elkarreraginak deskribatzea	112

5.9.3. Ingurumen-eraginak identifikatzea	113
5.9.4. Babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak proposatzea.	113
6. INFORMAZIO ITURRIAK	115
1. ERANSKINA. MEATZE ADMINISTRAZIOAK USTIAPEN PROIEKTUARI DAGOKIONEZ AZTERZEN DITUEN ALDEAK	125

ILUSTRAZIOEN AURKIBIDEA

1. fluxugrama. Hirigintza dokumentuaren ingurumen inpaktuko ebaluazio bateratuko (CIA/IIEB) prozedura.	33
2. fluxugrama. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharreko meatze-ikerketako proiektuak (3/98 Legearen I.C eranskinean barne hartutakoak) baimentzeko prozedura	36
3. fluxugrama. Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egin beharreko meatze-ustiapeneko proiektuak (1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren eranskinean eta 3/98 Legearen I.B eranskinean barne hartutakoak) baimentzeko prozedura	42
4. fluxugrama. 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren II. eranskinean barne hartutako meatze-ustiapeneko proiektuak baimentzeko prozedura	44
5. fluxugrama. 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean eta 3/98 Legearen I.B eranskinean barne hartuta ez dauden eta Natura 2000 Sarean zuzenean nahiz zeharka eragin dezaketen meatze-ustiapeneko proiektuak baimentzeko prozedura.	47
6. fluxugrama. Natura 2000ko tokietan eragin esanguratsua izan dezaketen plan eta proiektuak balioesteko metodologia	50
7. fluxugrama. Jarduera sailkatuen lizentziak lortzeko prozedura (udal-lizentziak).	53
8. fluxugrama. Proiektuen aldaketak edo hedapenak baimentzeko prozedura, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera.	55
Inpaktuak identifikatzeko matrize tipoa.	88
Inpaktuen ezaugarriak definitzeko matrize tipoa	93

SARRERA

Meatzaritza izan da garapen teknologikoaren oinarria, baita garapen teknologikoak gizakiaren ongizateari egin dion ekarpenarena ere. Izan ere, meatzaritza da egun munduan egunero erabiltzen diren ia baliabide gehienen iturria.

Hala ere, ezin da ukatu, meatzaritzaren lorpenekin batera, arazo larri ugari ere agertu direla bai naturgunean, bai espezieen artean, bai eta meatzaritza-jardueren onurak jasotzen dituen gizartean bertan ere. Arazo horiek, bestalde, hainbat jatorri dituzte: meatzaritzaren baliabidearen gehiegizko ustiapena batetik, ustiapenean erabilitako ekoizpen-bideak bestetik, eta erabili diren hainbat teknikaren ondorio guzti-guztiak behar bezala ez ezagutu izana.

Gizarte garatuetan sensibilizazio sozial handia garatu da meatzaritza jarduerak eragiten dituen kalteen inguruan, eta hainbatetan gizarteak erabat ahaztu ere egiten du zenbateraino dagoen meatzaritza-jardueren menpe, meatzaritza guztiz arbuiauz. Hala ere, begi bistakoa da meatzaritza-jarduerak garatzen jarraitu behar dutela; izan ere inongo gizarteak ezin du onartu bere baliabide geologikoen ordez, beste batzuenak erabiltzea.

Azken 10 urteotan, agregakinen produkzioa bikoiztu egin da eta, gaur egun, Euskadin 18 milioi tona kontsumitzen dira. Horren ondorioz, lurrean hutsarteak sortzen dira eta behar bezala leheneratu behar dira. Horretarako, Meatzeei buruzko Legea eta horren Araudia aplikatzen dira, baita *115/2000 Dekretua* ere, *ekainaren 20koa, erauzketa-jarduerak kaltetutako naturguneak leheneratzeari buruzkoa*. Lege-testu horietan jasotako irizpideak aplikatzen dira eta sortutako hutsarteak ingurunearekin modu harmonikoan integratzea lortu nahi da, aldeaz aurreko natura-balioen antzeko mailara itzulita. Hori horrela izanik, harrobiak ustiatzea eta Autonomia Erkidegoaren ingurumen-balioei eustea bateragarriak direla frogatu nahi zaio gizarte-inguruneari; hain zuzen ere, gizarte-ingurune hori ustiategi berriak irekitzearen aurkako presioaren erantzule da, hein handian. Presio horren eraginez, Euskadin ez da ustiategi berririk zabaldu azken 16 urteotan.

Beraz, agerikoa eta egiaztagarria da agregakin bihurtu daitezkeen baliabide naturalak erauzteko premia dagoela, nahiz eta, gaur egun, administrazioak bestelako aukerak bultzatzen dituen; hala nola, paisaian eraginik eragin gabe, gizarte-ingurunearentzat ahalik eta eragin txikiena duten ustiapen-aukerak, edo lurpeko ustiategiak. Gaur

egun, Euskal Autonomia Erkidegoan bi proiektu daude meatze-ikerketako proiektuaren fasean, eta beste hirugarren bat ustiapen-proiektuaren fasean.

Egun, proiektua baimentzeko prozeduran barne hartuta dago kasuan kasuko ezinbesteko ingurumen-izapidetzea. Hori dela-eta, eskuliburu honen helburu nagusia hau da: kasu bakoitzean bete beharreko administrazio-prozeduren eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren berri ematea meatze-ustiategi baten sustatzaileari. Horretarako, lehen-lehenik lege-esparrua ezarriko dugu, hiru ikuspegitatik begiratuta: jardueraren beraren ikuspegitik, ingurumen-ikuspegitik eta hirigintza-ikuspegitik. Aurrerago, legez finkatutako administrazio-prozedurak azalduko ditugu modu eskematikoan, eta bukatzeko, aurkeztu beharreko dokumentu guztien edukia zehaztuko dugu. Horretaz guztiaz gain, ingurumen-dokumentuak errazago egite aldera, hainbat erreferentzia bibliografiko emango ditugu.

LEGE ESPARRUA

Meatzaritzari, ingurumenari eta hirigintzari buruzko legediak aztertu ditugu, proiektuaren sustatzailearen betebeharrak zehazteko asmoz, betiere abiarazi nahi duen proiektua baimentzeko bete beharreko izapideei dagokienez, eta aurkeztu beharreko azterlan motei eta proiektuei –baita horien edukari ere– dagokienez. Azkenik, jarduera abiarazitakoan, behar bezala garatzeko kontuan izan beharreko lege-alderdi garrantzitsuenak ere bildu ditugu. Gure asmoa ez da aintzat hartu beharreko lege-zerrenda osoa ematea; beraz, kasuan kasu, erlazionatutako legedia berrikustea gomendatzen dugu.

2.1. MEATZARITZARI BURUZKO LEGEDIA

22/1973 Legea, uztailaren 21ekoa, Meatzeei buruzkoa (1973/07/24ko BOEa); lege horretan, mineral-meategi naturalen eta gainerako baliabide geologikoen izaera juridikoa berretsi da, jabari publikoko ondasuntzat, eta administrazio-emakidari eutsi zaio meatze-ordenamenduaren oinarritzko printzipio eta Erakunde tradizional gisa.

Legeak lau sekzio sortu ditu: A sekzioan «harri» esaten zitzaizen gehienak sartzen dira; B sekzioan, ur mineralak eta termalak, eta legeak berak araututako operazioen ondorioz sortutako meategi eta lurpeko egiturak; C sekzioan, aurrekoetan barne hartzen ez diren mineral-meategi eta baliabide geologikoak sartzen dira. *54/1980 Legea* –aurreko legea aldatzen duena–, D sekzio berria sortu da, eta sekzio berri horretan sartzen diren interes energetikoko mineralak edo baliabide geologikoak C sekziotik kanpo utzi dira.

107/1995 Errege Dekretua, urtarrilaren 27koa, Meatzeei buruzko Legearen A) sekzioa osatzeko balioespen-irizpideei buruzkoa; lege horretan, A) sekzioa osatzeko behar diren balioespen-irizpideak aldatu dira. Horrela, bada, Meatzeei buruzko Legearen 3. artikulua A) sekzioan sartzen dira honako baldintza hauek betetzen dituzten mineral-meategiak eta gainerako baliabide geologikoak:

- a) Aprobetxamendu bakarra honako hau dutenak: azpiegituretako, eraikuntzako eta beste erabileretarako obretan zuzenean erabiltzeko moduko tamaina eta forma duten zatiak lortzea, betiere egin beharreko operazioak harrotzea, puskatzea eta kalibratzea soilik izanik.

Salbuespen dira artikuluko honen 1. idatz-zatiaren b) paragrafoan barne hartu gabeko baliabide mineralen meategiak –ustiatzen ari direnak–, baldin eta horien produkzioa hormigoi, mortero eta entokadurak, asfaltozko aglomeratuak edo horien antzeko produktuak egitera bideratzen bada, edo baldin eta aurreko paragrafoan xedatutakoa gainditzen duen prozesuren bat behar badute.

b) Honako baldintza hauek guztiak batera betetzen dituztenak:

Produktuen salmentako urteko balioa 100.000.000 pezetatik beherakoa izatea; ustiatzearen lanean ari diren langileen kopurua 10 baino txikiagoa izatea; eta ustiatzearen kokatua dagoen udalerraren mugetatik gehienez 60 kilometro-ra merkaturatzea zuzenean.

Legearen III. tituluaren, A) sekzioaren aprobetxamenduak arautzen dira, eta ustiatzeko lehentasuneko eskubidea ematen zaie, oro har, baliabideak kokatuta dauden lurren jabeei. Alabaina, eskubide hori baliatzea baldintzatuta dago: dagokion ustiatze-baimena lortu behar da eta lan-planak aurkeztu behar dira; izan ere, mota horretako baliabideen aberastasuna hobeto aprobetxatzea bermatuko da horrela.

IV. tituluaren, B) sekzioko baliabideen aprobetxamendua arautzen da, eta V. tituluaren, aldiz, C) sekzioko baliabideen ikerketa eta aprobetxamendua, baina dagokion aprobetxamendu-baimena lortu behar da.

Ez dugu ahaztu behar Lege hori honako hauen bidez aldatu dela:

- *12/2007 Legea, uztailaren 2koa*; horren bidez, Dekretua aldatu eta 122. artikulua erantsi zaio.
- *1303/1986 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 28koa*; horren bidez, Dekretua aldatu eta 92. artikulua indargabetu da.
- *50/1985 Legea, abenduaren 27koa*; horren bidez, Azken Xedapenen arteko Hirugarrena partzialki indargabetu da.
- *54/1980 Legea, azaroaren 5koa*; horren bidez, 3.1.d artikulua erantsi zaio, eta 3.1.c eta d eta 76.2 artikulua interpretatu dira.

863/1985 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; horren garapena eta gauzatzea aurreikusten da Jarraibide Tekniko Osagarrien bidez, eta jarraibide horien norainokoa eta indarraldia Errege Dekretu horren 2. artikuluan definitu dira. Araudian, honako hauek bete beharreko gutxienezko segurtasun-arauak ezartzen dira: meatze-ustiatzearen, harrobitan, itsas gatzagetan, lurpeko uretan, baliabide geotermikoetan, lurpeko gordailu natural edo artifizialeetan, zundaketetan, eta aire zabaleko nahiz lurpeko indusketetan, betiere lan horietako edozeinetan meatzaritzako teknika edo lehegailuen erabi-

lera aplikatu behar baldin bada; baita, oro har, baliabide geologikoak prozesatzeko plantetan ere, meatzaritza-teknikak aplikatzen badira. VII. kapituluaren, aire zabaleko ustiattegietan bete beharreko puntuak ezarri dira. Jarduerari ekin aurretik, edo jarduerari berriz ekin aurretik, edo proiektuaren edukia nabarmen aldatzen duten aldaketak egin aurretik, baimena lortzera behartzen du titularra. Horretaz gain, proiektua garatzeko garaian, urteko lan-planen arabera egitea gomendatzen da. VIII. kapituluaren arabera, hondakindegien, hondakin-gordailuen, eta esterilen dike eta putzuen plana izan behar da, behar bezala onartua.

Agindua, 1990eko apirilaren 16koa, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauei buruzko Erregelamendu Orokorren VII. kapituluko Jarraibide Tekniko Osagarriak onartzen dituen; aire zabaleko lanetarako honako Jarraibide Tekniko Osagarri hauek barnean hartzen ditu:

- *ITC 07.1.01. Segurtasuna eta osasuna*: aire zabaleko ustiategi eta lanetan, langileen segurtasunerako bete beharreko oinarrizko baldintzak ezartzen ditu.
- *ITC 07.1.02. Ustiapen-proiektua*: ustiapen-proiektuaren edukia finkatzen du; teknikari tituludun eskudunak zuzendu eta sinatu behar du, eta meatzeetako agintaritzan aurkeztu behar da, baimentze aldera.
- *ITC 07.1.03. Zereginen garapena*: honako hauek ezartzen ditu: ustiapenaren diseinu-irizpideak, lur-erazketa egiteko baldintzak, erazketa-lanak, materiala kargatu eta garraiatzea, makinen erabilera eta aire zabaleko ustiattegietan berezkoak diren bestelako jarduerak.

Agindua, 2000ko apirilaren 26koa, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren XII. kapituluko 08.02.01 Jarraibide Tekniko Osagarria –«Erazketa-industriaren tratamendu-prozesuetako lobi-gordailuei» buruzkoa– onartzen duena; lohi-gordailu berri bat eraikitzeke proiektuak bete beharreko baldintzak ezartzea du xede, meatzeetako agintaritzak onar dezan, baita gordailuak bete beharreko eskakizunak zehaztea ere, honako fase hauetan: ustiapenean, itxieran, eta itxi osteko mantentze nahiz kontrolean.

Agindua, 1991ko urriaren 16koa, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren VII. kapituluko 07.1.04 Jarraibide Tekniko Osagarria onartzen duena; ingurumen-baldintzak kontrolatzea du xede, hain zuzen ere, hautsari aurre egitea aire zabaleko erazketa-industrietan eta mineralak, agregakinak eta harri industrialak tratatu, prozesatu, manipulatu eta biltegitatzeko instalazioetan.

2994/1982 Errege Dekretua, urriaren 15ekoa, erazketa-jardueren kaltetutako naturguneak lehenatzeari buruzkoa Estatu-mailan, eta *115/2000 Dekretua, ekainaren 20koa, erazketa-jardueren kaltetutako naturguneak lehenatzeari buruzkoa* (EHAA 2000/07/20)

autonomia-erkidegoaren mailan; dekretu horien arabera, Meatzei buruzko 1973ko uztailaren 21eko Legeak araututako mea-baliabideen aprobetxamendua (erauzketa-jarduerak guztiak, lehenagokoak nahiz berriak izan, eta aire zabalekoak nahiz barrukoak izan) egiten dutenek derrigorrean burutu beharko dituzte mea-lanek kalte-tutako naturguneak leheneratzeko lanak. Gainera, *115/2000 Dekretuaren* 4. artikuluan Leheneratze Planaren edukia zehazten da.

2.1.1. Segurtasuna eta osasuna

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 1389/1997 Errege Dekretuaren –meatze-lanetan langileen segurtasuna eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak onartzen dituena– 3.2 artikulua; eta 150/1996 Errege Dekretuaren –otsailaren 2koa, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauei buruzko Erregelamendu Orokorren 109. artikulua aldatzen duena– eranskinaren 2.1.b idatz-zatia. Arau horien guztien arabera, enpresaburuak nahitaez egin eta egunean izan behar du «Segurtasun- eta osasun-dokumentua», eta indarreko legedian xedatutako baldintzak bildu behar ditu.

1389/1997 Errege Dekretua aire zabaleko eta lurpeko erauzketa-industrietan aplikatzen da, baldin eta honako jarduera hauetakoren bat egiten badute:

- Substantzia mineralak erauztea, aire zabalean edo lurpean, baita dragatze bidez ere.
- Prospekzioak egitea, erauzketarako.
- Erauzitako materialak salmentarako prestatzea, substantzia horiek transformatzeko jarduerak alde batera utzita.
- Tunelak edo meazuloak zulatzea edo induskatzea, helburua edozein izanik ere, eta eraikuntza-obretan segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko baldintzei buruzko araudian xedatutakoa alde batera utzi gabe.
- Honako jarduera hauek ez dira barnean hartzen: substantzia mineralak transformatzeko jarduerak, ezta zundaketa bidezko erauzketa-industriak ere; izan ere, horiek Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauei buruzko Erregelamendu Orokorren 109. artikuluen arabera arautzen dira. Otsailaren 2ko 150/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen Erregelamendu hori.

54/2003 Legearen –31/1995 Legea aldatzen duena– arabera, enpresaburuak esanbidez adierazi behar du lan-arriskuen prebentzioa nola txertatu duen enpresaren kudeaketa-sisteman, lan-arriskuen prebentzioko plan bat garatu eta aplikatuta.

Honako hau bete behar da: *1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lan-ekipoak erabiltzeko zaindu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.*

Ustiapen-proiektuarekin batera aurkeztu behar den segurtasun- eta osasun-dokumentua honako Agindu honen arabera egin behar da: *ITC/101/2006 Agindua, urtarrilaren 23koa, erauzketa-industriarako segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentuaren gutxienezko edukia eta egitura arautzen duena* (2006/01/30eko BOEa).

2.1.2. Segurtasunaren eta osasunaren arloko beste lege interesgarri batzuk

Berresteko Tresna, 1997ko apirilaren 24koa; horren bidez, Espainiak Meatzetako Segurtasunari eta Osasunari buruzko Hitzarmena (LANEren 176. zenbakia) berretsi du, Genevan egina, 1995eko ekainaren 22an (1999/01/28ko BOEa).

Agindua, 2000ko apirilaren 26koa, Industria eta Energia Ministerioarena, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren XII. kapituluko 08.02.01 Jarraibide Tekniko Osagarria –«Erauzketa-industrien tratamendu-prozesuetako lobi-gordailuei» buruzkoa– onartzen duena» (2000/05/09ko BOEa).

681/2003 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, Presidentetzaren Ministerioarena, lantokian atmosfera leberkorretatik eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa (2003/06/18ko BOEa).

ITC/2585/2007 Agindua, abuztuaren 30ekoa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioarena, Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauei buruzko Erregelamendu Orokorren 2.0.02 Jarraibide Tekniko Osagarria –«Langileak babestea hautsaren aurrean, silikosia dela-eta, erauzketa-industrietan»– onartzen duena (2007/09/07ko BOEa).

2.2. INGURUMENAREN ARLOKO LEGEDIA

2.2.1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartu da eta testu horretan, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio-prozeduraren eraginpean jarritako proiektuak zehazten dira.

Arau horren 3.1 artikulua arabera, «Obrak, instalazioak edo I. eranskinean jasotako beste edozein jarduera egiteko proiektu publiko nahiz pribatuek **ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa** egin beharko dute, lege honetan aurreikusitako moduan».

I. eranskineko 2. taldean –Erauzketa Industria– zerrendatutako proiektuak honako hauek dira:

- a) Mineral-meategietako eta A, B, C eta D sekzioetako gainerako baliabide geologikoetako aire zabaleko baimen edo emakida bereko fronte eta ustiategiak

(izan ere, Meatzei buruzko Legearen eta legedi osagarriaren bidez arautzen da horien aprobetxamendua), baldin eta honako zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen bada:

1. Eraginpean hartutako lursailaren azalera 25 hektareatik gorakoa izatea.
 2. Lur-mugimendua guztira 200.000 metro kubiko/urte baino handiagoa izatea.
 3. Maila freatikoaren azpiko ustiategiak izatea –erreferentzia-mailatzat urteko oszilazioen arteko handiena hartuta–, edo lur gaineko edo sakoneko akuiferoen birkargan murrizketa eragin dezaketanak.
 4. Ibaien, ibai-izotzen, itsasertzaren edo haizearen dinamikarekin loturiko gordailuen ustiategiak izatea. Flora fosilen edukia dela-eta, berreraikitze palinologiko eta paleoklimatikorako interes zientifikoa izan dezaketen bestelako gordailu eta zohikaztegiak izatea. Itsas gordailuen ustiategiak izatea.
 5. Autobideetatik, autobietatik, errepide nazionaletatik, eskualdeko errepi-deetatik edo 1.000 biztanletik gorako hiriguneetatik ikustea, baita hirigune horietatik 2 kilometro baino gutxiagora egotea ere.
 6. Naturgune babestuetan edo naturgune babestuen edozein mugetatik ikusten den eremuren batean egotea, edo naturgunearen natura-balioentzat galera ekartzea.
 7. Oxidazioa, hidratazioa... direla-eta, gorabeherak izan ditzaketen substantzien ustiategiak izatea, eta indarreko legedietan ezarritako gehieneko mugak gaindituta, azidotasuna, toxikotasuna edo bestelako parametroren bat eragiten dutenak, betiere giza osasunarentzat edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeen kontzentrazioetan; hala nola, sulfurodun meak, erregai solidoen ustiategiak, «in situ» lixibiazio bidezko tratamendua eskatzen duten ustiategiak, eta mineral erradioaktiboak.
 8. Aurreko baldintzetako bat bera ere betetzen ez duten arren, meatzaritzalanean eta aire zabaleko edozein meatze-ustiategi edo -emakidari atxikitako instalazioen eraginpean egotea aurreikusten den eremuaren mugetatik 5 kilometro baino gutxiagora egotea.
- b) Lurpeko meatzaritzako ustiategiak, baldin eta honako zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen bada:
1. Paragenesia dela-eta ur azidoak edo alkalinoak sortzea oxidazioz, hidratazioz edo disoluzioz, betiere pH-an aldaketak eragiten badituzte edo ioi metaliko nahiz ez-metalikoak askatzen badituzte, naturan gorabeherak eraginez.

2. Mineral erradioaktiboak ustiatzea.
 3. Meatzeak hiriguneetatik 1 kilometro baino gutxiagora (planoan neurtuta) kokatuta egotea, subsidentziaz arriskua eragin badezakete. Nolanahi ere, aprobetxamendu mineralurgikoa, meatze-esterilen aldi baterako metaketak nahiz hondakin-metaketak edo minerala tratatzeko beharrezkoak diren instalazio eta egitura guzti-guztiak hartzen dira barnean (hondakindegia, uraren edo esterilen presak eta putzuak, birrinketa-plantak edo planta mineralurgikoak, eta abar).
- c) Dragatzeak:
1. Ibai-dragatzeak, baldin eta 79/409/EEE eta 92/43/EEE Zuzentarauak aplikatuta babespeko izendatutako ibilgu edo hezeguneetan egiten badira, edo bestela, Ramsar Hitzarmenaren zerrendan sartutako hezeguneetan, eta erauzitako bolumena 20.000 metro kubiko/urtetik gorakoa denean.
 2. Harea lortzeko itsas dragatzeak, baldin eta erauzi beharreko bolumena 3.000.000 metro kubiko/urte baino gehiago bada.
- d) Petrolio eta gas naturala erauztea merkaturatzeko, baldin eta erauzitako kantidadea 500 tonatik gorakoa bada petrolioaren kasuan, eta 500.000 metro kubiko/egunetik gorakoa bada gasaren kasuan, emakida bakoitzean.

Ingurumenaren gaineko inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren 3.2 artikulua araberak, obrak, instalazioak edo II. eranskinean jasotako beste edozein jardura egiteko proiektu publiko nahiz pribatuak, eta I. eranskinean jaso gabeko proiektu publiko nahiz pribatuak (betiere Natura 2000 Europako Sare Ekologikoko espazioetan zuzenean nahiz zeharka eragin badezakete) **ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute lege honetan aurreikusitako moduan, ingurumen-organoak kasuan kasu horrelakorik erabakitzen badu**. Erabakiak arrazoi-tua eta publikoa izan behar du, eta III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

II. eranskineko 3. taldean –Erauzketa Industria– zerrendatutako proiektuak honako hauek dira:

- a) Zulaketa sakonak, lurzoruen egonkortasuna ikertzeko zulaketak izan ezik, eta bereziki:
 1. Zulaketa geotermikoak.
 2. Hondakin nuklearrak biltegitatzeko zulaketak.
 3. Ur-horniketarako zulaketak.
- c) Kanpoko industria-instalazioak, ikatza, petrolio, gas naturala, mineralak eta arbel bituminosoak erauzteko.

- d) Kanpoko eta barneko industria-instalazioak, ikatza eta arbel bituminosoak gasifikatzeko.
- e) Itsas dragatzeak, harea lortzeko (I. eranskinean barne hartu gabeko proiektuak).
- f) Jabari publiko hidraulikoko lurretan kokatuta dauden ustiategiak (I. eranskinean barne hartu gabeko), 20.000 metro kubiko/urtetik gorako erauzketetarako, edo ibilguen polizia-zonan daudenak, 5 hektareatik gorako azalera izanik.
- g) Ibai-dragatzeak (I. eranskinean barne hartu gabeko), erauzitako produktuaren bolumena 100.000 metro kubikotik gorakoa denean.

Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren III. kapituluko 1. sekzioan, I. eranskineko proiektuen ingurumen-inpaktuen ebaluazio-prozedura ezartzen da eta horren arabera, ebaluazio hori egin behar duten proiektuek ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana egin behar dute. Ingurumen-organoak aldez aurretik zehaztuko du azterlanaren nondik norakoa eta zehaztasun-maila, eraginpean hartutako administrazioei eta, dagokionean, interesdunei kontsulta egin ostean. Horretaz gain, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren gutxieneko edukia ere finkatzen du.

Testu bateginaren 5.2 artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioko (IIE) prozedura amaitzeko ingurumen-inpaktuen deklarazioa (IID) egin behar da; deklarazio horretan, ingurumen-arloan baino eragina izan ez dezan, ekintza hori komeni den edo ez adieraziko da. Erabakia baiezkoa denean, zein baldintzarekin egin behar den finkatuko da. Baldintza horietan, ingurumena babesteari buruzko zehaztapen zehatzak bildu behar dira, eta horretaz gain, proiektua baimentzeko eskatutako baldintzekiko koherente izan behar dute. IIDA ustiapen-proiektuen baimenaren barnean sartuko da.

Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren III. kapituluko 2. sekzioan, II. eranskineko proiektuetarako prozedura ezartzen da, baita I. eranskinean barne hartu gabeko proiektuetarako prozedura ere (betiere Natura 2000 Europako Sare Ekologikoko espazioetan zuzenean nahiz zeharka eragin badezakete).

Autonomia-erkidegoari dagokionez, *Euskadiko ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren* (1998/03/27ko EHAA) 45. artikulua araberako, I.B eranskinean barne hartutako proiektuek **ingurumen-inpaktuen banakako ebaluazioa** egin beharko dute, proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko legearen testu bateginean xedaturiko prozedurari jarraiki.

Eranskin horretan zerrendatutako meatzaritza-proiektuak honako hauek dira:

6. Meatzaritza-proiektuak

- 6.1. Harrikatza, lignitua eta beste mineralak erauztekoak.
- 6.2. Amiantoa erauzteko instalazioak, amiantoa bera eta amiantoa duten produktuak tratatu eta eraldatzekoak: amianto-zementuko produktuentzat, amaitutako produktuetan 20.000 tona baino gehiagoko produkzioarentzat; marruskadura-materialentzat, amaitutako produktuetan 50 tona baino gehiago, eta amiantoaren beste erabilpenentzat, urteko 200 tona baino gehiagoko erabilpena.
- 6.3. Mineral metalikoen erauzketa eta tratamendutik sortutako bitarteko produktuen edo esterilen gordailuak.
- 6.4. Haitz eta mineralak erauzteko industriaren gainazaleko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
- 6.5. Gas naturala eta petrolioak erauzteko instalazioak.

Horretaz gain, 3/1998 Legearen 49. artikulua arabera, I. eranskinen C) idatz-zatian barne hartutako proiektuak Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio (IIE) Sinplifikatua egin behar dute. Eranskin horretan zerrendatutako meatzaritza-proiektuak honako hauek dira:

4. Meatzaritza-proiektuak

- 4.1. Zulaketak, zundaketak eta mea-bilketak egin beharreko meatze-ikerketak.

Ondorio gisa honako hau esan behar dugu: autonomia-erkidegoko legeri jarraiki, meatze-ustiapeneko proiektu ia guztiek egin behar dute Ingurumen Inpaktuaren Banakako Ebaluazioaren prozedura (I.B.6 eranskina), nahiz eta zenbait proiektu ez dauden barne hartuta Estatuko legearen I. eranskinean. Bestalde, gerta daiteke proiektu jakin batek hasiera batean IIEa egin behar ez izatea, bi arauen eranskinetan barne hartzen ez delako, baina, kasuan kasuko analisia egiteko garaian ingurumen-organismoak erabakiko balu, Natura Sareari eragiteagatik agian IIEa egin behar izango du.

2.2.2. Ingurumen-arloko beste lege interesgarri batzuk

Jarraian, kontuan izan beharreko beste hainbat lege aipatuko ditugu, bai proiektuak eta ingurumen-azterlanak idazteko garaian, baita ustiapena gauzatzeko garaian ere. Oro har, meatze-ustiatzearen berezko eraginak (airearen kalitatea, uraren kalitatea, jabari publikoaren okupazioa, zarata, eta abar) arautzen dituzten arau espezifikoak aipatuko ditugu. Gainera, beste hainbat lege ere aipatuko ditugu: ingurumen-erantzukizunari buruzkoa, edo soberakin-gordailuek bete beharrekoak.

34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa; lege horren 7. artikuluan, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak garatzen dituzten instalazioetako titularren betebeharrak ezartzen dira, eta IV. eranskinean, atmosfera kutsa dezaketen jardueren Katalogoa aurki daiteke. Jarraian, katalogatutako jardueren artetik, meatzaritza-jarduerekin lotura dutenak aipatuko ditugu:

01 05	Ikatz-meatzaritza; petrolio/gas-erauzketa; konpresoreak
05	ERREGAI FOSILEN ETA ENERGIA GEOTERMIKOAREN ERAUZKETA ETA BANAKETA
05 01	Erregai fosil solidoen erauzketa eta lehen tratamendua
05 01 01	Aire zabaleko meatzaritza
05 01 02	Lurpeko meatzaritza
05 02	Erregai fosil likidoen erauzketa, lehen tratamendua eta karga
05 02 01	Lurreko instalazioak
05 02 02	Itsas instalazioak
05 03	Gas-erregai fosilen erauzketa, lehen tratamendua eta karga
05 07	Energia geotermikoaren erauzketa
1.	Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoaren kategoriak, A taldean barne hartutakoak
1.2.	Meatzaritza
1.2.1.	Mineralak txigortu, kiskali eta sinterizatzea.
2.	Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoaren kategoriak, B taldean barne hartutakoak
2.2.	Meatzaritza
2.2.1.	Haitzak, harriak, legarrak eta harea erauzte (harrobiak)
2.2.2.	Harriak, harri-koskorak eta beste zenbait produktu mineral tratatzeko (birrintzeko, xehatzeko, txikitzeko, hauts bihurtzeko, ehotzeko, iragatzeko, bahetzeko, nahasteko, garbitzeko, zakuratzeko) instalazioak, baldin eta 200.000 t/u-tik gorako bolumena badute, edo edozein bolumen izanik, instalazioa herrigune batetik 500 m baino gutxiagora baldin badago
2.2.3.	Mantente-lanetako eta garraioko instalazioak, meatze-ustiategietan
2.2.4.	Produktu mineralak atari zabalean biltegitratzea, erregai solidoak eta zepategiak barnean hartuta
3.	Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoaren kategoriak, C taldean barne hartutakoak
3.2.	Meatzaritza
3.2.1.	Harriak, harri-koskorak eta beste zenbait produktu mineral tratatzeko (birrintzeko, xehatzeko, txikitzeko, hauts bihurtzeko, ehotzeko, iragatzeko, bahetzeko, nahasteko, garbitzeko, zakuratzeko) instalazioak, baldin eta 200.000 Tm/u-tik gorako bolumena badute.
3.2.2.	Haitz eta harri naturalak baliabide mekanikoen bidez zizelkatzea, zerratzea eta leuntzea

1073/2002 Errege Dekretua, Presidentetzaren Ministerioarena, ingurumeneko airearen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa, sufre dioxidoari, nitrogeno dioxidoari, nitrogeno oxidoari, partikulei, berunari, bentzenoari eta karbono monoxidoari dagokienez; Dekretu

horren helburua honako hau da: ingurune-aireko sufre dioxidoaren, nitrogeno dioxidoaren, nitrogeno oxidoaren, partikulen, berunaren, bentzenoaren eta karbono monoxidoaren kontzentrazioei dagokienez, muga-balioak eta alerta-atalaseak definitu eta ezartzea; airearen kalitatearen ebaluazioa, mantentze-lanak eta hobekuntza arautzea substantzia horiei dagokienez; eta herritarrei eta Europako Batzordeari horren guztiaren berri ematea. Horrekin guztiarekin, araututako substantziek giza osasunarengan eta, oro har, ingurumenean dituzten ondorio kaltegarriak saihestu, murriztu eta horiei aurrea hartzea lortu nahi da. III. eranskinean, partikulen (PM10) muga-balioak ezartzen dira, ingurumen-baldintzetan; IX. eranskinean, ingurune-aireko kontzentrazioen neurketa finkoa egiteko laginketa-puntuaren gutxieneko kopurua zehazteko irizpideak; eta XI. eranskinean, aldiz, ingurune-aireko kontzentrazioak ebaluatzeko erreferentzia-metodoak.

Uren erabilerari eta Jabari Publiko Hidraulikoaren okupazioari dagokienez, honako lege hauei jarraituko zaie: alde batetik, *Uren Legearen testu bateginari*, eta bestetik, 849/1986 Errege Dekretuari. *Uren Legearen testu bategina uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen. Aldiz, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen da, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen (2003/06/06ko BOEa) atarikoa eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatuz*, baita horien aldaketak ere. 849/1986 Errege Dekretuaren II. tituluan, jabari publiko hidraulikoaren (zortasun-zona eta polizia-zona) erabilera aipatzen da; titulu horretan bertan, III. kapituluan, lur gaineko uren emakida eta baimenatarako prozedura ezartzen da (104-118. artikulua) eta 174. artikuluan eta hurrengoetan, lurpeko uren meatze-aprobetxamendurako emakida eta baimenatarako prozedura. Isurtzeko baimenak 245-254. artikuluetan arautzen dira, III. tituluaren II. kapituluaren barnean.

Horretaz gain, *ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legea* ere (06/07/19ko EHAA) aintzat hartu behar da; lege horretan, uren eta ur-inguruen babesa eta erabilera arautzen da, urarekin eta obra hidraulikoekin loturiko planifikazio- eta zerga-araubideak ezarri, eta hornidurako, saneamenduko eta arazketako arau orokorrak definitzen dira.

Zaratari dagokionez, *azaroaren 17ko 37/03 Legea, Zaratarena*, aplikatuko da; honako helburu hau du: kutsadura akustikoaren prebentzioa, eta berau zaindu eta murriztea, giza osasunarengan, ondasunetan edo ingurumenean izan ditzakeen kalteak saihestu eta murrizte aldera. Honako hauek ere kontuan izan behar dira: 1513/2005 Errege-Dekretua, *abenduaren 16koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, ingurumen-zarata aztertzeari eta kudeatzeari dagokienez*; eta 1367/2007 Errege Dekretua, *urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez* (07/10/23ko BOEa). Arau guztietan, indize akustikoak eta zonifikazio akustikoa kalkulatzeko modua lantzen da

gehienbat, eta kalitate akustikoaren helburuak ezartzen dira, baina ezin arautan ez da finkatzen meatze-ustiategietarako emisio-mugarik.

Udalerrri bakoitzeko zaratari buruzko ordenantzak ere aintzat hartu behar dira, baldin badaude, eta ez badaude, muga-balio hauek har daitezke modu orientagarrian: EUDEL Euskadiko Udalen Elkartek egindako «Ingurumenari buruzko Udal Ordenantzaren eredu» «Zaraten eta bibrazioen emisioari buruz» izeneko kapituluaren I. eranskinean bildutakoak.

Erauzketa-jardueraren ustiapenak irauten duen bitartean, kanpoan erabiltzen diren zenbait makinak ingurunera egiten dituzten soinu-igorpenak erregulatzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua bete beharko da.

Jarduerak eragindako bibrazioei eta horien neurketari dagokienez, berriz, UNE 22-381-93 arauak agindutako mugak bete beharko dira, eta, bereziki, bibrazioen pertzepzio-intentsitatea 10 m/s^2 -ko balioa baino txikiagoa izan dadin zaindu beharko da, *Oinarrizko Eraikuntza Araua (NBE-CA-88)* betez.

Meatze-ustiategietan *Ingurumen-ardurari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legeari* atxiki behar zaizkio; lege horretan, ingurumen-kalteen prebentzioari eta kalte horiek saihestu eta konpontzeari dagokionez, operadoreek duten erantzukizuna arautzen da, Konstituzioaren 45. artikulua eta prebentzioko nahiz «kutsatzen duenak ordaintzen du» printzipioen arabera.

Soberakin-gordailuak beharrezkoak izanez gero, honako hauek hartuko dira kontuan: *423/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituena (94/12/19ko EHAA)*; eta *Foru Agindua, 1995eko otsailaren 15ekoa, hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien, lurren beteketen eta egokiketen instalazioei buruzko proiektu tekniko eta azalpen-memoriei buruzkoa (95/03/20ko EHAA)*.

2.3. HIRIGINTZA LEGEDIA

Lurzoruaren kalifikazioa egokitu egin behar da, lurzoru horretan baimendu nahi den erabileraren arabera. Beraz, lurzoruaren kalifikazioan erauzketa-erabilera onartu behar da. Lurzoruaren kalifikazioan onartzen ez bada, plangintza aldatu beharko da, baimendu nahi diren erabileretara egokitze aldera. Udal-plangintza kontuan izan beharko da, baita hierarkian horren goragoko maila duen plangintzako xedapen eta jarraibideak ere, betiere eraginpean hartutako lurzoruaren lurralde-antolamenduan eskuduna bada.

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeari esker, ingurumen-ebaluazio estrategikoa

prebentzio-tresnatzat txertatu da Espainiako legedian, eta hartara, planen eta programen gaineko erabakiak hartzeko garaian, ingurumenarekin loturiko alderdiak barnean har daitezke; izan ere, planen eta programen bitartez finkatzen dira proiektu handien, obra publikoen eta azpiegituren kokagunea eta gauzatzea erabakitzeko irizpide estrategikoak, Espainiako zuzenbidean *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/EEE Zuzentaraua, 2001eko ekainaren 27koa*, txertatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, aurrekoaren eginkizun berdina betetzen du *ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailearen 22ko 183/2003 Dekretuak*.

Erabilera berria txertatzearen, plangintza egokitu egin behar izanez gero, aldaketa horretan ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua egin behar izango da, eta horretarako, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren azterlana egitea ezinbestekoa izango da; 183/2003 Dekretuan arautzen da azterlan horren edukia eta izapidetzea.

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeari jarraiki, ingurumen-ebaluazioaren objektu izango dira plangintza eta horren aldaketa, baldin eta **ingurumenean ondorio esanguratsuak** izan baditzaizkete; honako bi baldintza hauek bete behar dira:

- a) Plangintza administrazio publiko batek egin edo onartzea.
- b) Plangintzaren osaketa eta onarpena nahitaezkoa izatea lege- edo arau-xedapen batean eskatzen delako, edo Ministroen Kontseiluaren akordio batean, edo Autonomia Erkidego bateko Gobernu Kontseiluan.

9/2006 Legearen arabera, plangintza batek ingurumenean **ondorio esanguratsuak** ditu, baldin eta:

- a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa legez egin behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badu, hainbat diziplinatan: gure kasuan, *meatzaritza, hiriko eta landa-eremuko lurraldearen antolamenduan* edo *lurzorua erabileran*.
- b) Natura 2000 Sarea arautzen duen araudiaren araberako ebaluazioa eskatzen badu.

Ingurumen-organoak erabakiko du plangintza berriak edo indarreko plangintzaren aldagetak –hirigintza-egokitzapena egiteko beharrezkoa izango balitz– ingurumen-ebaluazioa egin behar ote duen, honako kasu hauetan:

- a) Plangintzak lurralde-eremu murriztuko zonen erabilera ezartzen badu.
- b) Plangintzaren aldagetak txikiak badira.

- c) 9/2006 Legearen 3. artikuluko 2.a) idatz-zatian aurreikusten¹ ez diren planak eta programak badira (diziplina multzoari buruz ari da, eta gure kasuan, *meatzaritza, hiriko eta landa-eremuko lurraldearen antolamendua* edo *lurzoruaren erabilera* nabarmendu ditugu).

Ingurumen-organoak hartuko du erabaki hori, dela kasuan kasu, dela plan eta programa motak zehaztuta, dela bi metodoak uztartuta. Hiru kasuetako edozeinetan, ingurumen-organoak kontuan izan behar ditu 9/2006 Legearen II. eranskinean ezarritako irizpideak. Hona hemen irizpide horiek:

1. Plangintzaren ezaugarriak, eta bereziki:
 - Plangintzan zenbateraino ezartzen den proiektuetarako eta bestelako jardueretarako esparru bat, honako hauei dagokienez: kokapenari, motari, dimentsioei, edo funtzionamendu-baldintzei dagokienez; edo baliabideak esleitzearen bitartez.
 - Plangintzak zenbateraino eragiten duen beste plan edo programetan, baita hierarkizatuak daudenetan ere.
 - Plangintza egokia ote den ingurumenarekin loturiko alderdiak garapen iraunkorra sustatzeko helburuarekin, bereziki, uztartzeko.
 - Plangintzarekin loturiko ingurumen-arazo esanguratsuak.
 - Plangintza egokia ote den ingurumen-arloko legedia –autonomia-erkidegokoa edo naziokoa– ezartzeko.
2. Seguruenik eraginpean hartuko den eremuaren eta ondorioen ezaugarriak, bereziki honako hauek kontuan izanik:
 - Ondorioak gertatzeko aukera, horien iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
 - Ondorioak metagarriak izatea.
 - Ondorioak mugaz haraindikoak izatea.
 - Giza osasunarentzako edo ingurumenarentzako arriskuak (esate baterako, istripuengatik).
 - Ondorioen garrantzia eta irismena espazioan (eraginpean gera daitekeen udalerraren tamaina eta eremu geografikoa).

¹ 3. artikuluko 2.a) idatz-zatia: «Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa legez egin behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen duten (*planak*), honako arlo hauetan: nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakin-kudeaketa, baliabide hidrikoen kudeaketa, itsasoko eta lurreko jabari publikoaren okupazioa, telekomunikazioak, turismoa, hiriko eta landa-eremuko lurraldearen antolamendua, edo lurzorua erabilera.»

- Seguruenik eraginpean hartuko den eremuaren urrakortasuna eta balioa, honako hauei dagokienez:
 - Natura-ezaugarri bereziak edo kultura-ondarea.
 - Ingurumeneko kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzea.
 - Lurzoruaren ustiapen intentsiboa.
 - Nazioan, Erkidegoan edo nazioartean onartutako babes-maila duten eremu edo paisaietako ondorioak.

Ondorio horien barnean sartzen dira bigarren mailako ondorioak, metagarriak, sinergikoak, epe motz, ertain eta luzekoak, iraunkor eta aldi baterakoak, positibo eta negatiboak.

Ingurumen-organoak hartzen duen erabakia publiko egingo da, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak azalduko dira.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren arabera, hirigintza-egokitzapenek ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua egin beharko dute, baldin eta honako kasu hauetakoren bat betetzen bada:

- Hierarkian goragoko mailako plangintza aldatzea eskatzen badu lurzoru urbanizazinean.
- Lurzoru urbanizazina eraginpean hartzen duen plangintza egitea eskatzen badu.
- Lurzoruaren eta baliabide naturalen erabilerari dagokionez, plangintza egitea eskatzen badu.
- Natura 2000 Sareko guneren bat eraginpean har dezakeen plangintza egitea eskatzen badu.
- Ramsar Hitzarmenaren Zerrendako hezeguneetakoren bat eraginpean har dezakeen plangintza egitea eskatzen badu.
- Eusko Jaurlaritzaren ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 51. artikuluan definitutako Ingurugiro-zona sentikorrek eraginpean har ditzakeen plangintza egitea eskatzen badu.
- Arlo horretako indarreko legedia betez, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduretakoren bat egin behar duten proiektuak etorkizunean onartzeko esparrua ezartzen duen plangintza egitea eskatzen badu.

Kasu horiek orientagarriak baino ez dira, eta ez dituzte ordeztzen indarreko legedia kasu partikularretan aplikatzeko garaian sor daitezkeen askotariko egoerak.

HIRIGINTZA IZAPIDETZEA

Hirigintza-dokumentua Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren eraginpean badago (*Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorra, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuari buruzko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, eta plan eta programa jakin batzuek ingurumenean eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea*), dokumentu hori lantzeko eta onartzeko eskumena duen Administrazio Publikoak (Organo Eskuduna) **Erreferentziako Dokumentua** eskatu beharko dio nahitaez Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoari, hirigintza-dokumentua onartzeko eskumena foru-organoena edo Udalena den kasuetan izan ezik, 3/98 Legearen 44. artikulua eta Euskadiko lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 91.1; 95.5 eta 6; eta 97.1 artikuluen arabera.

Erreferentziako Dokumentuan, hirigintza-dokumentuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlanean bildu beharreko informazioaren zabalatasuna, xehetasun-maila eta espezifikazio-maila adieraziko dira. Horretarako, dokumentuaren helburuak, aurreikuspenak eta eremua zehaztu behar dira. Eskabidea onartzen den unetik bi hilabete igarotakoan, hirigintza-dokumentua onartzeko prozedurari jarraipena emango zaio.

Organo Eskudunak hasierako onarpenaren eraginpean jartzea aurreikusi den hirigintza-dokumentua landuko du, baita **Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuari buruzko Azterlana** ere. (*Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea* aipaturiko iraunkortasun-txostena *uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan* aipaturiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlanean bilduta dagoela jo behar da *–azken Dekretu horrek ingurumen-inpaktuko ebaluazio bateratuari buruzko prozedura arautzen du*). Bi dokumentuak dagozkion Ingurumen Organoari helaraziko zaizkio (Eusko Jaurlaritza, Foru Al-dundia edo Udala), nahitaezko **Aurretzeko Txostena** egin dezan.

Txosten horretan ingurumen-helburu estrategikoak behar bezala integratu ote diren ebaluatuko da, garapen iraunkorrako, bidezkoago eta osasungarriago bat sustatzearen alde egiten duten ekarpena balioetsiz, eta gainera ingurumenean eragindako ondorio esanguratsuenak ongi ebaluatuko dira, alternatiba egokienak hautatzeko. Hori ez ezik, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen sustapena ere ziurtatuko da.

Berriz ere, txosten-eskabide hori onartzen denetik bi hilabete igarotakoan, plana edo programa onartzeko prozedurari jarraipena emango zaio, hau da, planaren edo programaren hasierako onarpenera gauzatu da, baita jendaurrean ikusgai jarri ere, 45 egunez gutxienez.


Jendaurreko informazioko fasea amaiturik eta hirigintza-dokumentua behin-behingo onarturik, Organo Eskudunak nahitaezko **Behin betiko Txostena** eskatu beharko dio dagokion Ingurumen Organoari, Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosten-izapidearen aurretik (*Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.2 artikulua*). Txosten horrek Aurretiazko Txostenaren edukia izango du, honako salbuespen honekin: azken txosten hori egin ondoren, Behin betiko Txostenean, funtsean, hasiera batean onarturiko dokumentutik behin betiko dokumentura ekarritako aldaketak aipatuko dira.

Txosten-eskabide hori onartzen denetik bi hilabete –edo hilabete bat, plan berezien kasuan– igarotakoan, plana behin betiko onartzeko aukera izango da, eta, hala badagokio, harturiko erabakia arrazoitu egingo da, baldin eta erabaki hori ingurumen-inpaktuko Behin betiko Txostenaren edukiarekin bat ez badator.

1. Fluxugrama HIRIGINTZA DOKUMENTUAREN INGURUMEN INPAKTUKO EBALUAZIO BATERATUKO (CIA/IIEB) PROZEDURA

Organo Eskuduna

Udala / Foru Aldundia / Eusko Jauriaritza



Tartean sartutako beste batzuk

- Kantsultar-fasea
 - Aurrerapen-fasea
 - Hasierako onarpeneko fasea
 - B. behineko onarpeneko fasea
 - B. betiko onarpeneko fasea
- Kantsultak beste erakunde batzuei / Eraginpeko administrazio publikoak
- (9/2006 Legea)**
(183/2003 Dekretua)
- Hirigintza, Dok.

PROIEKTUA BAIMENTZEKO PROZEDURA

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Energia eta Meategien Zuzendaritzako Meategi Zerbitzua da organo eskuduna, eta organo horrek ematen ditu baimenak; hain zuzen ere, Meategiei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legearen bidez araututako proiektuen baimenak.

Baimentze-prozesuak mota askotakoak izan daitezke, eta proiektu motaren arabera izango da prozedura; hona hemen gehien aurkezten diren proiektuak:

- Meatze-ikerketako proiektua.
- Atari zabaleko edo lurpeko ustiategi berriaren proiektua.
- Ustiatagia berriz irekitzea, meatze-eskubideren bat bizirik eta inaktibo izanik.
- Baimendutako eta aktibo dauden ustiategi-proiektuen aldaketak.

4.1. MEATZE IKERKETAKO PROIEKTUA

Ondorioz, ikerketari ekin ahal izateko baimena lortzearen, dagokion Lurralde Historikoko Industria Sailaren Lurralde Bulegoan meatze-ikerketako proiektua aurkeztu beharko da.

3/1998 Legearen 49. artikulua araberak, «Zulaketak, zundaketak eta mea-bilketak egin beharreko meatze-ikerketako» proiektuek ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar dute. Beraz, proiektu horiek egiteko (edo, dagokionean, baimena emateko) administrazio-ebazpena onartu baino lehen, ebazpena onartzeko organo eskudunak proiektuaren ebaluazio sinplifikatua eginaraziko du. Ebaluazioa ingurumen-inpaktuari buruzko txostenarekin amaituko da. Bertan ingurumenaren gaineko eragin garrantzitsuenak eta hauek minimizatzeko neurri zuzentzaileak adieraziko dira. Txostenaren edukia aipatutako administrazio-ebazpenean joango da. Horrela, bada, meatze-ikerketako proiektuarekin batera, proiektuaren titularrak **ingurumen-azterlana** aurkeztu behar du; azterlan horren edukia eskuliburu honen 5.9 idatz-zatian garatuko dugu.

Meatze-ikerketako proiektuak ez daude bilduta 3/98 Legearen II. eranskinean, alegia, ez dira jarduera sailkatutzat hartzen, eta beraz, ez da beharrezkoa udalak jarduera-lizentzia ematea.

2. Fluxugrama

INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUA EGIN BEHARREKO MEATZE-IKERKETAKO PROIEKTUAK (3/98 LEGEAREN I.C ERANSKINEAN BARNE HARTUTAKOAK) BAIMENTZEKO PROZEDURA

Organo Eskuduna:

Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (EJ)

PROIEKTUA BAIMENTZEKO EBAZPENA
(ingurumen-edukia txertatuta)

Proiektuaren titularra

Meatze Ikerketako Proiektua
eta
Ingurumen Azterlana

4.2. ERAUZKETA JARDUERAREN USTIAPEN PROIEKTUA

Ustiapenari ekin ahal izateko baimena lortzearren, dagokion Lurralde Historikoko Industria Sailaren Lurralde Bulegoan ustiapen-proiektua aurkeztu beharko da; 1990eko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onartutako ITC 07.1.02 jarraibidearen arabera egin behar da proiektu hori (Ikus 1. eranskina).

Proiektu horrekin batera, Leheneratze Plana aurkeztu behar da, honako hauei jarraiki: ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuari; Segurtasun eta Osasun Dokumentuari; eta 1389/1997 eta 150/1996 Errege Dekretuei jarraiki. Eta II Ea egin behar badu, dagokion Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlana ere aurkeztu behar da.

Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren (IIE) prozedura egin behar duten proiektu publiko nahiz pribatuei baimena eman ahal izateko, ingurumen-administrazio eskudunak esku hartzen duen ingurumen-izapideak bete beharko dira aurretik, baita administrazio nagusiaren izapideak ere, azken hori baita, azken batean, proiektua gauzatzeko baimena ematen duena.

Ingurumen-administrazioak kasuan kasu erabakiko du proiektua egokia ote den, betiere ingurugiroaren babesaren edo kontserbazioaren alde eginez. Agintaritze horren irizpena Ingurumen Inpaktuaren Deklarazioaren (IID) bidez egiten da, eta deklarazio horrek baldintzatuko du organo eskudunak proiektua baimentzea edo ez baimentzea.

Zenbait meatzaritza-proiekturen kasuan, organo eskuduna eta, beraz, *ustiapen-proiektua eta lebeneratze-plana onartu* behar dituena Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien Zuzendaritza da. Kasu horietan, ingurumen-eskumena duen organoa eta, beraz, *Ingurumen Inpaktuaren Deklarazioa* egingo duena, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza da.

Proiektua baimentzeko organo eskuduna Industria Ministerioa baldin bada, ingurumen-organoko eskuduna Ingurumen Ministerioa izango da.

Erauzketa-jarduerak 3/1998 Legearen (*Euskadiko ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren*) II. eranskinaren barnean hartuta daude, eta, hortaz, 55-66 artikuluetan aurreikusitako administrazio-lizentziaren araubideari atxiki behar zaizkio. Hori dela-eta, proiektua onartu eta IIDa egin ostean, eraginpean hartutako Udalak *Jarduera-lizentzia* eta *Obra-lizentzia* eman beharko ditu –betiere 3/1998 Legean ezarritako prozedurari jarraiki–, Udalak egoki iriztitako baldintzekin.

Horretaz gain, eta ustiapen-proiektuak dakartzan jardunen arabera, **beste baimen batzuk** ere beharko dira; esate baterako:

Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera, uraren ibilguak, isurketak eta hartzeak aldatzeko baimena Uraren Euskal Agentzian eskatu behar da, honako hauetan ezarritako prozedurak betez: *uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren* bidez onartutako *Urari buruzko testu bateginean*, eta *apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuan*; *849/1986 Errege Dekretuaren bidez, urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen (2003/06/06ko BOEa) atarikoak eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen dituen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen da, baita horren aldaketak ere.*

Mozketak eta sasi-garbiketak egiteko baimena mendi-arloan eskuduna den sailean eskatu behar da.

Era berean, Onura Publikoko Mendien kasuan ere baso-kontzesioa eskatu behar da.

4.2.1. **Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren izapidea, proiektua baimentzean**

3. fluxugraman, 3/98 Legearen I.B eranskinean eta 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean barne hartutako meatze-ustiapeneko proiektuek jarraitu

beharreko IIEaren izapidea jaso dugu, modu eskematikoan, eta prozeduran dauden aldeak bi kolorez nabarmendu ditugu, proiektua autonomia-erkidegoko edo estatuko administrazioak baimentzen duen arabera.

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartu da, eta Lege horren II. kapituluaren Lehen sekzioan finkatutako prozedurari jarraiki, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren (IIE) izapidean honako jardun hauek sartzen dira:

4.2.1.1. *Proiektua ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxikitzeko sustatzailearen eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera (5. artikulua)*

Sustatzaileak honako hau eskatuko dio autonomia-erkidego bakoitzak erabakitako organoari: proiektua ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxiki dadin. EAEn kasuan, organo hori Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila da.

Eskaerarekin batera, proiektuaren hasierako dokumentua (PHD) ere aurkeztu behar da; dokumentu horren edukia legean ezarria dago (ikus 5.6 idatz-zatia), eta autonomia-erkidego bakoitzak erabakitako organoan aurkeztu behar da.

Bai EAEn, bai Espainiako Estatuan, idatz-zati horretan aipagai ditugun eskaera eta dokumentazioa organo eskuduneari aurkeztu behar dira. Organo eskudunak adostasuna eman behar die eskaerari eta Proiektuaren hasierako dokumentuari, eta hori egindakoan, ingurumen-organuari igorriko dizkio, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapideari ekite aldera.

4.2.1.1. *Ingurumen-organok ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren nondik norakoa erabakitzea, eraginpean hartutako administrazioei eta, dagokionean, interesdunei kontsulta egin ostean (8. artikulua)*

Ingurumen-organok eskudunak 10 laneguneko epea du proiektuaren hasierako dokumentuari buruzko kontsulta egiteko eraginpean hartutako administrazio publikoari eta, dagokionean, eraginpean hartutako beste pertsona fisiko nahiz juridiko publiko edo pribatuei. Erantzuteko, 30 laneguneko epea izango dute.

20 laneguneko epean, kontsulten edukia eta ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren (IIA) nondik norakoa eta zehaztasun-maila adierazi beharko zaizkio sustatzaileari.

3/98 Legean ez da inolako eperik ezarri izapide horretarako; horregatik, EAEn, IIAREN nondik norakoa eta zehaztasun-maila finkatzen dituen txostena egiteko epea irailaren 30eko 1131/88 Errege Dekretuan ezarritakoa da; alegia, **60 lanegun**,

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailean PHDa jasotzen denetik kontatzen hasita. Gaur egun, 3/98 Legea aldatze-prozesuan dago, eta azken zirriborroaren arabera, izapide horretarako 2 hilabeteko epea ezarriko da. Bestalde, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan 3 hilabeteko epea ezarri da Estatuko Administrazio Orokorra baimendu edo onartutako proiektuen kasuan, betiere eskaera eta PHDa ingurumen-organoan jasotzen diren etik kontatzen hasita.

Gerta daiteke IIIa egin beharreko meatze-ustiapeneko proiektuek Natura 2000 Sareko espazioetan zuzenean nahiz zeharka eragitea; kasu horretan, eta EAeri dago-kionez, organo eskuduna Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailaren Biodibersitatearako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da. Zuzendaritza horrek proiektuak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen efektuei buruzko iritzia eman beharko du (I. Fasea. Garrantzia ebaluatzea) eta Natura Sarearen gaineko efektuen balioespeneren II. fasea edo «Ebaluazio egokitua» (ikus 4.2.3 idatz-zatia) IIAn txertatu behar dela erabaki beharko du.

4.2.1.3. *Proiektuaren sustatzaileak Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlana (IIA) egitea*

IIAa organo eskudunean aurkeztu behar da, leheneratze-planarekin eta ustiapen-proiektuarekin batera; aldi berean, ustiapen-proiektuan leherketa-proiektua eta segurtasun- eta osasun-dokumentua bildu behar dira. Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren 7. artikuluan finkatutako gutxieneko edukia izan beharko du Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlanak, eta betiere ingurumen-organoak kontsulten izapidea egin ostean erabakitako edukiari jarraiki.

4.2.1.4. *Organo eskudunak jendaurrean jartzeko eta eraginpean hartutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko izapidea betetzea*

Jendaurrean jartzeko izapidearen aurretik, organo eskudunak IIaren edukia baliozkotu egin beharko du, kontsulten izapidearen ostean ingurumen-organoak ezarritako nondik norakoaren eta zehaztasun-mailaren arabera.

Dagokion ustiapen-proiektua baimendu edo gauzatzeko aplikatu daitekeen prozeduraren barruan, organo eskudunak Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlana –ustiapen-proiektuarekin eta leheneratze-proiektuarekin batera– jendaurrean jarriko du, eta prozeduran ezarritako gainerako txostenak ere egin beharko ditu. Izapide hori bete egingo da, baina prozeduraren honako fase hauetan: baimenaren zain dagoen eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar duen proiektuaren edukia, hedadura

eta definizioa erabakitzearekin loturiko aukera guztiak oraindik ere zabalik dauden faseetan; gutxienez 30 eguneko iraupena izango du.

Jendaurrean jartzeko izapidea betetzeko garaian, organo eskudunak jendeari jakinarazi beharko dizkio proiektua baimentzeko prozedurarekin loturiko alderdi garrantzitsu guztiak, eta zehazki, honako hauek:

- a) Proiektua baimentzeko eskaera.
- b) Proiektua ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurari atxikita dagoela.
- c) Prozedura ebazteko organo eskuduna zein den, informazioa zein organotatik lor daitekeen, eta ohar, alegazio eta kontsultak zein organori aurkez dakizkiokeen, baita horiek aurkezteko epea ere.
- d) Erabakien edo, dagokionean, hartuko diren erabakien zirriborro edo proiektuen nondik norakoa.
- e) 7. artikulua araberaz jasotako informazioa eskuratzeko moduan ote dagoen, eta informazio hori jendaurrean noiz eta non jarriko den.
- f) Parte hartzeko moduak.

Aldi berean, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren zabaltasuna eta xehetasun-maila definitzeko kontsultatutako eraginpeko administrazio publikoei kontsulta egingo die organo eskudunak eta jarraian zehaztuko dugun informazioa emango die; informazio hori, gainera, interesdunen esku ere jarriko da. Hona hemen:

- a) 7. artikulua araberaz jasotako informazio guztia.
- b) Jendaurrean jartzeko izapidea bete aurretik, organo eskudunak jasotako dokumentazio garrantzitsu guztia.

Eraginpean hartutako interesdunei eta administrazio publikoei prozeduran parte hartzeko eskubidea dutela jakinarazi behar die organo eskudunak, baita eskubide hori noiz balia dezaketen ere. Parte hartuz gero, oharrak eta alegazioak zein organo eskuduni igorri behar zaizkion zehaztu beharko da jakinarazpen horretan, eta horretarako dagoen epearen berri ere eman beharko du. Epe hori gutxienez 30 eguneko izango da.

Halaber, organo eskudunak eraginpean hartutako interesdunen eta administrazio publikoen esku jarriko du goian aipatutakoa ez den informazioa ere, baldin eta jendaurrean jartzeko aldia amaitutakoan soilik lor badaiteke, eta proiektua gauzatzeari buruzko erabakiari dagokionez erabakigarria izan badaiteke.

Kontsulaten eta jendaurreko informazioaren emaitzak kontuan izan beharko dituzte bai sustatzaileak, proiektuan, bai organo eskudunak, proiektua baimentzeko garaian.

4.2.1.5. *Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktuaren ebaluazioa amaitzeko, ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren deklarazioa egin beharko du eta publiko egingo da*

Jendaurrean jartzeko izapidea bete ostean, eta obra, instalazioa edo jarduera gauzatzeko edo, dagokionean, baimentzeko administrazio-ebazpena eman aurretik, organo eskudunak espedientea igorriko dio ingurumen-organoari, kasuan kasu, egoki iritzitako oharrekin batera, betiere ingurumen-inpaktuaren deklarazioa egite aldera; deklarazio horretan, ingurumena eta baliabide naturalak behar bezala babesteko ezarri beharreko baldintzak finkatuko dira.

Espedientea ingurumen-organoari igortzeko eta ingurumen-inpaktuaren deklarazioa osatzeko epeak autonomia-erkidegoak erabakiko ditu; EA Eren kasuan, hilabete 1eko epea dago. 3/98 Legea aldatzeko zirriborroan 2 hilabeteko epea ezarri da IIDa egiteko. Estatuko Administrazio Orokorrak onartutako proiektuen kasuan, 3 hilabeteko epea dago IIDa egiteko.

Ingurumen-inpaktuaren deklarazioa publiko egingo da beti. Estatuko Administrazio Orokorrak baimendu edo onartu behar dituen proiektuei dagozkien ingurumen-inpaktuaren deklarazioak Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOEa) argitaratuko dira; Eusko Jaurlaritzak onartu edo baimendutako proiektuei dagozkien deklarazioak, aldiz, EHAAn.

4.2.1.6. *Desadostasunak ebaztea*

Gerta daiteke organo eskuduna eta ingurumen-organoa ados ez egotea, dela proiektua gauzatzearen egokitasunari dagokionez (ingurumenarekin loturik), dela IIDaren baldintzen edukiari dagokionez. Kasu horretan, autonomia-erkidegoko Gobernu Kontseiluak emango du ebazpena, edo dagokionean, Ministro Kontseiluak.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren ustez meatze-ustiapeneko proiektuak nabarmen eragiten badio Natura 2000 Sarearen koherentziari, Natura Sarearen gaineko efektuak balioesteko metodologiaren IV. fasea abiaraziko da; hain zuzen ere, Ebaluazioaren Fasea, beste aukerarik ez dagoenean eta Natura Sarearen gaineko efektu negatiboak eusten zaienean (Ikus 4.2.3 idatz-zatia).

4.2.1.7. *Baimendutako proiektuaren publizitatea*

Proiektua baimendu edo onartzeko erabakia publiko egingo du erabaki hori hartu duen organo eskudunak; jendaurrean jarri beharko ditu honako hauek:

- Hartutako erabakiaren eta ezarritako baldintzen edukia.
- Erabakia hartzeko oinarri izan diren arrazoi eta gogoeta nagusiak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan bildutako ohar eta iritziei dagokienez.

- Behar izanez gero, efektu negatibo nagusiak saihestu, murriztu eta, ahal dela, ezabatzeko neurri nagusien deskripzioa.

4.2.2. **Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren II. eranskinean barne hartutako proiektuak izapidetzea**

4.2.2.1. *Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxikitzea edo ez atxikitzea erabakitzeako eskaera*

Ingurumenaren gaineko inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren II. eranskinean barne hartutako (baina 3/98 Legearen I.B eranskinean jaso gabeko) edozein jardueraren proiektu publiko edo pribatuek ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, baldin eta ingurumen-organoak kasuan kasu horrelakorik erabakitzen badu. Erabakiak arrazoitua eta publikoa izan behar du, eta testu bateginaren III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Hori horrela izanik, testu bateginaren II. kapituluko 2. sekzioan ezarritako prozedurari jarraiki, II. eranskinean barne hartutako proiekturen bat egin nahi duen pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuak honako hau eskatu beharko dio autonomia-erkidego bakoitzak erabakitako organoari (EAEren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailari): proiektu hori II Eari atxiki behar ote zaion erabakitzea, III. eranskineko irizpideen arabera. Eskaerarekin batera, proiektuaren ingurumen-dokumentua (PID) aurkeztu behar da, testu bateginaren 16.1 artikuluan xedatutako edukari jarraiki (ikus 5.6.2 idatz-zatia).

Idatz-zati horretan aipagai ditugun eskaera eta dokumentazioa organo eskuduneari aurkeztu behar dira. Organo eskudunak adostasuna eman behar die aurkeztutako dokumentuei, eta hori egindakoan, ingurumen-organoari igorriko dizkio, proiektua II Earen prozedurari atxiki behar ote zaion erabaki dezan.

4.2.2.2. *Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxiki behar ote zaion erabakitzea*

Ingurumen-organoak erabakiko du proiektua II Eari atxiki behar ote zaion, betiere autonomia-erkidegoak erabakitako epean; EAEren kasuan, epe hori ez dago finkatua.

Aldez aurretik, administrazio, pertsona eta erakundeei kontsulta egingo zaie, hasierako dokumentua haien eskura jarritz. Erabakia publiko egingo da eta kontsulten emaitza ere kontuan izan beharko du.

Kontsulta-fasearen ondorioz, proiektua II Eari atxiki behar zaiola erabakitzen bada, II Aren nondik norakoa eta zehaztasun-maila jakinarazi behar zaizkio susta-

4. Fluxugrama

1/2008 LEDaren II. ERANSKINEAN BARNE HARTUTAKO MEATZE USTIAPENENKO PROIEKTUAK BAIMENTZEKO PROZEDURA

Organo Eskuduna:

Ejren Industria, Merkataritza
eta Turismo Salla (3/98 L)

Industria Ministerioa
(1/2008 LED)

PIDarekin
ados

USTIAPEN PROIEKTUA
BAIMENTZEKO EBAZPENA
(ARGITARATU EHAAt/BOEan)

Proiektuaren Titularra

Proiektuaren
Ingurumen
Dokumentua (PID)

Zehaztu gabe
(2 hil. 3/98
L. aldak. arabera)

3 hil.

Ingurumen Organoa:

Ejren Ingurumen eta Lurralde
Antolamendu Salla (3/98 L)

Ingurumen Ministerioa
(1/2008 LED)

II Ea egin beharra
erabakitzea

PID

Ebazpen publiko eta arrazoitua
II Ea egin behar EZ duen proiektua

II Ea egitea

II E PROZEDURA
3. FLUXUGRAMA

Tartean sartutako beste batzuk:

Eraginpeko administrazio,
persona eta erakundeei kontsultak
(1. fasea Natura 2000 – II kus 6. fluxugrama)

tzaileari, baita kontsulta-fasearen emaitza ere, IIEaren izapidearekin jarrai dezan, 4.2.1 idatz-zatiaren arabera

4.2.3. Izapidea, Natura 2000 Sarean eraginez gero

Natura 2000 Sarea Europako sare ekologiko koherentea da eta European arrisku larrienean dauden espezie eta habitatak zaintzen ditu, giza jardueren inpaktu negatiboak eragindako biodibertsitate-galera geldiarazten lagunduta. Honako hauek osatzen dute sare hori: *Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren* eta *Hegazti buruzko 79/409/EEE Zuzentarauaren* bidez, hurrenez hurren, izendatutako Batasunaren Garrantzizko Lekuek (BGL) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBE), eta Estatuko ordenamendu juridikora egokitu dira *Natur ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen* bidez.

42/2007 Legearen arabera, aipatutako eremu horietan nabarmen eragin dezaketan plan edo proiektuek eremuan eragingo dituzten ondorioen «ebaluazio egokitua» egin beharko dute. Agindu horretan esandakoa egoki interpretatzeko, honako hauetara jo daiteke: «Estudios específicos de afecciones a la Red Natura 2000/Natura 2000 Sareari eragindako ondorioen azterlan espezifikoa» (Ingurumen Ministerioa, 2005), hau da, azterlan mota hori prestatzeko gomendio metodologikotara; eta «Evaluación de los planes y proyectos que tienen afecciones significativas sobre lugares Natura 2000/Natura 2000 Sareko eremuetan ondorio esanguratsuak eragiten dituzten plan eta proiektuak ebaluatzea» (Europako Batzordea, 2001) izeneko Europako gida metodologikora.

Ebaluazio hori egiteko, ingurumen-inpaktua ebaluatzearekin loturiko legedian eskaintzen zaizkigun tresnak baliatu behar ditugu. Hori horrela, proiektua, berez, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari atxikia badago, prozedura hori izango da ebaluazioa egiteko bide egokia, Natura 2000ri dagokionez, eta Natura 2000 sarean eragindako efektuak identifikatu eta balioetsi egin beharko ditu Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlanean.

Bestalde, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko legearen testu bateginaren 16. artikulua betez, Legegintzako Errege Dekretu horren I. eranskinean eta 3/98 Legearen I.B eranskinean barne hartuta ez dagoelako IIEa egin behar ez duen proiektu batek (betiere Natura 2000 Sareko espazioaren batean zuzenean nahiz zeharka eragin badezake) ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko du lege horretan aurreikusitako moduan, ingurumen-organoak kasuan kasu horrelakorik erabakitzen badu; II. eranskinean barne hartutako proiektuen kasu berdina da (ikus 4.2.3 idatz-zatia). Bi kasuetan, ingurumen-dokumentua (PID) prestatu behar da eta IIEaren izapideari ekin behar zaio, ingurumen-administrazio eskudunak erabaki dezan proiektuak IIEa egin behar ote duen (ikus 4.2.2 eta 5.6.2 idatz-zatiak).

Ingurumen-organoak eraginpean hartutako administrazio, erakunde eta pertsonen kontsulta egiteko izapideari ekingo dio; eraginpean hartutako horien artean «Natura 2000 Behatokia» dago. Gaur egun, eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia dela-eta, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza da ingurumen-organo hori.

Informazio hori eskutan duela, proiektua IIEaren prozedurari atxiki behar ote zaion erabaki beharko du ingurumen-organoak. Erabaki hori hartzeko, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideei jarraituko die, eta hartutako erabakia arrazoitua eta publikoa izango da.

IIEaren prozedurari atxikitzea erabakitzen bada, proiektuaren titularrari jakinaraziko zaio; kontsulten emaitzak eta egin beharreko IIAREN nondik norakoa eta zehaztasun-maila igorriko zaizkio titularrari, IIEaren izapidearekin aurrera egin ahal izan dezan. Izapide horren barnean, Natura 2000 Sarearen gaineko eraginak behar bezala ebaluatu beharko ditu.

IIEari ez atxikitzea erabakitzen bada, ustiapen-proiektua baimentzeko izapidean aurrera egingo da.

4.2.3.1. *Natura 2000 Sareko espazioetako eraginak balioesteko metodologia*

«Plan edo proiekturen batek, toki baten kudeaketarekin lotura zuzena izan gabe edo horretarako ezinbestekoa izan gabe, toki horietan nabarmen eragin badezake, dela berak bakarrik, dela beste plan edo proiekturen batekin batera, tokian eragingo dituen ondorioen ebaluazio egokitua egin beharko du; ebaluazio hori honako hauen arabera izango da: aplikatu daitezkeen arauen arabera, Estatuko oinarritzako legegindian ezarritakoaren arabera, eta Autonomia Erkidegoek emandako babes-arau osagarrien arabera, toki horren kontserbazio-helburuak kontuan izanik. Tokiaren gaineko eraginaren ebaluazioaren ondorioak aztertuta, eta artikuluko honen 4. idatzatiaz xedatutakoa betez, Autonomia Erkidegoek plan edo proiektu horrekin ados daudela adieraziko dute, baina toki jakin horren osotasunean kalterik ez duela eragingo ziurtatu ostean, eta hala badagokio, jendaurrean jarri ondoren» (1997/1995 Errege Dekretuaren 6.3 artikulua; Errege Dekretu hori *abenduaren 7koa da eta berezko habitata eta flora eta fauna basatien kontserbazioaren bidez biodibertsitatea bermatzen laguntzeko neurriak ezartzen ditu, eta 1193/1998 eta 1421/2006 Errege Dekretuen bidez aldatu da*).

«Tokiaren gaineko eraginaren ebaluazioan ondorio negatiborik atera ez bada ere, eta bestelako konponbiderik ezean, hala ere plan, programa edo proiektu bat egin behar bada lehen mailako interes publikoko premiazko arrazoiak direla-eta (arrazoi sozial edo ekonomikoak barnean hartuta), administrazio publiko eskudunek behar

5. Fluxugrama

1/2008 LEDaren I. ERANSKINEAN ETA 3/98 LEGEAREN I.B ERANSKINEAN BARNE HARTUTA EZ DAUDEN ETA NATURA 2000 SAREAN ZUZENEAN NAHIZ ZEHARKA ERAGIN DEZAKETEN MEATZE USTIAPENEN PROIEKTUAK BAIMENTZEKO PROZEDURA

Organo Eskuduna:

Ejren Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (3/98 L)
Industria Ministerioa (1/2008 LED)

Proiektuaren Titularra

Proiektuaren Ingurumen Dokumentua (PID)

Ingurumen Organoa:

Ejren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila (3/98 L)
Ingurumen Ministerioa (1/2008 LED)

Tartean sartutako beste batzuk:

Eraginpeko administrazio, pertsona eta erakundeei **kontsultak**.
N2000 Sarea Behatokiaren irizpena Loteslea eta nahitaezkoa
Etorikizuneko Natura 2000 Dekretuaren arabera
(I. fasea Natura 2000 – I.kus 6. fluxugrama)

USTIAPEN PROIEKTUA
BAIMENTZEKO EBAZPENA
(ARGITARRAITU EHAAn/BOEan)

PIDarekin
ados

Zehaztu gabe
(2 hil. 3/98 L. aidak. arabera)

3 hil.

Ebazpen publiko eta arrazoitua
II.Ea egin behar EZ duen proiektua

III.Ea egitea

II.E PROZEDURA
3. FLUXUGRAMA

II.Ea egin beharra erabakitzea

PID

adina konpentsazio-neurri hartuko dituzte Natura 2000 Sarearen koherentzia globala babestua gera dadin bermatzeko.

Dagokionean, eta aplikatzeko araudian xedaturikoari jarraiki, plan eta programen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduran eta proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko prozeduran hartuko dira konpentsazio-neurriak.

Estatuko Administrazio Orokorrek baimendutako, eta aldi berean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari atxikitako plan, programa eta proiektuen kasuan, Ingurumen Ministerioak ezarriko ditu konpentsazio-neurriak. Neurri horiek definitzeko, plan, programa edo proiektuak eraginpean hartutako Natura 2000 Sareko espazioa kudeatzeko eskumena duen Autonomia Erkidegoko organoari kontsulta egin behar zaio. Txosten hori egiteko hogeita hamar eguneko epea izango da. Konpentsazio-neurrien gainean desadostasunik sortuz gero, Ingurumen Ministerioak lan-talde bat osatuko du departamentu horretako eta eraginpean hartutako Autonomia Erkidegoko ordezkariekin, eta lan-talde horrek definitu beharko ditu plan, programa edo proiektuan txertatu beharreko konpentsazio-neurriak, ados jarrita eta gehienez hogeita hamar eguneko epean. Desadostasunak irauten badu, Ingurumen Ministerioak erabakiko ditu konpentsazio-neurriak, betiere Autonomia Erkidegoaren iritzia kontuan izanik.

Gainerako kasuetan, Autonomia Erkidegoei dagokie Natura 2000 Europako Sare Ekologikoko espazioaren gaineko ondorioak ebaluatzea». (*Berezko habitat eta flora eta fauna basatien kontserbazioaren bidez biodibertsitatea bermatzen laguntzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretuaren 6.4 artikulua; 1193/1998 eta 1421/2006 Errege Dekretuen bidez aldatu zen*).

«Estudios específicos de afecciones a la Red Natura 2000/Natura 2000 Sareari eragindako ondorioen azterlan espezifikoak» (Ingurumen Ministerioa, 2005) prestatzeko gomendio metodologikoen arabera, eta «Evaluación de los planes y proyectos que tienen afecciones significativas sobre lugares Natura 2000/Natura 2000 Sareko eremuetan ondorio esanguratsuak eragiten dituzten plan eta proiektuak ebaluatzea» (Europako Batzordea, 2001) izeneko Europako gida metodologikoaren arabera, efektuak balioesteko garaian lau fase bete behar dira:

- **1. fasea: Bahetzea.** Garrantzia zehaztea. Eraginpean hartutako administrazio, pertsona eta erakundeei (egungo «Natura 2000 Behatokia» barnean hartuta) kontsulta egiteko fasean sartzen da, bai IIEa egiteko prozeduran, baita kasuan kasuko IIEari atxikitzea erabakitzeko prozeduran ere.
- **2. fasea: Ebaluazio egokitua.** IIEa bera izango da, eta IIAn tratamendu espezifikoa izango du.

- **3. fasea:** Proiektuaren **bestelako aukeren ebaluazioa**, Natura 2000n eragin nabarmenak eragingo dituela erabakiz gero.
- **4. fasea:** **Proiektua baimentzea**, beste konponbiderik ez dagoenean eta inpaktu negatiboek eusten zaienean.

Lehenengo fasea: bahetze-fase edo **garrantzia zehazteko** fase honetan modu objektiboan frogatu behar da proiektua eta/edo plana gauzatzeak ez duela efektu negatibo nabarmenik eragingo Natura 2000 Sarean, kautela-printzipioa aplikatuta; honako hauek egin behar dira:

- Proiektu edo plana tokiaren kudeaketarekin zuzenean loturik ote dagoen edo kudeaketarako ezinbestekoa ote den erabakitzea.
- Proiektua edo plana deskribatzea, baita beste proiektu edo plan batzuk ere, baldin eta aurrenekoarekin batera, Natura 2000ko tokian efektu esanguratsuak izan baditzakete.
- Beste plan eta proiektuekin izan ditzakeen efektu metagarri eta/edo sinergikoak balioestea.
- Natura 2000ko tokiaren kontserbazio-helburuetan izan ditzakeen efektuak identifikatzea.
- Natura 2000ko tokiaren gaineko efektuen garrantzia balioestea.


2. fase edo ebaluazio egokitan, tokiaren gaineko efektuak identifikatu eta auresan behar dira, zehatz-mehatz eta modu objektiboan, metodologia egituratu eta sistematikoen bidez, eta hori egindakoan, tokiaren osotasunaren gaineko eragin-maila balioetsi behar da, espazio horretarako ezarritako kontserbazio-helburuen arabera. Kautela-printzipioa aplikatu behar da, eta ebaluazioak honako helburu hau izan behar du: modu objektiboan eta frogen bidez, tokiaren osotasunarengan efektu negatiborik ez dela izango frogatzea. Horretarako, prebentzioko neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira. Hala eta guztiz ere efektu negatiboek irauten badute, **3. fasera** edo **beste konponbideen ebaluaziora** igaro behar da; beste konponbide horiek berriz ere 1. fasera itzuli beharko dute, edo 2.era, aurreko proiektuaren aldaketak baldin badira. Beste konponbiderik izan ezean, **4. fasera** igaro behar da.

4. fasea beteko da **beste aukerarik ez dagoenean eta efektu negatiboek eutsi egiten zaienean**; kasu horretan, izapidea honako hauen arabera izango da: lehen-tasuneko intereseko espezie eta habitatei eragiten ote zaien; giza osasunarekin edo segurtasun publikoarekin loturiko alegaziorik egin ote daitekeen; eta lehen mailako interes publikoko premiazko arrazoiak badaudela iritziz gero. Nolanahi ere, Europako Batzordeak esku hartu behar du azken erabakian, eta konpentsazio-neurriak hartu behar dira (Ikus 6. fluxugrama).


6. Fluxugrama

NATURA 2000ko TOKIETAN ERAGIN ESANGURATSUA IZAN DEZAKETEN PLAN ETA PROIEKTUAK BALIOESTEKO METODOLOGIA


I. FASEA: Garrantzia ebaluatzea




II. FASEA: Ebaluazio egokitua



III. FASEA: Bestelako aukerak ebaluatzea



IV. FASEA: Ebaluatzea beste aukerarik ez dagoenean, inpaktu negatiboari eusten zaienean



Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko legearen (1/2008 *Legegintzako Errege Dekretua*) testu bateginaren 16. artikuluan finkatutako prozedurari jarraiki, ebaluazio egokituaren fasera igarotzen den proiektu bat IIEaren prozedurari atxikia egotea da ohikoena, eta beraz, ebaluazio egokitua eta 3. eta 4. faseak izapide horren baitan garatuko lirateke.

4.2.4. **Jarduera-lizentziaren, obra-lizentziaren eta irekitzeko lizentziaren izapideak**

Erauzketa-jarduerak *Euskadiko ingurumena babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorren* III. kapituluaren aurreikusitako administrazio-lizentziaren araubideari atxikita daude.

Sailkatutako jarduera bat ezartzeko (baita hedatzeko nahiz aldatzeko ere) ahalmena ematen duen udal-lizentziari *jarduera-lizentzia* esaten zaio.

Jarduera-lizentzia eskatu baino lehen, sustatzaileak udalean kontsulta egin ahal izango du, lizentziaren baldintza juridiko eta teknikoei buruz, aurreikus daitezkeen neurri zuzentzaileei buruz eta jardueraren bideragarritasun formalari buruz informazioa eskuratzeko.

Lizentzia-eskaerarekin batera, teknikari eskudunak sinatuta, proiektu teknikoa eta deskripzio-memoria aurkeztu beharko dira. Bertan jardueraren ezaugarriak, kokatuko den ingurunearen deskribapena, ingurumen-ondorioak eta proposatzen diren neurri zuzentzaileak zehaztu behar dira.

Hirigintzako planetan edo udal-ordenantzetan oinarritutako udal-eskumeneko arrazoiengatik jarduera-lizentzia ukatzen ez bada, 15 eguneko epean, alkateak espedientea jendaurrean jarriko du, eta pertsonalki jakinaraziko die jarduera ezarriko den lekuko inguruko auzotarrei.


Jendaurrean jartzeko aldia 15 egunekoa izango da, beren burua kaltetutzat dutenek alegazioak egin ahal izan ditzaten. Proiektua IIEari atxikia dagoenean, jendaurrean jartzeko izapidea IIEaren prozeduran ere finkatuko da (gutxienez 30 egun). Jendaurrean jartzeko aldia amaitutakoan, eta 15 eguneko epean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak osasun-txostena egin beharko du, nahitaezkoa eta loteslea, baita beharrezko iritzitako txosten teknikoak ere.

10 eguneko epean, udalak txosten arrazoitua egingo du jardueraren ezarpenari dagokionez.

Aurkeztutako dokumentazioa eta aipatutako udal-jardunak ikusita, eta jarduera-lizentzia eman aurretik, gehienez 15 eguneko epean, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak txostena egingo du eta egoki iritzitako neurri zuzentzaileak ezarriko

7. Fluxugrama

JARDUERA SAILKATUEN LIZENTZIAK LORTZEKO PROZEDURA (UDAL LIZENTZIAK)



* II Ea egin behar badu, jendurrean jartzeko izapidea II Aren berdina da (Gutxienez 30 egun)

** Osasun-bostena Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egiten du

*** Organo eskudunak (Meatzak) baimendutako eta Udal Lizentziareik gabeko ustategien kasuan, organo eskuduna Udala izango da II Earen prozedurari dagokionez

dizkio jardueraren instalazio- edo hedapen-proiektuari. Txosten hori loteslea izango da udal-agintaritzarentzat. IIEa egin behar izanez gero, txosten hori IIDak osatuko du.

Jarduera-lizentziaren eskaera udalean aurkeztuz geroztik sei hilabete igaro ostean, jarduera-lizentzia emantzat hartuko da, ingurumen-organo eskudunak kontrako txostena jakinarazten ez badu behintzat.

Obra-lizentziari dagokionez, jarduera-lizentzia eman arte ezin izango da eman. Jarduera-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla jakinarazi beharko du eskatzaileak, eta 15 eguneko epean, udaleko teknikariek ikuskapen-bisita egin eta aldeko egiaztapen-akta eman beharko dute; nolana ere, atzemandako akatsen eta horiek konpontzeko epearen berri eman behar zaio proiektuaren titularrari.

Aldeko egiaztapen-akta eman ondoren eta jarduerari ekin baino lehen, udalak irekitzeko lizentzia emango du.

4.3. USTIATEGIA BERRIZ IREKITZEA, MEATZE ESKUBIDEREN BAT BIZIRIK ETA INAKTIBO IZANIK

Meatze-eskubideren bat bizirik eta inaktibo dagoen ustiategia berriz irekitzeko kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Energia eta Meategien Zuzendaritzako Meatze Zerbitzuak baimena eman beharko du berriro. Horretarako, 4.2 idatz-zatian xedatutakoa bete beharko da.

4.4. BAIMENDUTAKO ETA AKTIBO DAUDEN USTIATEGI PROIEKTUEN ALDAKETAK

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 50. artikulua araber, eta betiere lege horren I. eranskinean barne hartuta izanik, jadanik baimenduta, egikarituta edo egikaritze-prozesuan dagoen proiektu baten edozein aldaketa edo hedapeni Legean bilduta dauden ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako prozeduretako bat aplikatuko zaio, ingurumenean eragin negatibo esanguratsurik izan ahal izanez gero.

Artikulu horretan xedatzen denez, legez ezarriko da honako prozedura hau: proiektua baimentzeko administrazio-ebazpena emateko eskuduna den organoak, hau da, organo eskudunak erabaki dezan proposatutako aldaketa edo hedapenengatik egon daitezkeen ingurumenaren gaineko efektu negatiboak garrantzitsuak ote diren.

Gida hau idazteko garaian, *3/98 Legea aldatzeko proiektua* jendaurrean jartzeko fasean dago, baina hala ere, 50. artikulua aldatzen du eta ingurumen-organoari ematen dio gai horri buruz erabakitzeko eskumena.

8. Fluxugrama

PROIEKTUEN ALDAKETAK EDO HEDAPENAK BAIMENTZEKO PROZEDURA, 1/2008 LEDAREN ARABERA

Organo Eskuduna:

Industria, Merkataritza eta Turismo Saila (E)

Proiektuaren titularra:

Proiektuaren aldaketa edo hedapena
(1/2008 LEDaren I. eranskina: 9e multzoa)

Ingurumenaren gain efektu negatiboak dituen
proiektuaren aldaketa edo hedapena
(1/2008 LEDaren II. eranskina: 9k multzoa)

Proiektuaren Hasierako Dokumentua
PHD

Proiektuaren Ingurumen Dokumentua
PID

II Earen PROZEDURA 3. FLUXUGRAMA

II Earen PROZEDURA 4. FLUXUGRAMA

Ingurumen Organoa:

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila (E)

Horretaz gain, 1/2008 *Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren* I. eranskineko 9.e idatz-zatian honako hauek hartzen dira barnean: «eranskin honetan barne hartutako proiekturen baten edozein aldaketa edo hedapen, baldin eta aldaketa edo hedapen horrek, berez, eranskin honetan ezarritako atalaseak betetzen baditu». Hor-taz, atalase horiek gaindituz gero, proiektuaren aldaketa edo hedapenak II Earen prozedura bete beharko du; Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebalua-tzeko legearen 5. artikuluan zehazten da prozedura hori (ikus 4.2.1 idatz-zatia).

Lege horren II. eranskineko 9.k idatz-zatian, aldiz, honako hauek: «I. eta II. eran-skinetan bilduta egonik, jadanik baimendutako, egikaritutako edo egikartze-prozesuan dauden proiektuen edozein aldaketa edo hedapen (I. eranskinaren 9.e ida-tz-zatian barne hartu gabeko aldaketa edo hedapena), ingurumenaren gainean efektu kaltegarriak izan baditzake; alegia, honako gertakari hauetakoren bat gertatzen de-nean:

- Atmosferarako emisioak nabarmen handitzea.
- Ibilgu publikora edo itsasertzera egindako isuriak nabarmen handitzea.
- Hondakinen sorrera nabarmen handitzea.
- Baliabide naturalen erabilera nabarmen handitzea.

1979ko apirilaren 2ko kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua (Habitategi buruzkoa) eta 1992ko maiatzaren 21eko kontseiluaren 79/409/EEE Zuzentaraua (Hegaztiegia buruzkoa) aplikatuz, babes bereziko izendatutako eremuetan edo Ramsar Hitzarmenaren zerrendan sartutako hezeguneetan eragitea».

Beraz, aipatutako gertakariaren bat betetzen bada, proiektuaren hedapen edo al-daketak honako prozedura honi jarraituko dio: proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko legearen 16. artikuluan adierazitako prozedurari (ikus 4.2.2 idatz-zatia); eta ingurumen-organoak erabakiko du proiektuaren aldaketak edo hedapenak II Ea egin behar ote duen.

PROIEKTU ETA AZTERLANEN EDUKIA

5.1. INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIO BATERATUARI BURUZKO AZTERLANA EDO INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

«Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenean, organo sustatzaileak identifikatu, deskribatu eta ebaluatu behar ditu plana edo programa aplikatzearen ondorioz ingurumenean sor daitezkeen efektu esanguratsuak, baita zentzuzko beste aukera batzuk ere (esaterako, zero aukera), planaren edo programaren aplikazioko lurralde-eremua eta helburuak kontuan hartuta, eta betiere teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak direla. Horri gagozkiola, zero aukera hauxe izango da: plan edo programa hori ez egitea» (*Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 8.1 artikulua*).

«Plan edo programaren dokumentazioaren parte izaki, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenak irisgarria eta ulergarria izan behar du publikoarentzat, eta I. eranskinean aipatzen den informazioari buruzko laburpen ez-teknikoa izan beharko du». (*Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 8.4 artikulua*).

9/2006 Legearen 9. artikulua arabera, ingurumen-organismoak erabakiko du ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren zabaltasuna, xehetasun-maila eta espezifikazio-maila, eta hori guztia sustatzaileari jakinarazi behar zaio Erreferentzia Dokumentu baten bidez; erreferentzia-dokumentu horretan, ingurumen-irizpide estrategikoak, ingurumen-helburuen adierazleak eta iraunkortasun-printzipio aplikagarriak ere jaso behar dira.

Iraunkortasunari buruzko txostena idazteko erreferentzia-dokumentuaren eskara egiteko, ingurumen-organismoari komunikazio-dokumentu bat igorri behar zaio, ingurumen-ebaluazioari ekin diezaion (9/2006 Legearen 18. artikulua).

Nolanahi ere, *Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen I. eranskina nahiz Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren* eranskina betez, hirigintza-aldaketak Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio

Bateratuaren (IIEB) prozedurari atxiki behar zaizkiola iritziz gero, sustatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuaren gutxieneko edukia honako hau da.

5.1.1. Planaren edo programaren helburu estrategikoak deskribatzea, baita helburu horiek lortzeko bestelako aukerak ere

Plangintza aldatzeko helburu estrategikoen deskribapena egin behar da, baita helburu horiek lortzeko aztertutako bestelako aukerena ere. Honako atal hauek bildu behar ditu: helburuen azalpena, jardun-eremuaren deskribapena, proposamenen laburpena, denbora-epea eta inpaktuak eragin ditzaketan jardunen identifikazioa.

Era berean, goragoko hierarkia-mailatako ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetatik nahiz beste planetatik datozen jarraibideen eta irizpideen eragina ere aztertu behar da. Honako hauek ere aipatu behar dira: plangintza aldatzeko faseak, jendearen parte-hartze maila, eta, dagokionean, atzemandako informazio-hutsunak.

Plangintza aldatu nahi duten agente eta erakundeekin, eta aldaketa idatziko duen taldearekin aldizka bilerak egingo dira, eta bilera horien bidez bilduko da informazioa.

5.1.2. Beste plan edo programa batzuekiko elkarreragina aztertzea

Ingurumenarekin loturiko sinergia eta efektu metagarri negatiboak sor ditzaketan beste plan edo programa batzuekiko erlazioa –hierarkikoa eta zeharkakoa– identifikatzea lortu nahi da.

Horretarako, hierarkian goragoko mailako plan edo programak (eremua barne hartzen duten Plan partzialak, Lurraldearen Arloko Planak, eraginpean hartutako udalerrietako Arau Subsidiarioak, eta abar) identifikatu behar dira, baita ezarritako ingurumen-arloko estrategia eta helburuak ere, eta zenbateraino txertatuta dauden aztertutako proposamenetan (Ingurumen Esparru Programan, eta abarretan). Hala ere, azterlanaren eremuan eragiten duten beste planik ba ote dagoen identifikatu behar da: EAEko Korridore Ekologikoen Sarea, Tokiko Agenda 21, ingurune naturala babesteko eta zaintzeko planak, faunaren eta floraren espezieak kudeatzeko planak, eta abar.

5.1.3. Nazioan, Erkidegoan edo nazioartean ezarritako ingurumen-babeseko helburuak

Nazioarteko, Erkidegoko edo nazioarteko eremuan ezarritako ingurumen-babeserako helburuak kontuan izan behar dira, betiere plan edo programarekin loturarik badute; aldi berean, iraunkortasun-txostena egiteko garaian helburu horiek eta ingurumenari dagokion edozein alderdi aintzat hartzeko modua ere kontuan izan behar da.

5.1.4. **Plan edo programaren eraginpean hartutako eremuaren azterketa, diagnostikoa eta balioespena, ingurumenari dagokionez. Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak, plana edo programa aplikatzen ez bada izan dezakeen bilakaera dela-eta**

Atal horretan, ekologiarekin eta ingurumenarekin loturiko gako-elkarreraginak deskribatu behar dira; horretarako, ingurumen-azterlana egin behar da, honako puntu hauek aztertuta: **alderdi geofisikoak** (geologia, dinamika geomorfologikoa, hidrogeologia eta iturburuak, edafologia, lurzoru potentzialki kutsatuak eta hidrologia eta hidrologia-sarearen kalitatea), **naturalistikoak** (landaredia, interes komunitarioko habitatak, fauna eta espazio babestuak), **estetikarekin eta kulturarekin loturikoak** (historiako, arkitekturako eta arkeologiako ondarea, eta paisaia), **giza habitata, airearen kalitatea eta goera fonikoa**.

Eragin nabarmena izan dezaketena zona guztietako ingurumen-ezaugarriak bildu behar dira, baita plan edo programarentzat garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo ere, hain zuzen ere, honako arazo hauek barnean hartuta: ingurumen-garrantzi bereziko edozein zonarekin loturikoak, betiere espezie natural eta babestuei buruzko legedi aplikagarriaren arabera izendatu badira.

Ingurumen Diagnostikoa amaitzeko, **Sintesi Ekologikoa** egin behar da epilogo moduan eta egindako azterlanaren gako-alderdiak argi eta garbi adierazi behar ditu.

5.1.5. **Teknikoki zentzuzkoak diren beste aukeren ingurumen-azterketa. Hartutako soluzioaren justifikazioa**

Bildutako informazioan oinarrituta, teknikoki zentzuzkoak diren aukeren ingurumen-efektuen azterketa diferentziala egin behar da, baita hartutako soluzioaren justifikazioa ere; horrekin guztiarekin batera, ebaluazioa nola egin zen ere deskribatu behar da, eskatutako informazioa biltzeko garaian atzemandako eragozpenak (akats teknikoak edo jakintza eta esperientzia falta) barnean hartuta.

5.1.6. **Plan edo programako jardunen eraginak identifikatu eta balioestea**

Hirigintzako plangintzaren aldatetaren helburuak izan ditzakeen ingurumen-efektuak aztertuko dira, eta aldatetan aurreikusitako jardunen efektuak identifikatu eta balioetsi behar dira, ingurumen-inpakturik eragin badezaket.

Horretarako, proposatutako jardun guztien arteko elkarreraginak eta eraginpean hartutako medioaren elementu espezifikoak aztertu behar dira, honako hauek kontuan izanik: baliabide naturalistikoak, ingurugiro-zona sentikorrek, estetikarekin eta kulturarekin nahiz paisaiarekin loturiko baliabideak, baliabide berrizta-

garriak eta berriztaezinak, hondakinen kudeaketa, hiri-ingurumena, ekologiaren eta nekazaritzaren produktibitatea, eta kultura-ondarea. Halaber, izan daitezkeen eratorritako arriskuak kontuan izan behar dira, baita, dagokionean, mugaz haraindiko efektuak ere. Azkenik, proposamen edo jardun jakin batzuen ingurumen- inpaktua zehazteko garaian izandako zailtasunak eta zalantzak deskribatu behar dira.

9/2006 Legearen arabera, ingurumenaren gainean izan daitezkeen efektu esanguratsuak (bigarren mailakoak, metagarriak, sinergikoak, epe motz, ertain eta luzerakoak, positiboak eta negatiboak) aipatu behar dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, faktore klimatikoak, ondasun materialak, kultura-ondarea, baita historia-ondarea, paisaia eta faktore horien arteko elkarreragina ere.

Inpaktuak bereizteko, *1131/1998 Errege Dekretuari* jarraitu behar zaio, *183/2003 Dekretuaren* eranskinaren 5.2.4 idatz-zatian xedatzen denez.

5.1.7. Babes-neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio-neurrien proposamena

Plangintzaren goragoko eskaletan egindako ingurumen-inpaktuen ebaluaziotik datozen babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio-neurriak identifikatu behar dira.

Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen efektu esanguratsu negatibo guztien prebentziorako, murrizketarako eta, ahal den heinean, horiek indargabetzeko aurreikusitako neurriak bildu behar dira. Eragin negatiboa duten jardun-proposamenen ingurumen-kostua saihesteko edo murrizteko neurriak proposatuko dira, baita ingurumen-efektu positiboak dituztenen onurak areagotzeko neurriak ere, eta proposatutako neurrien eraginkortasun-mailari eta betetze-mailari jarraipena egiteko adierazleak ere barnean hartuko dira.

Era berean, beheragoko mailako plangintza diseinatzeko irizpide eta jarraibide orokorrak bildu behar dira. Horrek esan nahi du ingurumen-inpaktuaren etorkizuneko ebaluazioetan kontuan izan beharreko irizpideak ere aipatu behar direla.

5.1.8. Plan edo programaren efektuak gainbegiratzeko programa

Gainbegiratzeko Programa bat egin behar da, inpaktua arindu eta zuzentzeko neurriak aplikatzen direla bermatzeko. Orobat, aurreikusitako eta onartutako ingurumen-inpaktuez gain, plan edo programak bestelako inpaktu esanguratsurik ez duela eragiten egiaztatu behar da.

5.1.9. Sintesi-dokumentua

Sintesi-dokumentua laburpen bat da; hain zuzen ere, Ingurumen-inpaktuaren Ebaluazio Bateratuari buruzko Azterlanean bildutako informazioaren laburpen ez-teknikoa, biztanleriarentzat, oro har, ulergarria izanik. Dokumentu horretan honako datu hauek agertuko dira: helburu estrategikoen deskripzioa; beste plan edo programekin izan ditzakeen elkarrekinak; eremu baten plangintza aldatzen denez, eremu horren azterketa, diagnostiko eta balioespena, ingurumenari dagokionez; ingurumen-inpaktuak; babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio-neurriak; eta gainbegiratzeko programa.

5.1.10. Beste aukeren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

Bideragarritasun-txosten horretan, plan edo programaren efektu negatiboen prebentziorako, murrizketarako edo efektu horiek arintzeko neurriak ere kontuan izan behar dira.

5.1.11. Dokumentazio grafikoa

Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuari buruzko Azterlanarekin batera, dokumentazio grafikoa aurkeztu behar da; hain zuzen ere, jasotako informazioa ulertzea eta espazioan kokatzea ahalbidetuko duen xehetasun-maila nahikoarekin.

Idatz-zati bakoitzean, *183/2003 Dekretuaren* eranskinean bildutako edukiak sakondu eta zehaztuko dira.

5.2. USTIAPEN PROIEKTUA

Ustiapen proiektuak ITC 07.1.02 eta ITC 07.1.03 jarraibideen arabera izan behar du; *Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauei buruzko Erregelamendu Orokorren VII. kapituluko Jarraibide Tekniko Osagarriak onartzen dituen 1990eko apirilaren 16ko Aginduaren* bidez onartu ziren bi jarraibide horiek.

I. eranskinean, Meatze Administrazioak aztertzen dituen alderdiak biltzen dira, betiere ustiapen-proiektuarekin loturik; proiektu horretan, memoria, planoak eta eranskinak (azterlan geologikoa, azterlan geoteknikoa, azterlan hidrologikoa eta instalazioak) agertuko dira, eta teknikari eskudunak sinatuta egon behar du, baita behar bezala ikus-onetsia ere.

5.2.1. Memoria

Proiektuaren memorian, aurreikusitako obra guztiak justifikatu behar dira, eta hartutako soluzio garrantzitsuenak aztertu.

- **Ustiapen-metodoa** definitu behar da; hau da, fase bakoitza zehatz-mehatz deskribatu behar da, honako datu hauek adierazita: ura husteko azpiegiturak eta horien kalkulua, pista nagusiak eta bigarren mailakoak –profil eta guzti–, eta lanen hasiera eta amaiera.
- **Ustiapenaren bizitza eta erritmoa** zehaztu behar da eta fase bakoitzaren deskripzioa egin, honako hauek adierazita: kubikazioak, denbora-erritmoak eta erabiliko diren baliabide mekanikoak.
- Ustiapenaren periodo bakoitzean **erauzi beharreko mineralaren eta kendu beharreko esterilaren arteko erlazioa** definitu behar da.
- Aldi baterako nahiz behin betiko **zabortegi, hondakindegia eta metaketak** definitu behar dira, honako hauek adierazita: zehaztapen geometrikoak, egonkortasun-kalkuluak, eta kokapena, gutxienez 1:1000 eskalako planoetan. Hondakindegien kokalekuan ura dagoela egiaztatzen bada, azterlan hidrogeologikoa egin behar da, eta ur-ibilguetatik gertu badaude, edo dimentsio handikoak izateagatik ur asko har dezaketen zonak sor badaitezke, azterlan hidrologikoa egokia egin behar da.
- **Harrotze** mekanikoaren edo leherketaren mota definitu behar da (ikus 5.3 idatz-zatia), baita aurreikusitako **karga**-sistema eta garraioa ere, eta horretarako behar diren ekipoa eta makinak.
- **Ustiategiaren ezaugarriak** definituko dira: diseinu-ezpondak eta operazio-baldintzak, mantentze-lanak, saneamendua, ebaki-lerroak eta bertan behera uztea. Bankuen kopurua, dimentsioak eta orientazioa, bermak, laneko plataformak, sarbideak, arrapalak, bideak; horietako bakoitzaren eta horien kokapenaren zehaztapen geometrikoa ere egin behar da, gutxienez 1:1.000 eskalako planoetan.
- Proposatutako **saneamendua** zehaztu behar da.
- Ustiategiaren **hustubide**- edo drainatze-sistema zehaztu behar da.
- Honako hauek definitu eta kokatu behar dira: **mineralak prozesatzeko plantak, tailer** laguntzaileak, makinaren mantentze-lanetarako eta bestelako zerbitzuetarako tailerrak.
- **Hautsa kentzeko** aurreikusitako baliabide guztiak aipatu behar dira.
- Azterlan ekonomikoa.

5.2.2. Planoak

Ustiatu beharreko eremuaren eta eraginpean hartutako ingurunearen ezaugarriak nahiz obren xehetasunak definitzea ahalbidetzeko moduko eskalak erabili behar dira:

- Kokapen-planoa. Eskala: 1:50.000 edo 1:25.000, partzela-planoa eta katastrala barnean hartuta.
- Perimetroaren eta instalazioen planoak. Pistak, sarbideak eta hondakindegia: Eskala: 1:5.000 (Ustiategiaren inguruan 500 m-ko perimetroa barnean hartuta).
- Ustiapen-planoa. Eskala: 1:1.000. Memorian aipatutako ustiapen-fase guztiak hartuko ditu barnean, baita Egungo Egoera ere.
- Drainatze-planoa.
- Ustiapen-profilak. Fase bakoitzeko hasierako eta amaierako profilak, lursailaren jatorrizko planoan gainjarrita.
- Sarbideen profilak.

Horretaz gain, plano takimetro batean (eskala: 1:500), meategia gutxienez 5 urtez ustiatzeko egin beharreko indusketak adierazi behar dira eta, gutxienez, zeharkako sekzio bat eta luzetarako beste bat ezarriko dira, baita pisten eta zabortegeien aurreikuspena ere.

5.2.3. Azterlan geologikoa

Ingurune geologikoari buruzko azterlana egin behar da, gainazal-kartografiekin eta baliabide geofisiko edo mekanikoen bidez, meategiaren mugak eta barne-bariazioak definitzeko.

Honako datu hauek aipatu behar dira: egiturazko geologia, estratigrafia, meategiaren mugak, egindako ikerketa-lanak eta ikerketaren emaitzak. Eremuko geologiaren kartografia aurkeztu behar da, egindako laginketak biltzen dituen plano bat, eta egindako zundaketa bakoitzeko fitxak.

5.2.4. Azterlan geoteknikoa

Egonkortasun-azterlan geoteknikoen bidez, hartutako ezpondak justifikatu behar dira, bai bankuarenak, bai azken ezponda, eta eraikuntza-soluzioak ere justifikatu behar dira; hala nola, bermak eta plataformak.

Azterlan geoteknikoaren emaitzak oinarri hartuta, ustiategiaren baldintzatzaile geometrikoak (ezponda orokorraren eta bankuen altuera, eta ezponda-angeluak) ezarriko dira, baita alde aurretik ezarritako instalazio eta zerbitzuetan izan dezakeen eragina ere. Hainbat faktore aztertuko dira: frakturazioa, estratifikazioa eta desjarraitutasun-planoak, irrastatze planar potentzialak, falkagatiko lur-jausi potentzialak, segurtasun-faktoreak.

Esteril-gordailurik baldin badago, azterlan geoteknikoan barne hartu behar dira, dela zimenduaren erresistentziaren arabera, dela diseinu eta kokapenaren erresistentziaren arabera.

Induskatu beharreko mendigunean edo sortu beharreko hondakindegian ura da-goela egiaztatuz gero, azterlan hidrogeologiko bat egin beharko da eta maila freatikoen ondoriozko presioak egonkortasunean duen eragina aztertu.

5.2.5. Azterlan hidrologikoa eta hidrogeologikoa

Ur-ibilguetatik gertu daudelako edo dimentsio handikoak izateagatik ur asko har dezaketen zonak sor baditzakete, meatze-ustiategi edo hondakindegia horien kasuan azterlan hidrologiko egokia egin beharko da.

Gutxienez, eraginpean hartutako unitate hidrogeologikoak deskribatu behar dira, materialen iragazkortasuna eta akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna aipatuta; inguruko iturburuak identifikatu eta deskribatu behar dira, maila freatikoaren kota zehaztu behar da, eta lurpeko drainatzearen ezaugarriak eta funtzionamendu hidraulikoa deskribatu behar dira.

5.2.6. Ustiategiaren instalazioak

Ustiategiari erantsitako instalazio, eraikin eta mineralak prozesatzeko planten proiektuak aurkeztu behar dira. Honako hauen xehetasunak: plazen, instalazio elektrikoaren eta urak biltzeko eta drainatzeko sistemen xehetasunak.

5.3. LEHERKETA PROIEKTUA

Leherketa berezien ITC 010.3.01 jarraibidearen arabera, leherketa-proiektua idatzi behar da ustiapenean egin beharreko leherketa tipoaren baimena lortzeko. Ustiapen-diseinuaren parametroetan oinarrituta diseinatuko da.

Leherketa tipo bakoitzean (destroza edo ebaki-lerroa) datu hauek ezarri behar dira: harrotutako bolumena, kontsumo espezifikoa, bankuaren altuera, zulatze-diametroa, barrena-zulo kopurua/ilara, ilara kopurua, barrena-zulo bakoitzeko gehieneko karga, leherketa-karga, harri mota, harri efektiboa, banantze efektiboa, erretakutua, bertikalarekiko inklinazioa, barrena-zuloaren luzera, barrena-zulo bakoitzeko hondoko eta zutabeko karga, eta lehergaiaren pisua guztira.

Leherketek eragindako bibrazioen kontrolari dagokionez, UNE 22-381-93 Arauan (Leherketek eragindako bibrazioen kontrolari buruzkoa) bildutako prebentzio-irizpidearen arabera ezarriko da.

5.4. LOHI GORDAILUEN PROIEKTUA

2000ko apirilaren 26ko AGINDUAN xedatutakoa bete beharko da. Agindu horren bidez, *Meatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren XII. ka-*

pituluko 08.02.01 Jarraibide Tekniko Osagarria –«Erauaketa-industrien tratamendu-prozesuetako lohi-gordailuei» buruzkoa– onartzen da; lohi-gordailu berri bat eraikitzeo proiektuak bete beharreko baldintzak ezartzea du xede, meatzeetako agintaritzak onar dezan, baita gordailuak bete beharreko eskakizunak zehaztea ere, honako fase hauetan: ustiapenean, itxieran, eta itxi osteko mantentze-lan nahiz kontrolan.

Lohi-gordailu bat eraikitzeo proiektuan honako datu hauek agertuko dira: gordailuaren definizioa eta neurriak; kokapenaren justifikazioa; gorde beharreko lohien, lohiekin batera agian atera litezkeen harri-esteril lodien, eta presako dikea nahiz obra osagarriak eraikitzeo materialen ezaugarriak; beharrezko azterlan tekniko lagungarriak; gauzatzeko eta kontrolatzeko neurriak; ingurune naturalaren gaineko eraginaren azterlanak eta neurri zuzentzaileak; gordailuaren bizitza aktiboa amaitutakoan aplikatu beharreko neurriak, gordailua itxteari dagokionez eta itxi osteko mantentze-lan nahiz kontrolari dagokionez.

Eraikuntza-proiektuaren zati garrantzitsu bat segurtasun-neurrien azterlan zehaztua izango da, bai gordailuaren egonkortasuna bermatzeko, bai gordailuaren eraginpean gera daitezkeen pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, bai hasierako eraikuntza-faseetan, ustiapenean, gordailuaren itxieran eta itxi osteko mantentze-lanetan zuzenean esku hartzen duten langileen segurtasuna bermatzeko, betiere meatzaritza-jardueretako segurtasunari eta osasunari buruzko legedian ezarritakoari jarraiki.

Lehendik baden lohi-gordailuren bat ez badator bat alde z aurretik onartutako proiektuarekin, gordailu hori aldatu edo handitzeko proiektu bat aurkeztu behar da nahitaez meatze-agintaritzan; alde z aurretik onartutako proiektua osatu edo aldatu behar da nahitaezko proiektu horren bidez eta agintaritzak onartu egin behar du.

Proiektu guztiak teknikari tituludun eskudunak zuzendu eta sinatu behar ditu, eta meatzeetako agintaritzan aurkeztu behar dira, baimentze aldera.

Eraikuntza-proiektuan beharrezko iritzitako dokumentuak erantsi behar dira, instalazioaren garrantziaren eta horrek dakartzan arrisku potentzialen araberrako zabaltasun eta sakontasun egokia dutela. Nolanahi ere, lan-arloko segurtasun- eta osasun-neurriez gain, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira proiektuarekin batera:

5.4.1. Memoria

- Lohi-gordailuaren kokapena eta, dagokionean, presa mota, lursailean duen kokalekuaren arabera.
- Eraiki beharreko lohi-presa mota, handitzeko metodoaren arabera.
- Gordailuaren klasea eta kategoria, dimentsioen eta arrisku potentzialen arabera.

- Erabili beharreko lohien garraio-sistemak.
- Proiektuaren bizitza osoan dekantatutako lohi lehorren bolumenaren eta tonajearen aurreikusitako bilakaera.
- Proiektuaren bizitza osoan gordailuan izango den likidoen bolumenaren aurreikusitako bilakaera, birziklatzearen, lurrunketaren eta abarren ehunekoak kalkulatuta, gutxi gorabehera.
- Gordailuaren gainazal-kurbak, lohien eta likidoen bolumenak, elebazio-erritmoa, eta abar.
- Dekantatutako solidoen ezaugarri fisiko-kimikoak.
- Efluenteen ezaugarriak.
- Presako dikearen dimentsionamendua eta gordailuaren egonkortasun-kalkulua.
- Lur gaineko eta lurpeko uren kontrola eta kudeaketa, gordailua ustiatzen den bitartean.
- Eraikuntza-materialak eta bete beharreko espezifikazio teknikoak.
- Presako dikearen egonkortasuna bermatzeko drainatzeko eta urak husteko gailuak, eta euri askoko aldietan uholdeak kontrolatzea.
- Kutsadura kontrolatzeko neurriak.
- Gordailua eraikitzeke eta ustiatzeko garaian, lan-arloko segurtasun- eta osasun-neurriak.
- Egiturazko segurtasun-arauak eta larrialdi-plana.

Gordailuaren eraikuntza-proiektuak gordailuaren bizi-zikloko fase guztiak hartu behar ditu barnean; honako hauek dira faseak:

- Kokapena aukeratzeko fasea, plangintza eta kontzeptualizazioa.
- Kokapena ikertzeko eta lohiak bereizteko fasea.
- Diseinu-fasea.
- Eraikitzeke eta prestaketa-lanetarako fasea.
- Abian jartzeko fasea.
- Ustiatzeko edo operatzeko fasea.
- Berrerabiltzeko edo ezabatzeko fasea.
- Bertan behera uzteko eta ixteko fasea.
- Irtxi osteko mantentze-lanetako eta kontroleko fasea.

5.4.2. **Aurrekontua**

5.4.3. **Planoak**

- Kokapen-plano orokorra. Eskala: 1:25.000 edo 1:10.000.
- Arro edo azpiarro hidrografiko osoaren planoak.
- Eraginpean hartutako perimetroaren eta instalazioen planoak. Eskala 1:5.000 (gordailuari erantsitako instalazioen eta gordailuaren perimetroaren inguruan gutxienez 500 metrora egongo da azaleraren muga).
- Gordailuaren eta eragin-eremuaren planoak. Eskala: 1:5.000tik 1:200era.
- Eskala gutxienez 1:200 izango da, eta sestra-kurben arteko distantziakidetasuna gehienez metro 1.
- Gordailuaren eremuaren eta eragin-eremuaren kartografia-plano geologiko-geoteknikoa. Eskala: 1:2.000tik 1:200era.
- Presako dikearen eta horrekin loturiko obren goitiko bista orokorra.
- Gordailua eta horri erantsitako instalazioak argi eta garbi definitzeko moduko goitiko bista, aurretiko bistak eta sekzioak.
- Dauden ibilguak desbideratzeko edo lur gaineko urari bidea eteteko obren plano zehaztuak.
- Gordailuko urak husteko gailuen plano zehaztuak, euri gehieneko garaietako larrialdiko aldietan ustiapen-erregimen arruntan.
- Dagokionean, dikea eta gordailuaren ontzia iragazgaizteko gailuen plano zehaztuak.
- Gordailua kontrolatu eta zaintzeko aurreikusitako gailuen kokapen-planoak.
- Gordailua ikuskatu eta zaintzeko ezinbestekoak diren tokietara iristeko planoak.
- Gordailuaren hazkunde-faseen planoak.
- Goitiko bistak eta profilak.

5.4.4. **Espezifikazio teknikoaren orria**

5.4.5. **Eranskinak**

- Gorde beharreko lohiei buruzko azterlana.
- Dikea eraikitzeko, obra osagarrietako eta, hala badagokio, iragazgaizteko materialei buruzko azterlana.

A eta B kategorietan sailkatutako lohien gordailuen kasuan, proiektuak egitura-zko segurtasun-arauak eta larrialdi-plana hartu behar ditu barnean, baita honako dokumentu erantsi hauek ere: kokapenaren azterlan geologiko eta geoteknikoa, azterlan hidrológico eta hidrogeologikoa, egonkortasun geoteknikoari buruzko azterlana eta, dagokionean, azterlan sismoerresistentea.

C eta D kategorietan sailkatutako lohien gordailuen kasuan, meatze-agintaritzak goiko dokumentuetatik egoki iritzitakoak aurkezteko eska dezake.

5.5. SEGURTASUN ETA OSASUN DOKUMENTUA

Segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentuan jarraibideak ezarriko dira; hain zuzen ere, meatzaritza-jardueraren ustiapenean jarraitu beharreko jarraibideak, arriskuen prebentzioarako. Dokumentu horretan, laneko istripu eta gaixotasunen prebentzioari dagozkion aurreikuspenak garatuko dira, ezabatu ezin diren arriskuak minimizatzeko aplikatu daitezkeen neurri teknikoak, eta erabili beharreko prebentzio-neurri nahiz babesgarriak, baita langileen higiena eta ongizatea bermatzeko duten obrako instalazio sanitario eta komunak ere.

Azterlana honako arau hauei jarraiki idatziko da: 1389/1997 Errege Dekretuari –meatze-lanetan langileen segurtasuna eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak onartzen dituena– eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren urtarrilaren 23ko ITC/101/2006 Aginduari –erauzketa-industriarako segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentuaren gutxieneko edukia eta egitura arautzen duena–. Horretaz gain, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak 2007an egindako eskuliburu hau ere kontuan izan behar da: «*Manual de procedimiento para la realización del documento de seguridad y salud y plan de labores en las industrias extractivas del País Vasco/Euskadiko erauzketa-industrietan segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentua eta lan-planak egiteko prozeduraren eskuliburua*».

Prebentzioarekin loturiko alderdiak indartuko dira ahalik eta gehien, langileen eta inguruko jendearen osasuna eta osotasun fisikoa bermatze aldera, eta aurreikuspenik ez egiteak edo baliabide nahikorik ez izateak eragindako arrisku-egoerak edo ekintza arriskutsuak saihestuko dira.

Urtarrilaren 23ko ITC 02.1.01 jarraibidearen 3. idatz-zatian segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentuaren gutxieneko edukia eta egitura ezartzen dira, honako idatz-zati hauek barnean hartuta:

1. **Sarrera.**
2. **Xedea.** Aplikazio-eremua eta aldaketak aurreko dokumentuari dagokionez.

3. **Erauzketa-jarduerari buruzko datu orokorrak:** enpresa identifikatzea, lantokia identifikatzea, langileak identifikatzea, kualifikazioa eta lan-kontratuen motak, kontratak eta horien langileak identifikatzea, jarduerak deskribatzea eta prozesuak identifikatzea.
4. **Prebentzioaren antolamendua:** prebentzio-politika, enpresaburua, zuzendari fakultatiboa, prebentzio-modalitatea, prebentzio-baliabidea, langileen ordezkariak eta segurtasunaren eta osasunaren arloko dedikazioa, prebentzio-arloko erantzukizun eta eginkizunak, eta langileen kontsulta eta parte-hartzea.
5. **Jarduerak eragindako arriskuak identifikatzea:** lantokiak identifikatzea, lanpostuak identifikatzea, lantokietako eta lanpostuetako arriskuak.
6. **Enpresako lan-arriskuak ebaluatzea:** enpresako arriskuen ebaluazio orokorra eta lanpostuaren araberako arriskuen ebaluazioa.
7. **Enpresako arriskuen prebentzioa:** prebentzio-ekintzaren plangintza, prebentzioko eta babeseko neurriak baldintza orokorretan eta lanpostuetan, eta langile berezientzako prebentzioko eta babeseko neurriak.
8. **Enpresa-jarduerak koordinatzea:** kontratatutako enpresei begira, ezarritako koordinazio-baliabideak eta honako prozedura hauek: koordinazioko, lankidetzako, jarraibideak emateko eta zaintzako prozedurak.
9. **Prebentzio-jarduerarako praktikak eta prozedurak:** lan-prozedurak, jarraibide eta baimenak, segurtasuneko barne-xedapenak, erregistroak, aldizkako mantentze-lanak eta azterketak egiteko plana, makina, ibilgailu, erreminta, igogailu, kaxa elektriko, su-itzalgailu eta abarrei dagokienez.
10. **Prestakuntza:** hasierako prestakuntza lanpostuaren arabera, birziklatzeko eta etengabeko prestakuntzako urteko plana.
11. **Informazioa:** arrisku orokorrak eta lanpostuaren araberakoak; babeseko, prebentzioko eta larrialdiko neurriak; prebentzio-informazioko urteko plana.
12. **Larrialdi-planak eta lehen laguntzak.**
13. **Osasuna zaintzea.**
14. **Prebentzio-jarduera kontrolatu eta ebaluatzea:** langileen lan-baldintzei eta jardueraren aldizkako kontrolak; ezarritako prebentzioko eta babeseko neurrien aldizkako kontrol eta jarraipena; laneko istripu, gorabehera eta gaixotasunen jarraipena; ezbehar-tasa; lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemaren auditoriak.

15. Urteko aurrekontua prebentzio-jarduerarako.

16. Eranskinak

1. eranskina: Aholkularitza-taldearen identifikazioa eta kualifikazioa.
2. eranskina: Ebaluatu beharreko arriskuak identifikatzea.
3. eranskina: Arriskuen hasierako ebaluazioa.
4. eranskina: Lan-baldintzen eta jardueraren kontrolak.
5. eranskina: Prebentzioko eta babeseko neurriak baldintza orokorretan eta lanpostuetan, betiere aplikatu daitezkeen segurtasunari eta osasunari buruzko gutxienezko xedapenak betetzen direla justifikatzen badute.
6. eranskina: Gorabeheren eta istripuen parte egiteko formularioa.
7. eranskina: Istripuak ikertzeko prozedura orokorra.
8. eranskina: Gehien erabiltzen diren lan-ekipoen eta instalazioen azterketa egiteko zerrenda.
9. eranskina: Prebentzio Zerbitzuen urteko memoria.

5.6. INGURUMEN IZAPIDEARI EKITEKO DOKUMENTUA

Ustiapen-proiektuaren ingurumen-izapideari ekiteko, sustatzaileak dokumentu bat aurkeztu behar du, baina dokumentu horren edukia bat edo beste izango da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa beti egin behar duten proiektuetako bat bada (1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako legearen –proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzekoa– testu bateginaren 6.1 artikulua) edo, kasuan kasu, ebaluazioa ingurumen-organoak erabakitzen duenean soilik egin behar duten proiektuetako bat bada (testu bategin horren 16.1 artikulua).

5.6.1. Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa egin beharreko proiektuak. Proiektuaren hasierako dokumentua (PHD)

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharreko proiektuak honako hauek dira: *1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako legearen –proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzekoa– testu bateginaren 1. eranskinean eta Eus-kadiko ingurumena babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorren I.B eranskinean barne hartutakoak (ikus 4.2.1 idatz-zatia).*

Legearen testu bateginaren 5.1 artikuluari jarraiki, IIEaren izapideari ekiteko hasierako dokumentu bat idatzi behar da eta gutxienez honako eduki hau bildu behar du:

- Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena

- Aintzat hartutako bestelako aukera nagusiak, eta aukera bakoitzaren inpaktu potentzialen azterketa
- Proiektuaren eraginpean hartutako lurraldearen eta ingurumenaren diagnostikoa.

5.6.1.1. *Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena*

Proiektuaren kokapena eta nondik norakoa definitu behar dira, kontsultatutako elementuek behar adina datu izan ditzaten gertatuko diren ingurumen-interferentziak aurreikusteko; hartara, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean nahitaez aztertu beharreko puntuak zehaztu ahal izango dira.

Honako hauek aurkeztu behar dira:

- Kokapen-planoa, 1:25.000 edo 1:10.000 eskalan, eta jardunaren eraginpean geratuko diren udalerriak adierazi behar dira, baita meatze-kuadrikulak ere.
- Aztergai dugun eremuaren goitiko bista, eguneratutako topografiaren eta ortofotoaren gainean (Eskala: 1:5.000 edo txikiagoa); lursailaren gaur egungo egoera eta amaierako egoera gainjarri behar dira topografian eta ortofotoan, ustiategiaren ekintza eta azpiegitura guztiak barnean hartuko dituen gehiengo azalera ere adierazita.
- Gaur egungo egoeraren goitiko bista; eskala: 1: 2000 edo 1:1.000
- Amaierako egoeraren goitiko bista; eskala: 1: 2000 edo 1:1.000
- Gaur egungo eta amaierako egoeraren zeharkako profilak, edo bestela, ustiategiaren profil tipoak.
- Ustiapen-proiektuaren laburpen-memoria, honako datu hauek gutxienez adierazita: ustiatu beharreko baliabide mota, ustiapen-metodoa, okupatuko den azalera guztira, erauzi nahi den bolumena, bankuen ezaugarriak, harrobi-plazaren eta instalazioen kotak, eta ustiategian aurreikusitako instalazio eta sarbi-deak.

5.6.1.2. *Aintzat hartutako bestelako aukera nagusiak, eta aukera bakoitzaren inpaktu potentzialen azterketa*

Aztertu diren bestelako aukerak deskribatu behar dira. Ustiatu beharreko eremuari dagozkion bestelako aukerak izan daitezke, baita ustiapen-metodoari dagozkionak ere. Ahal dela, bestelako aukera horiek goitiko bistekin, profilekin edo marrazki nahiz irudiekin aurkeztu behar dira.

Bestelako aukeretako bakoitzaren kasuan identifikatutako inpaktu potentzialak aztertuko dira, labur-labur. Aukerak errazago konparatze aldera, inpaktuak identifikatzeko matrizea aurkeztu beharko da, aukera bakoitzaren inpaktu potentzialak bilduta. Horretaz guztiaz gain, inpaktu horien garrantzia ere neurtu behar da, garrantzi handienekoak eta garrantzirik gabekoak berezita.

5.6.1.3. *Proiektuaren eraginpean hartutako lurraldearen eta ingurumenaren diagnostikoa*

Inguruneko balio eta baldintzatzaile nagusien deskripzio laburra egin behar da. Horretarako, honako aldagai hauek izan behar dira kontuan: geologia eta geomorfologia, hidrogeologia (unitate hidrogeologikoak, ur-puntuak), lur gaineko hidrologia, lurzoruaren ahalmen agrologikoa, lur potentzialki kutsatuen presentzia, landaredia, fauna, paisaiak, inguruko hiriguneak eta ustiategiaren eraginpean gera daitezkeen etxebizitza isolatuak, kultura-ondarea, eta eraginpean gera daitezkeen espazio babes-tuak.

Sintesi-mapa bat aurkeztu behar da, atzemandako balio eta baldintzatzaile nagusi eta guzti.

5.6.2. **Kasuan kasu, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ingurumen-organoak erabakitzen duenean soilik egin behar duten proiektuak. Proiektuaren ingurumen-dokumentua (PID)**

Zenbait proiektuk ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar dute, baina kasuan kasu, ingurumen-organoak horrelakorik erabakitzen duenean soilik; esaterako, Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko legearen testu bateginaren 2. eranskinean barne hartutako proiektuak, eta Natura 2000 Sareko espazio batean zuzenean edo zeharka eragin dezaketenak.

Lege horretako 16.1 artikulua araberak, mota horretako proiektuen kasuan Proiektuaren Ingurumen Dokumentua (PID) idatzi behar da, eta gutxienez honako eduki hau bildu behar du:

- Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena.
- Aztertutako bestelako aukera nagusiak.
- Ingurumenaren gaineko inpaktu potentzialen azterketa.
- Ingurumena behar bezala babesteko prebentzio-neurriak, neurri zuzentzaileak edo konpentsazio-neurriak.

- Jarraipena egiteko modua, betiere ingurumen-dokumentuan bildutako adierazpenak eta neurriak –babeseakoak eta zuzentzaileak– betetzen direla bermatzeko.

5.6.2.1. *Proiektuaren definizioa, ezaugarriak eta kokapena*

Idatz-zati honen edukia 5.6.1.1 idatz-zatian zehaztutakoaren berdina izango da.

5.6.2.2. *Aztertutako bestelako aukera nagusiak*

Idatz-zati honen edukia 5.6.1.2 idatz-zatian zehaztutakoaren berdina izango da.

5.6.2.3. *Ingurumenaren gaineko inpaktu potentzialen azterketa*

Identifikatutako inpaktu potentzialak aztertuko dira, labur-labur. Horretarako, jardun-ingurunearen diagnostikoa egin behar da, 5.6.1.3 idatz-zatian zehaztutako edukiarekin.

5.6.2.4. *Ingurumena behar bezala babesteko prebentzio-neurriak, neurri zuzentzaileak edo konpentsazio-neurriak*

Atzemandako inpaktuen arabera, instalazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren neurrien –prebentziokoak, zuzentzaileak eta konpentsaziokoak– zerrrenda aurkeztu behar da, ahal dela, identifikatutako inpaktuak minimizatze aldera.

Prebentzio-neurri eta neurri zuzentzaile hauek zehaztu behar dira:

- Airearen kalitatea babestekoak.
- Zaratari dagozkionak.
- Bibrazioei dagozkienak (leherketak).
- Bide publikoak babestekoak.
- Lur gaineko urak babestekoak.
- Lurpeko urak babestekoak.
- Ustiategiaren eraginez sortutako trafikoa bide publikoetako ohiko trafikoarekin uztartzekoak.
- Hondakinak behar bezala kudeatzekoak.
- Landaredia babestekoak.
- Fauna babestekoak.
- Paisaiarekin integraztekoak.

Horretaz gain, beharrezko iritziz gero, konpentsazio-neurriak proposatuko dira.

5.6.2.5. *Jarraipena egiteko modua, betiere ingurumen-dokumentuan bildutako adierazpenak eta neurriak –babeseakoak eta zuzentzaileak– betetzen direla bermatzeko*

Ingurumena zaintzeko programa egokia proposatuko da, ustiapenaren funtzionamendu egokia bermatze aldera; programa horretan, gutxienez, honako kontrol hauek sartu behar dira:

- Uren kalitatearen kontrola.
- Hondakinen kudeaketaren kontrola.
- Airearen kalitatearen kontrola.
- Leherketetako bibrazioen kontrola.
- Zaraten kontrola.
- Hautsak landaredian duen eraginaren kontrola.
- Leheneratzearen arrakastaren kontrola.

5.7. LEHENERATZE PLANA

Leheneratze-planak honako arau hauek bete behar ditu: 2994/1982 *Errege Dekretua, urriaren 15ekoa, erauzketa-jarduerek kaltetutako naturguneak leheneratzeari buruzkoa*; eta 115/2000 *Dekretua, ekainaren 20koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarena, erauzketa-jarduerek kaltetutako naturguneak leheneratzeari buruzkoa*. Azken Dekretu horren arabera, Meatzte-lanek kaltetutako naturguneak leheneratzeko Plana egin behar dute ezinbestean bai A) edo B) sekzioetako baliabideak ustiatzeko emakiden eta ikerketa-baimenen titular edo eskatzaileek, baita C) eta D) sekzioetako baliabideak ustiatzeko emakiden eta ikerketa-baimenen titular edo eskatzaileek ere, eta plana onartutakoan, gauzatu egin beharko dute.

Proposatutako leheneratzea honelakoa izan daiteke: nekazaritzako eta baso-artzaintzako paisaian integratzea, eraginpean hartutako espazioaren tratamendu artistiko-monumentala egitea, edo lurzoruaren bestelako erabilerak hartzea, betiere hirigintza-araudian aurreikusitakoak badira.

4. artikulua betez, Leheneratze Planak proiektu-itxura izango du, eta honako eduki hauek bildu behar ditu: Memoria, Leheneratze Programa, Azterlan ekonomikoa, Kronograma eta Eranskinak. Proiektua izaki, plana lau dokumentu independentez osatuta egongo da: Memoria, planoak, baldintza-orrria eta aurrekontua; dokumentu bakoitza teknikari tituludun eskudunak sinatu behar du, gaiaren arabera, eta ustiategiaren zuzendari fakultatiboaren baimena nahiz dagokion elkargo profesionalaren ikus-onetsia izan behar ditu.

5.7.1. Memoria

Memorian honako atal hauek bildu behar dira:

- Ingurune fisikoaren deskribapen zehatza, proiektuaren kartografiaren eskalarekin.
- Ingurune sozioekonomikoaren deskribapena, honako datu hauekin: lursailen lege-egoera eta kokapen geografikoa, gaur egungo erabilerak eta laborantza, demografia, meatzaritza-jarduerak sortu edo eragingo duen enplegua, azpiegiturak, interes historiko eta arkeologikoko espazioak, interes geologiko eta paleontologikoko espazioak, eta espazio naturalak eta interes ekologikoa dutenak.
- Meatze-ustiategiaren deskribapena, meatze-eremuaren egoera administratiboa biltzen duena; baita Ustiapen Proiektuaren laburpen bat ere, honako datu hauekin: aurreikusitako urteko harroketa-bolumena, garraio-sistema, bermen zabalera, ezponden altuera eta ustiategiaren aurreikusitako bizitza, dauden erreserba eta esterilen justifikazio nahikoa, ustiategiaren diseinuak eta putzu nahiz hondakindegien diseinuak, eraginpean hartutako azalera tipo eta faseen arabera, eta eraginpean hartutako azalera guztira.
- Jarduerak paisaiaren unitate guztietan izango dituen lur gaineko eraginak identifikatu eta balioestea, ingurunearen gaineko efektuak deskribatuta eta efektuen zenbaterainokoa kuantifikatuta, betiere unitate bakoitzak Udalerrian, Eskualdean, Probintzian eta Autonomia Erkidegoan duen presentziari dagokionez; ahal baldin bada, gaiari buruz eskura dagoen informazioa ere txertatu behar da.
- Hautatutako errekupeazio-sistemaren justifikazioa.

Proiektuarekin batera ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana aurkeztu bada, eta azterlan horren barnean eduki horiek guztiak aipatu badira, horren aipamena egin daiteke, informazio guztia berriz adierazi gabe, edo alderantziz.

Lehenertze Programan bertan honako hauek bildu behar dira:

- a) Lursailaren birmoldaketa edo, dagokionean, hutsuneak edo bestelako aukerak bete edo sortzea, betiere aplikatu nahi den lehenertze motaren arabera.
- b) Honako hauen kokapena eta diseinua: barneko eta kanpoko hondakindegiena, esterilena eta putzuena, paisaian txertatzearen eta egonkortasunaren ize-nean.
- c) Lurpeko eta lur gaineko urak kutsatzea saihesteko babes-neurriak, eta deribazio-kanalen, drainatzeen eta iragazgaiztearen deskribapena. Ustiategitik, hondakindegietatik, ikuztegitatik, metaketetik eta dekantazio-putzuetatik

datozen ur kutsatuak metatuz gero edo lixibiatuak sortuz gero, uren kalitatea-ri buruzko azterketa aurkeztu behar da, baita urak biltzeko eta arazteko aurreikusitako prozeduraren azterlan zehaztua ere.

- d) Material kutsakorrik izanez gero, urekin eta lurrekin kontaktuan jartzea eragozteko isolamendu-prozesuak deskribatuko dira.
- e) Arrisku geofisikoen (uholdeak, higadura, jalkidura eta ezegonkortasuna) aurkako babes-neurriak.
- f) Paisaia babesteko neurriak, ingurunearen balio estetikoa kontuan izanik.
- g) Birlandatzeko prozesua:
 - Landare-lurra ateratzeko, kokatzeko, metatzeko eta alde zuzenetik tratatzeko sistema.
 - Lurzoru berria sortzeko metodoa (esaterako, esteril hobetuak erabiltzea); izan ere, leheneratzea ongi ateratze aldera, substratuak gutxienez 70 cm-ko lodiera izatea gomendatzen da, landare-lurra barnean hartuta.
 - Landare-lurra ezpondetan eta plataformetan zabaltzea, gutxienez 30 cm-ko lodierarekin; lurzorua prestatzeko lanak (lurra lantzea, ongarritzea, eta abar).
 - Birlandatzeko aukeratutako espezieak justifikatzea, eta erabiliko diren landare eta hazien ezaugarriak adieraztea; landare eta hazi horiek merkatuan eskuragarri egon beharko dute.
 - Ereiteko eta landatzeko sistemak, erabili beharreko esparru eta dentsitateak eta ezarri beharreko landaredia sendotzeko operazioak deskribatzea.
- h) Kronograma: egutegi bat aurkeztu behar da, eta bertan, leheneratzeko eta babesarako zereginak zehaztu behar dira, ustiapen-lanei egokituta, eta hartara, ahalik eta denbora gutxien igaroko da ustiapenaren eta agortutako eremuen leheneratzearen artean. Ustiapen-faseen osteko leheneratzea eta instalazio, azpiegitura eta sortutako gainazalak desegin edo eraisteko lanak hartuko dira barnean.
- i) Eranskinak: ingurune fisikoari buruz aurretiaz egindako dokumentu guztiak txertatu behar dira.

Proiektuarekin batera ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana aurkeztu bada, eta azterlan horren barnean neurriak –prebentziokoak, zuzentzaileak eta konpen-tsaziokoak– eta Ingurumena Zaintzeko Programa aipatu badira, horren aipamena egin daiteke, informazio guztia berriz adierazi behar izan gabe. Proiektuari dagokio-

nez, leheneratze-lanak zehatz-mehatz aipatu behar dira, hau da, ustiategiaren eraginpeko gainazal guztiak –baita hondakindegia eta sarbideak ere, besteak beste– birmoldatzea eta berriz landatzea.

5.7.2. Preskripzio teknikoaren orria

Baldintza Orrian jarraibide, arau eta espezifikazio tekniko guztiak bildu behar dira; hala nola: materialen definizioa, obrak gauzatzeko modua, harrera-probrak eta onartzeko edo ukatzeko irizpideak, baita obra-unitateak neurtzeko eta ordaintzeko modua ere; Proiektuaren planoetan adierazitakoarekin batera, horiek guztiak bete beharreko baldintza teknikoak izango dira, Leheneratze Plana, neurri zuzentzaileak eta Ingurumena Zaintzeko Programa gauzatzeko garaian.

5.7.3. Planoak

Gutxienez honako plano hauek aurkeztu behar dira:

- Kokapen-planoa, 1/50.000 eskalan, meatze-kuadrikulak adierazita
- Honako hauek biltzen dituzten planoak, 1/1000 edo 1/2000 eskalan: eraginpean hartutako eremuaren eta ingurunearen hasierako egoera, lau urte bakoitzeko tarteko egoerak, eta amaierako egoera; ustiapen-eremuei dagozkien proiektzio horizontal eta bertikalekin; aurreikusitako leheneratze-lanak: sestrakurben adierazpen grafikoa, 1 edo 2 metroko distantziakidetasunarekin –eskalaren arabera–, eta honako hauek adierazita: iristeko bideak, instalazio osagarriak, ustiapen-fronteak, metaketa-zonak, hondakindegia eta hondakin-urak husteko sarea, betiere fase bakoitzerako zeharkako profilekin batera. Horretaz gainera, erauzketa-jardueraren eraginpeko eremua definitzen duten erpinen UTM koordinatuak agertuko dira.
- Eraginpean hartutako eremuaren plano geologikoa, horretarako egina, dagozkion ebakidura eta guzti.
- Lursailaren egungo egoera eta amaierako egoera gainjarrita irudikatzen dituen planoak aurkeztu behar da, baita laurteko bakoitzeko tarteko egoeren planoak ere.
- Eremuaren ortofotoa, ustiategiaren ekintza eta azpiegitura guztien gehieneko azalera gainjarrita eta faseak zehaztuta.

5.7.4. Azterlan ekonomikoa eta aurrekontua

Azterlan ekonomikoan kostuen analisi zehaztua egin behar da; hain zuzen ere, lursailak leheneratzeko nahitaezkoak diren operazio guztien eta aplikatuko diren neurri zuzentzaile guztien kostuena.

Aurrekontuan, partiden arabera banakatuko dira Leheneratze Planean definitutako lan bakoitzaren gauzatze-kostuak, justifikatuta, eta egin beharreko ekintzen eta merkatuko prezioen arabera. Etekin industrialak eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga esanbidez gehituko dira.

Hobeto egiaztatu eta kontrolatze aldera, aurrekontua banakatu egingo da leheneratu beharreko gainazal moten eta faseen arabera.

Leheneratze-lanak egoki gauzatzen direla bermatzeko, Meatzte Agintaritzak aurrekontuari eta Leheneratze Planaren programari beharrezko bermeak eratzea ezarriko du. Bermeak egiaz eratzea meatzte-egilespenaren funtsezko baldintzat hartutako da.

5.7.5. Leheneratze-planaren edukia, ikerketa-baimenatarako

Ikerketa-baimenen kasuan, memoria bat aurkeztu beharko da eta memoria horretan eduki hau bildu beharko da: egin beharreko lan motak, betiere ingurunean ondorioak izan baditzakete (zundaketak, laginketak, fronte pilotoak, eta abar); aurreikusitako kopurua, aurreikusitako kokapena, gutxi gorabehera; eraginak, leheneratze-neurriak eta aurreikusitako aurrekontua, merkatuko prezioetan oinarrituta.

5.7.6. Urteko lan-planen leheneratze-eranskina

Ustiapenak irauten duen bitartean, Leheneratze Planaren leheneratze-eranskin bat aurkeztu behar da urtero, honako eduki honekin:

- Leheneratze Planetik gauzatutako ekintzen urteko memoria, euskarri kartografiko eta guzti, betiere onartutako Leheneratze Planaren araberrako balioespena eginda.
- Dagokion urterako zereginen aurreikuspen-plana, euskarri kartografiko eta guzti eta onartutako Leheneratze Planaren araberrako balioespena eginda.

5.8. INGURUMEN INPAKTUAREN BANAKAKO EBALUAZIOA IZAPIDETZEKO INGURUMEN INPAKTUARI BURUZKO AZTERLANA

Kontsulten izapidearen ostean, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren edukia bat etorrriko da ingurumen-organoak aurretiazko txostenean eskatutako zabaltasun eta xehetasun-mailarekin eta, gutxienez, baita honako hauetan ezarritako edukia-ekin ere: Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeke Legearren testu bateginaren 7. artikuluan, eta *irailaren 30eko 1131/88 Errege Dekretuaren* 21 sekzioan; *1131/88 Errege Dekretuaren* bidez *1302/86 Legegintzako Errege Dekretua burutzeke Erregelamendua onartzen da.*

5.8.1. **Proiektuaren eta denboran zehar aurreikus daitezkeen eskakizunen deskripzio orokorra, lurzorua eta bestelako baliabide naturalen erabilerari dagokienez. Botatako hondakin motak eta kantitateak, eta ustiapenak eragindako materiaren eta energiaren emisioak, gutxi gorabehera**

- Proiektuari atxikitako ekintzen zerrenda zehatza; hain zuzen ere, ingurumenaren gain eragina izan dezaketen ekintzena, dela egiteko eta funtzionatzeko fasean, dela bertan behera uzteko fasean.
- Kokapena
- Ustiategiaren diseinua: erauzketa-metodoak; aurreikusitako urteko harroketa-bolumena; zulatze sistema; kargatzeko, garraiatzeko edo eramateko sistema; bermen zabalera; ezpenden altuera eta inklinazioa; ustiategiaren aurreikusitako bizitza; ustiapen-faseak; aurreikusitako esteril-bolumena; hondakindegien diseinua; eraginpean hartutako azalerak fase motaren arabera, eta eraginpean hartutako azalera guztira.
- Pista eta sarbide osagarriak.
- Ustiategiak hartuko duen itxura, ahal izanez gero, argazki bidezko simulazio eta guzti.
- Erantsitako instalazioen deskripzioa: birrinketa-planta, birrindutako materiala garraiatzeko sistemak, transformadoreak, konpresoreak, lehergai-biltegia, makinaren garajea eta mantentze-lanetako eremua, erregai-gordailuak, hondakin eta erregaien biltegia. Gainazal horiek iragazgaituak eta/edo aterpean dauden deskribatzea oso garrantzitsua da, eta ez badaude aterpean, drainatze-sareari dagokionez non kokatuta dauden adierazi behar da.
- Makinak: pala kargatzaileak, atzerakako hondeamakinak, mailuak, zulatze makinak, ebakitzeko makinak, kamioiak, eta abar.
- Zarataren eta hautsaren emisio-puntuak
- Ustiategiko elementu eta instalazio guztietako hautsa harrapatze sistema (zulaketa, materiala garraiatzeko sistema, birrinketa-planta, kalapatxa, eta abar).
- Urteko ur-kontsumoa, gordailuen deskripzioa eta bolumena.
- Uraren kudeaketa ustiategian. Berrerabiltzeko aukerak. Aurreikusitako ustiapen-eremuaren drainatze-sarea. Gurrpilak garbitzeko sistema, eta dekantazio-puntuak, behar bezala justifikatu eta kalkulaturako diseinu eta dimentsioekin; hidrokarburoen iragazkiak.

- Errekastoak eten, bideratu, hodietan sartu eta abar egiteko premia.
- Ustiapen-fasean aurreikusitako trafikoa.
- Itxiturak ba ote diren.
- Erauzketa-jarduerak eragindako hondakin mota guztien (bazterketak, olioak, gurpil-garbigailu eta dekantazio-putzuetako lohiak) deskribapena (EHK kodeak), biltegiatzea eta kudeaketa.

Proiektuaren deskribapenarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

- Kokapen-planoa, 1:25.000 edo 1:10.000 eskalan, eta jardunaren eraginpean geratuko diren udalerriak adierazi behar dira, baita meatze-kuadrikulak ere.
- Aztergai dugun eremuaren goitiko bista, eguneratutako topografiaren eta ortofotoaren gainean (Eskala: 1:5.000 edo txikiagoa); lursailaren gaur egungo egoera eta amaierako egoera gainjarri behar dira topografian eta ortofotoan, ustiategiaren ekintza eta azpiegitura guztiak barnean hartuko dituen gehiengo azalera ere adierazita.
- Gaur egungo egoeraren goitiko bista; eskala: 1: 2000 edo 1:1.000
- Amaierako egoeraren goitiko bista; eskala: 1: 2000 edo 1:1.000
- Gaur egungo eta amaierako egoeraren zeharkako profilak, edo bestela, ustiategiaren profil tipoak.
- Drainatze-sarearen goitiko bista, isurketa-lerroak eta dekantazio-putzuekiko loturak adierazita, eta dagokionean, baita errekaen aurreikusitako desbideratzeak, ubideratzeak eta lurperatzeak ere.
- Aurreikusitako instalazio guztien kokapenaren goitiko bista.
- Itxituraren goitiko bista.
- Hondakindegien goitiko bista eta profilak.
- Dekantazio-putzu eta gurpil-garbigailuen xehetasuna.

5.8.2. Aztertutako bestelako aukera nagusien azalpena, eta hartutako soluzioaren arrazoi nagusien justifikazioa, betiere ingurumenaren gaineko efektuak kontuan izanik

Teknikoki bideragarriak direlako proposatu diren bestelako aukera guztiak deskribatu behar dira, baita «zero» aukera edo ez-proiektua ere; hori egindakoan, teknikoki zentzuzkoak diren aukeren ingurumen-efektuen azterketa diferentziala eta konparatiboa egin behar da, baita hartutako soluzioaren justifikazioa ere.

Bestelako aukeren azterketa irudiekin batera aurkeztu behar da; hain zuzen ere, planoekin, zeharkako eta luzetarako profilekin eta/edo figurekin.

5.8.3. Proiektuak biztanleriarengan, floran, faunan, lurzoruan, airean, uretan, faktore klimatikoetan, paisaian eta ondasun materialetan, eta ondare historiko, artistiko eta arkeologikoan izan ditzakeen efektuen –zuzenekoak nahiz zeharkakoak– ebaluazioa. Era berean, faktore horien guztien arteko elkarreragina ere aintzat hartu behar da

Proiektuak ingurumenean izan ditzakeen efektuak behar bezala ebaluatze aldera, alde zuzenetik ingurumen-inbentarioa egin behar da.

5.8.3.1. Ingurumen-inbentarioa eta ekologiarekin nahiz ingurumenarekin loturiko gako-elkarreraginak deskribatzea

Ingurumen-inbentarioan tokiaren eta ingurumen-baldintzen azterlan zehaztua egin behar da, betiere obrak egin aurretik. Azterlanaren xede izango den eremua aztertutako aldagaiaren arabera izango da, baina, oro har, proiektuak okupatutako eremu soila baino handiagoa izan beharko du, eta funtzionamendua eta elkarreragin ekologikoak kontuan izan beharko ditu.

Hona hemen aztertu beharreko aldagaiak:

- Klima.
- Airearen kalitatea.
- Egoera fonikoa.
- Geologia.
- Geomorfologia.
- Edafologia eta Lurzoruaren erabilera-ahalmena.
- Lurzoru potentzialki kutsatuak.
- Hidrogeologia.
- Lur gaineko hidrologia.
- Sare hidrologikoaren kalitatea.
- Landaredia eta lurzorua erabilerak.
- Fauna.
- Habitat interesgarria.

- Korridore ekologikoen sarea.
- Paisaia.
- Ondare arkeologikoa eta historikoa – Arkitektonikoa.
- Espazio babestuak.
- Giza habitata.
- Alderdi juridiko administratiboak.

Aztergai dugun eremuko **klimaren ezaugarriak** zehazteko garaian, Meteorologia Institutu Nazionalaren Euskadiko Lurralde Meteorologia Zentroak erregistratutako baliok erabiliko dira, betiere azter-eremutik gertueneko estazio osatuenetan bildutakoak. Hainbat parametro izan behar dira kontuan: tenperatura, prezipitazioak, izozteak, lainoa, hezetasuna, balantze hidrikoa, haizea, klima-sailkapena, eta abar.

Airearen egungo kalitatea deskribatu behar da, eta egungo egoerari buruzko informazio orokorra eman beharko da; horretarako, «Euskal Autonomia Erkidegoko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea» izenekoak egindako kalkulu teorikoak edo neurketa errealak aztertuko dira bibliografiaren bidez. Sare horrek irizpide jakin batzuen arabera egiten ditu neurketak; hain zuzen ere, airearen kalitatearen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 96/62 Zuzentarauan ezarritako irizpideen arabera.

Eremuaren hasierako egoera fonikoa aztertu eta obra-fasean zarata kontrolatzeko erreferentzia-datuak izate aldera, eguneko eta gaueko zaratak neurtzeko kanpaina egingo da ustiategiaren eraginpeko eremuan, eta zehazki, ustiategitik gertueneko etxebizitzetan; izan ere, etxebizitza horietan giza habitataren kalitatea murriztea aurreikusten baita, zaraten ondorioz. Gainera, inguruan espazio babesturik (BGL, HBBE, eta abar) ba ote dagoen ere kontuan izan behar da. Laginketa-puntuak honako hauen azterketan oinarrituta aukeratu dira: giza habitata, espazio babestuak eta harrobirako aurreikusitako sarbideak. Sonometro homologatuaz egin behar dira neurketak, eta gutxienez honako parametro hauek neurtu behar dira: soinu-maila baliokidea (Leq); L90, L50, L10 pertzentilak; balio gorena (Peak), eta maximoa (Max).

Ustiapen-proiektuan **azterlan geologiko eta azterlan geotekniko** zehaztuak egin behar dira eta horietatik ateratako ondorioak ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean txertatzea interesgarria izango litzateke. Azterlan geologikoa eginez gero, ingurunearen beste aldagai batzuekin (formazio geologikoaren iragazkortasuna, horrelako formazioetan sortzen diren lurzoru eta landaredi motak, eta abar) loturiko informazioa lortuko dugu. Azterketa geoteknikoa egitea ere interesgarria da, alde batetik konponbideak baldintza ditzaketen prozesuak atzemateko aukera emango duelako, eta bestetik, erauzketa-jardueraren ondorioz prozesu naturalak pizteko arris-

kua ere atzeman daitekeelako. Hona hemen prozesu horiek: ezponden ezegonkortasuna, hegaleen higadura, higadura areagotzea, eta abar. Horretaz gain, interes geologikoko puntutzat hartutako inbentarioa ere egin behar da.

Geomorfologiari dagokionez, meatze-ustiategi batek gehien kaltetzen duen elementuetako bat da, baita paisaiaren funtsezko elementua ere; beraz, geomorfologia aztertu egin behar da.

Edafologiari eta lurzoruen erabilera-ahalmenari dagokienez, eraginpean hartutako lurzoru motak deskribatuko dira, baita lur horien ahalmen agrologikoa ere, lurra baliabide gisa zenbateraino galdu den jakiteko, bereziki, ahalmen agrologiko handiko lurren eskasia dagoen eremuetan.

Lurzoru potentzialki kutsatuak: IHOBÉ-Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa, S.A. sozietateak egindako «Inventario de emplazamientos con actividades potencialmente contaminantes del suelo/Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak kokatzen diren tokien inbentarioa» lana berraztertuko da. Honako hau ere egiaztatuko da: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen II. eranskinean –«Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak»– barne hartutako jarduerarik izan ote den lurzoru horretan.

Hidrogeologia. «Euskadiko Mapa Hidrogeologikoa E 1/100.000» izeneko maparen arabera, eremuan dauden unitate hidrogeologiko nagusiak deskribatuko dira, baita hornidurarako iturburu eta iturri nagusiak ere; baliabide hidriko gisako ezauzgarriak ere balioetsiko dira, eta lurpeko akuiferoen urakortasuna adierazi behar da, aztergai dugun eremuan dauden litologiaren eta zirkunstantzia berezien arabera, betiere sor daitezkeen bestelako baldintzatzaileak ere gogoan izanik. Gutxienez honako hauek identifikatuko dira: eraginpean hartutako akuiferoak birkargatzeko eremuak, maila piezometrikoaren sakonera eta eraginpean hartutako ur-puntuak eta horien erabilera. Eragin garrantzitsuak aurreikusiz gero, ustiapen-proiektuarekin batera azterlan hidrogeologiko zehaztua aurkeztu beharko litzateke.

Lur gaineko hidrologia-sareari buruzko azterlanak egin behar da eta ezaugarri nagusiak deskribatu; hala nola, draintze-sare nagusien eta arroen mota eta banaketa, funtzionamendu hidraulikoa, eta abar.

Azterlan hidrologikoan **sare hidrologikoaren kalitatea** aztertu behar da, «egoera ekologikoaren» bidez; 2000/60/EEE Zuzentarauko definizioaren arabera, lur gaineko urei loturiko ur-ekosistemen funtzionamenduaren eta egituraren kalitatea adierazten du egoera horrek. Beraz, lur gaineko uren egoera ekologikoaren sailkapena egiteko, hainbat kalitate-adierazle izan behar dira kontuan. Alde batetik, adierazle biologikoak hartu behar dira aintzat; eta bestetik, adierazle biologikoei eragiten dieten adierazle hidromorfologikoak; eta azkenik, adierazle kimiko eta fisikokimikoak,

horiek ere adierazle biologikoei eragiten badiete. 2000/60/EEE Zuzentarauan ezarritako ildoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Eskualde ekologikoei buruzko Azterlana egin eta eskualde ekologikoetako lur gaineko ur-masak sailkatu ditu. Gainera, eremu bakoitzaren egoera ekologikoa definitzeko taulak eta matrizeak baliatu dira, betiere honako bi parametro hauen arabera: ibilguaren kalitatea, kalitate-indize baten bidez, makroornogabe eta guzti (BMWP’); eta erriberaren kalitatea, QBR delakoa erabiliz. Ekoeskualde bakoitzerako erreferentziako eta kalitateko baldintza jakin batzuk ezarri dira, aldatu gabeko baldintzak zenbateraino aldatu diren arabera. Eraginpean hartutako ur-lasterrak azterlan horretan sailkatuta baldin badaude, azterlaneko ondorioei erreparatu behar zaie, baina bestela, sailkapena egin beharko da metodologia berari jarraiki, eta horretarako, ur-laginak hartu behar dira BMWP’ zehazteko. Horretaz gain, analisi horiek osatzeko, bestelako parametro fisiko-limikoak erabiliko dira, honako hauek, gutxienez, barnean hartuta: pH-a, eroankortasuna, solido esekiak, olio eta koipeak, eta hidrokarburoak. Ustiapenari ekin aurreko uraren kalitatearen adierazletzat ez ezik, ustiapen-fasean uren kalitatea kontrolatzeko erreferentziatzat ere balia daitezke lortutako emaitza horiek.

Eremuan dauden **landaredi-unitateak** aztertuko dira, baita horien lore-osaera ere. Interes naturalistikoko unitateen kasuan, honako datu hauek ezarri behar dira: kontserbazio-maila, dibertsitate espeziфикoa, zuhaitzen eta zuhaixken estaldura-ehunekoa, eta abar, betiere landaredi-unitate bakoitzaren balioespina egitea errazte alde-ra. Gainera, unitate mota horren kasuan, eraginpean hartutako azalera gutzia zehaztu behar da, unitate bakoitzak Udalerrian, Eskualdean, Probintzian eta Autonomia Erkidegoan duen presentziari dagokion magnitude erlatiboa kuantifikatuta; ahal izanez gero, gaiari buruz eskura dagoen informazioa ere txertatu behar da. Intereseko flora-espezieak nabarmendu behar dira.

Fauna aztertuta, zein fauna-komunitate dauden jakingo da; komunitate horiek deskribatu egin behar dira, eta, arrisku-maila dela-eta, eta/edo balio handiko baliabidea izateagatik interesekotzat hartutako espezieen presentzia erreal edo potentziala nabarmendu behar da. Intereseko espezieen egoera, urtarokotasuna, bizi-eremua, migrazioko eta larreratzeko ibilbidea, eta abar zehatz-mehatz deskribatuko dira. Ingarumen eta Lurralde Antolamenduko Sailak 2005. urtean egindako «Euskal Autonomia Erkidegoko **Korridore ekologikoen sarea**» izeneko lana kontsultatu behar da, jarduerak korridoreetakoren batean eragiten ote duen jakiteko.

Florari eta faunari dagokienez, intereseko espezieak zehazteko garaian, horien lege-statusa kontuan izan behar da, eta horretarako, gutxienez honako oinarritzko legedi honi erreparatu behar zaio:

Eremuan dauden floraren eta faunaren espezieen artetik, lege-statusaren arabera nabarmentzeko modukoak direnak zehatz-mehatz deskribatu behar dira (egoera, ur-

tarokotasuna, bizi-eremua, migrazioko eta larreratzeko ibilbideak, eta abar). Hori egiteko, gutxienez honako oinarrizko legedi honi jarraitu behar zaio:

- 4/1990 Foru Dekretua, urtarrilaren 16koa, Gipuzkoa Lurralde Historikoko zenbait flora-espezieren babesa finkatzen duena.
- 11/97 Foru Araua, urriaren 14koa, *Euskal Herriko basoko espezie zenbaiten araubide bereziari buruzkoa (Bizkaia)*.
- EAEko Espazio Mehatxatuak Kudeatzeko Planen Foru Arauak
- 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, *Basa eta Itsas Flora eta Landaredian Arris-kuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena*.
- Agindua, 1998ko uztailaren 10ekoa, *Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arris-kuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan Euskal Herriko flora baskularreko 130 taxon eta 6 populazio sartzten dituen*.
- 439/1990 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, *Espezie Mehatxatuei buruzko Estatuko katalogoa arautzen duena*.
- Agindua, 1998ko uztailaren 9koa, eta Agindua, 1999ko ekainaren 9koa, *Espezie Mehatxatuei buruzko Estatuko Katalogoan zenbait espezie sartzten dituen eta Katalogoan zeuden beste espezie batzuk kategoriaz aldatzen dituen*.
- 92/43/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, *Habitat naturalak eta basa-fauna eta landaredia babesteari buruzkoa*.
- 79/409/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, maiatzaren 21ekoa, *Basa-begaztiak eta bere habitatak zaintzeari buruzkoa*.

Intereseko habitatak: Habitategi buruzko Zuzentaruaren (92/43/EE) I. eranskineko zerrenden arabera, eremuan interes komunitarioko habitatik baldin badago, kontserbazio-egoera eta dibertsitatea aztertu behar dira. Gainera, habitat bakoitzaren kasuan, eraginpean hartutako azalera guztia zehaztu behar da, unitate bakoitzak Udalerrian, Eskualdean, Probintzian eta Autonomia Erkidegoan duen presentziari dagokion magnitude erlatiboa kuantifikatuta; ahal izanez gero, gaiari buruz eskura dagoen informazioa ere txertatu behar da.

Paisaiari buruzko azterlanean, paisaia-arroaren analisi orokorra egin behar da, kalitate bisuala eta hauskortasun bisual nahiz elkar-ikusgarritasuna zehaztuta. Paisaiaren kalitatean hiru elementu sartzten dira: aztergai dugun puntuaren berezko ezaugarriak, ingurune hurbilaren (500-700 m) kalitate bisuala eta hondo eszenikoaren kalitatea. Azterlan zehaztuagoa egiteko, paisaia-unitate homogeenagoak mugatuko dira, oinarrizko bi aldagairen arabera: lurzorua erabilerak – landaredia eta fisiografia. Unitate horiek erakargarritasun bisualaren arabera balioetsiko dira eta erakarga-

rritasun hori lurraldearen puntu bakoitzaren berezko ezaugarrietatik eratorriko da; hala nola, morfologia, landaredia, uraren presentzia, eta abar, baita paisaiaren gain erabileraren bat garatzen denean paisaia zenbateraino aldatzen den ere. Gainera, eraginpean hartutako eremuaren irisgarritasun bisualari buruzko azterlana egin behar da, inguruko tokirik jendetsuenetatik (hiriguneak, errepideak, bidea, eta abar) eta gutxienez 2.000 m-ko erradioarekin; erradio hori kasuan kasu handitu egingo da, arro bisualaren magnitudearen arabera.

Inbentario bat egingo da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zentroaren zerrendetan bildutako **ondare historiko, arkitektoniko edo arkeologikoko** elementuekin.

Giza habitata aztertu behar da: hurbileneko nukleoetako biztanleriaren ezaugarriak, denboran izandako bilakaera, eta aztergai dugun eremuko sektore ekonomikoen egitura eta banaketa.

Aztergai dugun eremuko eta horren inguruko **espazio babestuak** deskribatu behar dira. *Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen* 13. artikulua arabera, babestutako naturguneak honela sailkatzen dira: Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz Apartekoak. 1193/1998 eta 1421/2006 Errege Dekretuen bidez 1997/1995 Errege Dekretua aldatu zen; azken dekretu horrek Habitari buruzko 92/43/EEE Zuzentaraua zuzenbide espainiarrean txertatzen du, eta horren arabera, Natura 2000 Sareko espazioen batean zuzenean nahiz zeharka eraginez gero, eranskin bat egin behar da eraginpean hartutako espazioak eta sortutako eraginak deskribatzeko (ikus 5.8.9 idatz-zatia).

Alderdi juridiko-administratiboei dagokienez, jardun-eremuan aplikatu beharreko planak identifikatuko dira: dagokion Eskualde Egiturako Lurraldeko Zati Planak, Lurraldearen Arloko Planak (bereziki, Hezeguneena eta Kostaldearena), eraginpean hartutako udalerrietan indarrean dauden hiri-antolamenduko udal-plangintzak; eta tokiari esleitutako antolamenduko kategoria eta zonifikazio guztiak deskribatu behar dira.

Aldagai guztiei buruzko informazioa kartografia bidez aurkeztuko da, beharrezko iritiz gero. Azter-eremua handiagoa izango da jardueraren beraren ustiapen-eremua baino, eta gauzatuko diren jardun guzti-guztiak hartu behar ditu barnean. Lan-eskalari dagokionez, proiektuaren ezaugarrien eta aztertutako aldagaiaren arabera izango da, eta ez da komeni eskala berdina erabiltzea aldagai guztietan. Hori horrela izanik, aldagai bakoitzerako eskala hautatzeko garaian, ondorioak behar bezala balioesteko moduko definizio-maila kontuan izan behar da, eta behar izanez gero, eragin zuzenena izango duten alderdi garrantzitsuenak eta aldagaiak zehaztuko dira. Landa-

rediaren kasuan, eta gertuko espazio babestueak mugatzeko kasuan, lanerako eskala zehaztua erabiltzea komeni da (1:1.000 edo 1:2.000)

Ingurunearen balioespen orokorra egin behar da, interes bereziko balioak edo proposatutako soluzioetan kaltetuak izateko arriskuan dauden balioak nabarmenduta.

5.8.3.2. *Inpaktuak identifikatu, ezaugarritu eta balioestea*

Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlana dokumentu teknikoa da, diziplinartekoa, eta honako hau identifikatu, deskribatu eta balioesten du: erauzketa-ustategiak ingurumeneko elementuetan eragiten dituen efektu nabarmenak. Beraz, dokumentu bat da, eta horren bidez, errealitate objektiboa aurkeztu nahi da, proiektu jakin bat abiarazteak ingurunean zenbateraino eragingo duen jakiteko; horrela, bada, izan daitezkeen gorabehereri aurrea hartzeko tresna izan daiteke.

1131/1988 Errege Dekretuaren 10. artikuluari jarraiki, aurreikusitako inpaktuak identifikatu egin behar dira, proiektuan bildutako eta ingurune aldagaietan ondorioak eragin ditzaketek **ekintzen** eta aztertutako ingurumen-alderdien arteko elkarreraginaren arabera, betiere aztertutako aukera bakoitzaren kasuan.

Inpaktuak identifikatzea

Inguruneko elementu baten edo gehiagoren gain ingurumen-inpaktua eragiten duten jarduntzat hartuko dira proiektuaren honako jardun hauek:

- **Espazioaren okupazioa**; honako hauekin elkarreragiten du: produkzio-ahalmenarekin, landarediarekin, fauna eta horren habitatarekin, eta kultura-ondarearekin. Zenbait kasutan, espazio babestuekin ere elkarreragin dezake.
- **Landaredian sasi-garbiketak egitea**; honako hauekin elkarreragiten du: paisaiarekin, uren kalitatearekin, fauna eta horren habitatarekin, eta giza habitatarentzako ingurunearen kalitatearekin. Zenbait kasutan, espazio babestuekin ere elkarreragin dezake.
- **Lursaila prestatzea eta bankuak irekitzea**, hondeaketa, zulaketa edo leherketa bidez; honako hauekin elkarreragiten du: geomorfologia eta paisaiarekin, produktibitatearekin, uren kalitatearekin, landarediarekin, fauna eta horren habitatarekin, kultura-ondarearekin, eta giza habitatarentzako ingurunearen kalitatearekin. Zenbait kasutan, espazio babestuekin ere elkarreragin dezake.
- **Ibilgailuen eta makinaren presentzia eta funtzionamendua** (zulatzeko makina, hondeamakina eta kamioiak); honako hauei eragiten die: uren kalitateari, landarediari, fauna eta horren habitatari, atmosferaren kalitateari eta maila akustikoei, eta horren ondorioz, giza habitatarentzako ingurunearen kalitatea-

INPAKTUAK IDENTIFIKATZEKO MATRIZE EREDU TIPOA

INGURUNeko OSAGIAK	EGOERA KLIMATIkoa	GEOMORFOLOGIA	LURZORUAK ETA PRODUKzio AHALMENA	LUR GAINeko HIROLOGIA	HIDROGEOLOGIA	LUR GAINeko ETA LURPEKO UREN KALITATEA	UR HARTUNEAK ETA ERABILERAK	LANDARE ESTALKIA	FAUNA	FAUNARENtzAKO HABITATA	PAISAJA	GIZA HABITATA
PROIEKTUKO AGENTEAK / EKINTZAK												
Espazioaren okupazioa												
Landareen sasi-garbigeta												
Lursaila prestatzea eta bankuak irekitzea												
Ibilgailuen eta makinaren presentzia eta funtzionamendua												
Leherketak												
Materialaren tratamendua eta garraioa harrobian												
Kamioien joan-etorria harrobiaren kanpoaldean												
Banku irekien presentzia, baita ustiategiari loturiko azpiegiturena ere												
Ustekabeko isuriak												
Soberakinak sortzea												
Hondakinak sortzea												

- ri. Zenbait kasutan, espazio babestuekin elkarreragin dezake eta hondakinak sortzen ditu; hondakin horiek, aldi berean, gorde beharreko tokiaren ingurunean eragingo dute, modu batera edo bestera.
- **Leherketak;** giza habitatari eragingo diote zarata eta bibrazioak direla-eta, eta ondare historiko, arkeologiko eta arkitektonikoari bibrazioak direla-eta.
 - **Materialaren tratamendua eta garraioa harrobiaren barruan.** Jardun mota horrek bereziki giza habitatari, landarediari eta faunari eragiten die, zarata eta hautsa sortzen duelako. Uren kalitatea ere gutxitu egingo da, solido esekiak areagotu egingo direlako.
 - **Kamioien joan-etorria harrobiaren kanpoaldean;** honako hauei eragiten die: fauna eta horren habitatari, giza habitatarentzako ingurunearen kalitateari, eta bide publikoen egoerari.
 - **Banku irekien presentzia, baita ustiategiari loturiko azpiegiturena ere:** paisaiarengan eragiten dute.
 - **Ustekabeko isuriak:** lurzoruarekin, uren kalitatearekin eta faunarekin elkarrengaitzatzen dute.
 - **Soberakinak sortzea;** honako hauei eragiten die: geomorfologiari, uren kalitateari, landarediari, fauna eta horren habitatari, paisaiari, atmosferaren kalitateari eta maila akustikoei, eta horren ondorioz, giza habitatarentzako ingurunearen kalitateari. Zenbait kasutan, espazio babestuekin elkarreragin dezake.
 - **Hondakinak sortzea;** lurzoruari eta lur gaineko nahiz lurpeko uren kalitateari eragin diezaieke.

Inpaktuen ezaugarriak eta balioespina

Inpaktuak identifikatutakoan, inpaktu bakoitzaren ezaugarriak definitu eta balioetsi behar dira, berriz ere 1131/1988 Errege Dekretuaren 10. artikuluari jarraiki. Artikulu horretan, efektu positiboak eta negatiboak bereizteko gomendatzen da, aldi baterakoak eta iraunkorrak, sinpleak eta metakor nahiz sinergikoak, zuzenekoak eta zeharkakoak, itzulgarriak eta itzulezinak, berreskuragarriak eta berreskuraezinak, aldizkakoak eta modu irregularrean agertzen direnak, jarraituak eta etenak. Gainera, identifikatutako inpaktuak balioetsi eta hierarkizatu ere egin behar dira.

1131/1388 Errege Dekretuaren I. eranskinean honako kalitate edo ezaugarri hauek hartzen dira kontuan eta deskribatzen dira inpaktu bakoitzaren ezaugarriak definitzeko garaian:

- **Zeinua:** Aztertutako faktoreengan eragingo duten ekintzak mesedegarriak edo kaltegarriak izango diren esan nahi du. Inpaktu baten zeinua aurreikusteko modukoa izan daiteke, baina azterlan espezifikorik egin gabe, agian nekez zehaztekoa.
- **Iraupena:** Aldi baterako inpaktuak eta inpaktu iraunkorrak bereizten ditu.
- **Sinergia:** Ezaugarri horrek bi efektu simple edo gehiagoren errefortzua hartzen du barnean; beraz, inpaktu bakoitza simplea, metagarria edo sinergikoa izan daiteke.
- **Ekintza mota:** Ezaugarri hori kausa-efektua erlazioari dagokio, hau da, faktore baten gaineko efektu jakin bat nola adierazten den ekintza baten ondorioz. Efektu zuzeneko edo zeharkako efektuko inpaktuak bereizten dira.
- **Itzulgarritasuna:** Ekintzaren aurreko hasierako baldintzak berriz lor ote daitezkeen esan nahi du, betiere baliabide naturalen bidez, ekintzak ingurunean eragiteari uzten dionean; hartara, inpaktu bakoitza itzulgarria edo itzulezina izan daiteke.
- **Berreskuragarritasuna:** Ekintza amaitutakoan, neurri zuzentzaileen bidez, faktore jakin bat erabat edo partzialki leheneratu ote daitezkeen adierazten du ezaugarri horrek. Horren arabera, inpaktu berreskuragarriak edo berreskuraezinak izango ditugu.
- **Agertzea:** Efektua zenbateko maiztasunaz agertzen den esan nahi du, aldizka edo modu irregularrean.
- **Iraunkortasuna:** Inpaktuaren iraunkortasunari dagokio, eta jarraitua edo etena izan daiteke.
- **Inpaktuaren nolakotasuna:** Honako kontzeptu hauek hartzen ditu barnean:
 - Ingurumen Inpaktu **Bateragarria:** Jarduerari utzi eta berehala leheneratzen dena, praktika babesgarririk eta zuzentzailerik gabe.
 - Ingurumen Inpaktu **Mugatua:** Leheneratzeko praktika babesgarri edo zuzentzaile intentsiborik behar ez duena, eta hasierako ingurumen-baldintzak lortzeko epe laburra behar duena.
 - Ingurumen Inpaktu **Larria:** Ingurunearen egoera leheneratzeko babes-neurriak edo neurri zuzentzaileak egokitzea ezinbestekoa denean, eta neurri horiek hartuta ere, leheneratzeko epe luzea behar baldin bada.
 - Ingurumen Inpaktu **Kritikoa:** Atalase onargarriaren gaineko magnitudea duena. Ingurumen-baldintzak modu iraunkorrean galtzen badira, leheneratzeko aukerarik gabe, babes-neurriak edo neurri zuzentzaileak hartuta ere.

- Horretaz gain, inpaktuaren magnitudea edo garrantzia balioestea gomendatzen da, eraginpean hartutako inguruneko aldagai bakoitzaren jardunari ekin aurreko egoera eta osteko egoera alderatuta, eta honako hauek kontuan izanik: aplikatutako neurri zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programaren garapena; faktore horien guztien arabera, honako kategoria hauetakoren batean sailkatuko dira:
 - Garrantzirik gabea.
 - Garrantzi txikikoa.
 - Garrantzitsua.
 - Oso garrantzitsua.

Meatze-ustiapenetan gehien izaten diren inpaktuen artean, honako hauek aipatuko ditugu: paisaia-inpaktua, kutsadura atmosferikoa, hondakinak sortzea, ura eta energia kontsumitzea, urak kutsatzea eta ingurumen-arriskuak eragitea.

- Lurren balantzean desoreka.

Ustiategi motaren arabera, eta erauzitako materialari emandako erabileraren arabera, soberakinak sor daitezke eta zenbait kasutan, soberakin horiek hondakin geldotzat tratatu behar dira. Inpaktuaren ezaugarriak definitzea eta inpaktua balioestea soberakin horien xedearen arabera egin behar da; hau da, gordailu baimendu batean kokatzen ote diren, edo kokaleku berriren bat bilatu ote den soberakin horientzat. Azken kasu horretan, soberakin-gordailua aukeratzeko garaian *hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituen azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua* betetzen ote den.
- Hondakinak sortzea.

Edozein jarduera motak hondakinak eragiten ditu: langileek eragindako hiri-hondakin solidoak, edo geldoak, edo arriskutsuak. Erauzketa-jardueretan makina astunak erabili behar dira eta makinek olioak eta erregaiak behar dituzte; hortaz, makinaren hondakinak arriskutsuztat har daitezke. Erauzketa-jarduerak berak ere hondakineterako egokia ez den materiala eragin dezake eta material hori behar bezala kudeatu behar da. Sortuko den hondakin mota identifikatzea da kontua, eta hondakin horiek izango duten inpaktuaren ezaugarriak definitu eta balioestea.
- Geomorfologiaren gaineko eragina.

Mineralak erauzten direnean, erauzten den tokiaren geomorfologia aldatzen da; izan ere, bankuak eta ageriko azalerak zabaltzen dira, geometria berriekin. Inpaktuaren ezaugarriak definitzeko eta inpaktuak balioesteko garaian, proiektuaren ezaugarriak aintzat hartu behar dira, baita lursailaren egungo eta etorkizuneko itxuraren arteko aldea ere.

- Hegalen ezegonkortasun-arriskua gertatzea.
Mineralak erauztearen ondorioz, hegalen ezegonkortasun-arriskua areagotu egingo da, lursailaren aldapa naturalak aldatzen baitira. Arrisku hori gauzatu balitz, inguruen naturalaren beste zenbait aldagairen gain zeharkako eraginak sortuko lirateke, aldi berean; hona hemen: lur-galera, lur gaineko ur-lasterretan solido esekiak areagotzea, eta topografia aldatzea, baita paisaia ere, horren ondorioz.
- Lurzorua okupatzea eta nekazaritza-produktibitatea galtzea.
Erauzketa-jarduerak lursailak okupatzea dakar eta lursail horietan edozein landare mota gara daitekeenez, produktibitatea galdu eta desagertu ere egiten da. Eragin horren ezaugarriak identifikatu eta balioetsi egin behar dira, ahalmen agrológico handiko lurzorua zenbateko azalera kaltetu den arabera.
- Lurpeko uren kalitatea murriztea.
Erauzketa-jarduera gauzatzen den eremua akuiferoak kutsatzeko arrisku handiko urrakortasun-eremua baldin bada, ustiapenerako beharrezkoa den makineriaren hondakinak biltegitratzearen, makinen funtzionamenduaren eta, bereziki, mantentze-lanen ondorioz, lurpeko urak kutsa daitezke. Inpaktua honako hauen arabera izango da: sistemaren urrakortasun-mailaren arabera, eta ustiapenean ustekabeko isuriak gertatzeko aukeraren arabera.
- Iturburuen gaineko eragina.
Erauzketa-jarduera garatzen den eremuan iturburuak baldin badaude, kutsatzeko edo baliogabetzeko arriskuan egon daitezke. Iturburu horien erabilera leheneratzeko aukeraren arabera izango da inpaktua.
- Ur-lasterren morfologiaren gaineko eragina.
Erauzketa-jarduera garatzen den tokitik ur-lasterren bat igarotzen bada, desbi-deratu egin beharko da. Ur-laster berria birnaturalizatzearen arabera izango da inpaktua.
- Lur gaineko uren kalitatea murriztea.
Atari zabaleko ustiategi batek eragin dezakeen inpakturik garrantzitsuenetako bat da. Lur gaineko uren kalitatea murriztea dakar; izan ere, ustiapen-eremutik igarotzen diren isurketa-uretan solido esekien edukia nabarmen areagotzen da, eta neurri zuzentzaile egokirik hartu ezean, urak isurtzen diren arroara iritsiko dira. Era berean, isurialde horretako urak kutsatu daitezke ustiategian erabiltzen diren makinek behar dituzten olio eta hidrokarburoen ondorioz. Inpaktua honako honen arabera izango da: drainatze-sarearen ezaugarrien arabera, eta ustiapen-proiektuan sartutako solidoak atxikitze neurrien arabera.

- Landare-estalkia desagertzea.

Erauzketa-jarduerak okupatuko duen eremuan garatzen den landaredia ezabatu egin behar da. Inpaktuaren ezaugarriak eta balioespena honako hauen arabera izango da: okupatuko den azalera guztiaren arabera, eraginpean hartutako landaredi-unitateen arabera, eta unitate horien ugartasunaren arabera, tokian, eskualdean eta autonomia-erkidegoan.

- Landare-estalkian partikulak txertatzeagatiko eragina.

Materiala leherketa eta zulaketa bidez erauziz gero, hautsa sortzen da, eta horren ondorioz, landare-estalkiaren hostoen gainean partikulak txertatzen dira. Inpaktu horren ezaugarriak eta balioespena honako hauen arabera izango da: kaltetutako landareen balioaren (naturalistikoa, basokoa edo nekazaritzakoa) arabera eta emisio-puntuetako hautsa harrapatzeko sistemen eraginkortasunaren arabera.

- Fauna desagertzea zuzenean.

Erauzketa-jardueraren ondorioz, ibilgailuen presentzia eta funtzionamendua sortzen da, baita kamioien joan-etorriak ere; beraz, fauna harrapatu eta zuzenean desagertu egingo da, eta bereziki, mugitzeko ahalmen txikieneko espezieak: anfibioak, narrastiak eta mikrougaztunak. Kasu kasu, gerta daiteke hegaztiengan ere zuzenean eragitea, ustiategiaren eraginpean geratu den eremuan habiak, arrautzak edo txitak suntsitzeagatik. Inpaktuaren ezaugarriak eta balioespena honako hauen arabera izango da: ustiapen-sistemaren arabera eta eremuan dauden espezieen balioaren arabera.

- Habitataren kalitatea murriztea faunarentzat.

Mineral-erauzketak eragindako jardunen eraginez, habitataren kalitatea murriztu egingo da faunarentzat, lehenik, landare-komunitateak desagertuko direlako, eta bigarrenik, leherketen, indusketen eta ibilgailu eta makinaren joan-etorrien ondoriozko zarata, bibrazio eta atmosferarako emisioek nahasmendua eragingo dutelako. Inpaktuaren ezaugarriak eta balioespena honako hauen arabera izango da: ustiapen-sistemaren arabera eta eremuan dauden habitaten balioaren arabera.

- Espazio babestuen edo interes naturalistiko handiko espazioen gaineko eragina.

Erauzketa-jardura batek espazio babestu baten edo gehiagoren gain zuzenean edo zeharka eragiten badu, eragin hori honako hauen arabera izango da: espazioaren zein balio mota kaltetzen den, eta espazio horren osotasuna arriskuan ote dagoen.

Natura 2000 Sareko espazio baten gain eragiten bada, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanari eranskin bat gehitu beharko zaio, eragin hori modu espezifikoa balioesteko (ikus 4.2.3 eta 5.8.9 idatz-zatiak).

5.8.4. Ingurumen-efektu esanguratsuak murriztu, ezabatu edo konpentsatzeko aurreikusitako neurriak

Babes-neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio-neurrien helburua honako hau da: erauzketa-jarduerak ingurunearen elementuen gain eragindako efektu negatiboen prebentzioa eta efektu horiek arindu, minimizatu, ezabatu edo konpentsatzea.

Zenbait neurri jarduera-proiektuaren diseinuan txertatu behar dira, jardueraren hasiera-hasieratik kontuan izate aldera; beste zenbait neurri beranduago aplikatuko dira, jarduera amaitutakoan, eraginpeko ingurunearen jatorrizko baldintzei eutsi edo baldintza horiek leheneratzeko asmoz.

5.8.4.1. *Lan Plana*

Ustiapenak irauten duen bitartean, Lan Planak idatzi behar dira urtero; plan horietan, denbora-tarte horretarako aurreikusitako jardunak bildu eta deskribatu behar dira. Lan Planean, leheneratzeari dagozkion faseak gauzatzeko aurreikuspenak ere txertatu behar dira, ustiapen-proiektuarekin batera doan leheneratze-planari jarraiki. Hartara, ustiapenaren gauzatzea eta leheneratze-zereginen gauzatzea behar bezala sinkronizatzen direla bermatuko da. Horretarako, arreta berezia emango zaie, gutxienez, honako alderdi hauei:

- Zona bakoitzeko leheneratzea berehala egiten dela ziurtatu behar da, bankuak behin betiko egoerara iritsi ahala. Beraz, banku baten errematearen eta banku horren leheneratzearen artean ahalik eta denbora gutxien igarotzen dela ziurtatu behar da.
- Jardunak egokitu egingo dira, sasoi bakoitzean behar diren landare-lurraren eta esterilen kantitateak eskuragarri daudela bermatze aldera.
- Lanak planifikatzeko garaian, lan hori gauzatzeko urteko sasoirik egokienean egiten dela ziurtatu behar da; bestela esateko, landaketak egiteko geldialdi begetatiboko hilabeteak, eta udazkena eta udaberria ereintza eta hidroereintzarako.
- Erauzketa-jarduerak aurrera nola egiten duen eta jardueraren fisiografia kontuan izan behar dira, birlandatzeko zonetarako sarbidea bermatuta lanak gauzatzeko garaian.
- Landaredia zaintzeko urtean zehar egin beharreko gainerako jarduerak aurreikusi eta sartu behar dira; hala nola, inausketak, ongarritzeak, ureztatzeak, hutsarteak betetzea, eta abar.

«Aire zabaleko lanak: Ingurumen-baldintzak: Hautsari aurre egiteari» buruzko 07.1.04 Jarraibide Tekniko Osagarria 19991ko urriaren 16ko Aginduaren bidez onartu zen. Jarraibide horren arabera, aire zabaleko erauzketa-industriek eta minera-lak, agregakinak eta harri industrialak tratatu, prozesatu, manipulatu eta biltegi-ratzeko instalazioek memoria bat gehitu behar diote Lan Planari, eta memoria horretan honako datu hauek bildu behar dituzte: makineria finko eta mugikorrean hautsari aurre egiteko ekipoak; hautsa neurtzeko zein gailu erabili diren; hautsa murriztu, diluitu, jalki eta ateratzeko erabilitako sistema eta baliabideak; aurreko urtean ITC horren 2. idatz-zatiari jarraiki egindako neurketen emaitzak; eta azken urtean pneu-mokoniosia diagnostikatutako langileen izen-zerrenda, gaixotasunaren maila ere ze-haztuta.

5.8.4.2. *Jardunak mugatzea*

Zedarriztatuz gero, erauzketa-jarduerako ustiategiaren mugak bisualki defini-tuko dira; hartara, erauzketa-erabileretarako baimendutako eremutik kanpoko lursai-letan sartzea saihestuko da, eta horren ondorioz, baita ingurunearen edozein aldagai-ren gain (landaredia, fauna, espazio babestuak, ondarea, eta abar) inpaktu berriak sortzea ere.

5.8.4.3. *Airearen kalitatea babesteko neurriak*

Erauzketa-jardueren ingurumen-eragin nagusietako bat honako hau da: partiku-len emisioak eragindako kutsadura atmosferikoa sortzeko potentziala. Jardueraren ondorioz airearen kalitatean sor daitezkeen eragin nagusiak bi dira:

- Aire kutsatzea makinaren motorretako karburaziotik datozen gas-emisioengatik.
- Aire kutsatzea partikula esekiak edo hautsa botatzeagatik.

Makinaren jarduerak eragindako gas-emisioei dagokienez, erauzketa-jardue-retan honako makina hauek aritu daitezke lanean: orga zulatzailea beldar-ibilgailuen gainean, konpresoreak, pala kargatzailea, atzerakako hondeamakina eta dumperra.

Gas-emisioak minimizatze aldera, **makinak egoera tekniko egokian izatea** bermatu behar da. Horretarako:

- Ibilgailu guztiek Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egunean izan behar dute.
- 1995 baino lehenagoko makinak izanez gero, honako arau hau bete beharko dute: *uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua, lan-ekipoetako langileek erabili behar dituzten gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.*
- Gainerako makinaren kasuan, azterketarik egin behar ez dutenek fitxa teknikoak legearen arabera izan beharko dituzte.

Atmosferarako hauts-emisioak izaten dira meatze-jardueraren eragin garrantzi-tsuenetako bat. Emisio horiek kontrolatzeko, ustiapen-prozesuaren barruko emisio-puntu guztiak behar bezala identifikatu behar dira, **atmosferarako hauts-emisioak murrizteko neurriak** behar bezala aplikatzearen; hain zuzen ere, honako neurri hauek:

Errodadura-azala ureztatzea: Ibilgailuen trafikoa, kamioiak harrobian sartu eta ateratzean sortzen baitira eragozpen handienak. Makina mugikorren eta zamalantarako kamioien joan-etorrietan, baita haizearen eraginez ere, hauts gutxiago sortzeko, uraz ureztatuko da. Ureztatzearen maiztasuna klimatologiaren eta jardueraren intentsitatearen arabera finkatuko da, eta urtaro lehorrean areagotu egin behar da, baita egun haizetsuetan edo joan-etorriak bereziki ugariak diren unetan ere.

Instalazioetako sarbideetan mantentze-lanetako eta garbiketako zereginak al-dizka egin behar dira, hautsa ahalik eta gutxien sakabatzeko; horrekin batera, ibilgailuen abiadura ere murriztu behar da.

Jarduerako langileei prestakuntza eman behar zaie ustiatzearen ezarritako hautsa murrizteko sistemei dagokienez, eta bereziki, jardueraren eta klimatologiaren arabera, beharrezko tokietan ureztatze-sistemak aktibatzeari dagokionez, baita gurpil-garbiketako sistemaren erabilerari dagokionez ere.

Pistak asfaltatzea: Pista jakin batzuk asfaltatzeko premia aztertuko da, eta horrela, hein handian hautsa sortzea saihestuko da.

Partikulak sakabatzeko sistemak: Birrintzeko eta bahetzeko makinek partikulak sakabatzeko sistemak izan behar dituzte. Mahuka-iragazkiak oso eraginkorrak dira, eta partikulak sakabatzeko sistemak saihesten dute. Sistema horren mantentze-lanak oso sinpleak dira, bera bakarrik garbitzen baita. Iragazkiak bereizitako finak berriz erabil daitezke. Hautsa sortzen duen beste puntu kritiko bat bahea da; bahean, materiala tamainaren arabera bereizten da, eta onartutakoa baino neurri handiagoko materiala birringailura eramaten da. Elementu hori estalpeko tokiren batean kokatu behar da.

Ahalik eta hauts gutxien sortzea materiala garraiatzean; uhal garraiatzailearen bidez materiala garraiatzeko garaian hautsik ez sortzeko, zera egin daiteke:

- Uhal garraiatzailea lurpean kokatzea ibilbide osoan.
- Uhal garraiatzaileari estalkia ezartzea ibilbide osoan.

Horretaz gain, karga-habearen kalapatxan aspertsore edo ihinztargailuen sistema bat egongo da eta kamioi bat kargatzen den bakoitzean martxan jarri beharko du, materiala hezetuz eta ekintza horretan hautsik sortzea saihestuz. Sistema hori

eraginkorra dela egiaztatu da, eta oso garrantzitsua da, hauts-hodeiak sortzea saihestearren.

Ahalik eta hauts gutxien sortzea zulaketa eta leherketetan,

- Zulaketetan ingurune hurbilari eta langileei ere eragiten zaie zuzenean; horrela, bada, zulaketak lehorrean egin behar dira eta zulatzeko makinak hautsa harrapatzeko sistema bat izan behar du. Bildutako hauts hori plastikozko zakuetan metatuko da eta zakuak betetakoan itxi egingo dira. Hauts hori buztinaz nahas daiteke, eta leheneratzean betelanerako materialtzat erabili. Horretaz gain, langileek babes indibidualako ekipoak izango dituzte (maskarak, eta abar).
- Leherketetan, lehegaiaren eraginez harria hautsi eta jaurtitzen denean sortzen da hautsa (eragina zirkunstantziala eta aldi baterakoa da), eta hauts hori murriztu daiteke bankuetako gainazaletik zulaketa-detrituak kenduz gero eta material pikorduna erretakaturako erabiliz gero.

5.8.4.4. *Kalitate akustikoarekin loturiko neurriak*

Hona hemen zarata eragiten duten foku nagusiak:

- Leherketak.
- Zulaketak.
- Material-mugimenduak, makinen funtzionamendua, eta dumperretako zalamanak.
- Ustiategiaren barruko ibilgailuen trafikoa.
- Materiala birrindu eta prozesatzeko planta.
- Material prozesatua kargatzeko zona.

Sortutako zarataren hartzaileei dagokienez, honako hauek izango ditugu kontuan:

- Ustiategiko langileak. Langileek segurtasuneko eta osasuneko neurri jakin batzuk bete behar dituztenez, inpaktu hori arindutzat har daiteke. Hona hemen zenbait neurri: zarata-iturriaren eta hartzailearen artean distantzia nahikoa izatea, eta langileak babesteko kasko aurikularrak erabiltzea.
- Ustiategitik gertuko baserrietako bizilagunak.
- Inguruneko basa-fauna.

Zarata murrizteko erabiltzen diren neurri zuzentzaileen bidez, inguruneko inpaktu akustikoa murriztu nahi da, langileen lan-baldintzak hobetu, eta eraginpean har-

tutako biztanleriaren kalitate akustikoko helburuak betetzea. Hona hemen zenbait neurri, besteak beste:

Lan-ordutegia mugatzea: Bizilagunen atsedenaldiei eragozpenik ez sortzearen, erauzketa-jardueraren ordutegia egunez soilik izango da, 08:00etatik 20:00etara.

Agregakinak prozesatzeko makinak estaltzea: emisio akustiko gehien eragiten duen puntuetako bat materiala prozesatzeko puntua da, bereziki birringailua eta bahea martxan daudenean. Zaraten intentsitatea leundu eta kanpoaldeko eragina minimizatzearen, bi prozesu horiek etxolen barruan egin beharko lirateke.

5.8.4.5. *Bibrazioak minimizatzeako neurriak*

Bibrazioak minimizatze aldera, leherketak atzerapen txikiko detonagailuekin has daitezke.

5.8.4.6. *Babes-neurriak leherketetarako*

Leherketak honako jarraibide honi jarraiki egingo dira: *ITC-10.0.01 jarraibidea, Lebergaien Arau Orokorrei buruzkoa*.

Leherketak egin aurretik, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar da inguruko baserrietan. Leherketek irauten duten bitartean, harrobiko langileek harrobira sartzeko errepidea eta pistak itxi egin behar dituzte.

5.8.4.7. *Sasi-garbiketekin eta landare-lurraren kudeaketarekin loturiko neurriak*

Sasi-garbiketei eta landare-lurraren kudeaketari dagokienez, honako hau proposatu da:

- Sasi-garbiketak eta landare-lurra substratua leheneratzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, landare-bizitzaren oinarri izango den substratua, leheneratzearen barruan tratatu beharreko azaleretan.
- Aurretiazko jardun gisa, **landare-lurraren geruza modu selektiboan kenduko da** jardueraren eraginpeko azalera guztian, baita aldi baterako obra-instalazioak kokatuko diren tokietan, bigarren mailako errepideetan edo materialen aldi baterako metaketen zonetan ere. Sasi-garbiketa egiteko garaian, landare-lurra ez da nahastuko beste ezein materialekin (indusketa-lurrekin edo bestelakoekin).
- **Erauzitako landare-lurra** Obra Planean horretarako definitutako zonetan **metatuko da**; harrobiaren jarduerari eragozpenik ez egiteko zenbait puntu definituko dira, baita intereseko landaredirik edo ongi garatutako landaririk gabeko malda gutxiko eremuak ere. Egoera egokian izan behar da, obren era-

ginpeko eremuak leheneratu eta birlandatzeko garaian berriz erabili behar den arte, gehienez 2 m-ko altuerako metaketetan. Birlandatzeko, leheneratzean erabiliko diren espezie berdineko haziekin erein behar dira, higadura edo materia organikoa galtzea saihesteko.

- **Landare-lurra babestea trinkotzetik eta kutsaduratik;** horretarako, makinak landare-lurraren metaketen gainetik ibiltzea debekatuta egongo da. Kalte-arriskurik atzemanaz gero, metaketa-zona hesiz edo zedarrituta markatuko da, babeste aldera.

5.8.4.8. *Konpostajea*

Sasi-garbiketak egiteko garaian materia begetala (adarrak, enborrak, zuhaixka-landarediaren hondakinak...) sortuz gero, modu selektiboan bilduko da beste materialekin (harriak edo lurra) nahastu gabe, eta birrindu eta metatu egingo da, konposta egiteko.

Aurreikusitako mantentze-lanetan (ustiategitik gertuko zonetako inausketak, garbiketak eta sasi-garbiketak) ere hondakin begetalak sortzen badira, prozesu bera jarraitu behar da.

5.8.4.9. *Lur gaineko eta lurpeko urak babesteko neurri orokorrak*

- Ibilgu publikoan isurketarik izanez gero, edo lurpeko akuiferoetan kalterik eraginez gero, Ura - Uraren Euskal Agentzian isurtzeko baimena eskatu behar da.
- Mantentze-lanetarako eta makina-parkearen zona eremu estalian egongo da, eta hormigoizko zolata izan beharko du, lurpeko urei kalterik ez eragitea eta iragazgaitasuna bermatze aldera.
- Hondakinak gaika eta segurtasun-baldintzetan biltzeko Puntu Garbia estalpean egongo da, eta lurzorua iragazgaitza izango du.
- Hondakin arriskutsuak dagozkien bidoietan bilduko dira, behar bezala etiketatuta, eta bidoi horiek erretentzio-kubetoen gainean egongo dira; hartara, ustekabeko isurketarik izanez gero, erretentzioa bermatuta dago eta kutsatzaileak ez dira sakabanatuko.
- Era berean, makinak prest jartzeko behar diren olio garbiak ere erretentzio-kubetoen gainean biltegitratuko dira.
- Olio erabiliak pareta bikoitzeko segurtasun-gordailuetan bilduko dira.

Sistema horien funtzionaltasuna bermatzeko, Jardunbide Egokiak bete behar dira; hona hemen jardunbide horiek:

- Makina mugikorren **mantentze-lanetako eta konponketako** operazioak eremu estalian egin behar dira, eta hormigoizko zolata izan beharko du, lurzoru iragazgaitza izan dadin bermatzeko, iragazketak saihestuta. Makinetan mantentze-lanak edo olio-aldaketak egiteko, horretarako aurreikusitako eremuak erabili behar dira; eremu horietatik kanpo ezin dira egin.
- Sortutako olio erabiliak bildu eta biltegitatu egingo dira, kudeatzaile baimendu bati emateko. Olio horiek biltegitatzeko, tailerraren barruan horretarako ezarritako bidoia erabili behar da. Zona hori estalia eta iragazgaitza izango da (**puntu garbia**). Olio berriak segurtasun-kubetoen gainean metatuko dira, ustekabeko isuririk izan ez dadin. Hondakin arriskutsuak ez dira metatuko puntu garbiko zonetatik kanpo.
- Substantzia kutsatzaileen **ustekabeko isuri** edo **jarioen bat** izanez gero, lehenbailehen bildu behar da, xurgatzaile espezifikoak erabilia (esaterako, sepiolita). Zikindutako materiala hondakin arriskutsutzat hartu eta kudeatuko da.

5.8.4.10. *Lur gaineko urak babesteko neurri espezifikoak*

Langileen dutxa eta komunetatik, nahiz erauzketa-jarduerako **instalazioetatik datozen hondakin-uren tratamendua** indarreko legediaren arabera egin behar da.

Hornidurako ur-kontsumoa minimizatzea eta baliabideak ahalik eta gehien baliatzea. Honako proposamen hauek egin dira: alde batetik, euri-ura biltzea, erauzketa-jardueraren premiaren baterako erabili ahal izango baita (hautsa gutxitzeko ureztatzetean, eta abarretan); eta bestetik, prozesuan urak berrerabiltzea, beharrezko dekantazio- eta iragazketa-sistemetatik igaro ostean.

Ur-lasterrak babestea. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatuzeko Lurraldearen Arloko Plana erabat betetze aldera, aplikatu beharreko atzerapenak definituko dira. Banda horren barruan, LAPean barne hartutako erabilerak errespetatuko dira, eta ez da ezein material metatuko.

Kasuan kasu, beharrezko iritzitako tokietan, eta instalatzeko nahikoa toki izanez gero, **luzetarako langa bat** ipiniko da, **lastozko plaken bidez iragazi eta jalkitzeko.**

Gurpilak garbitzekoa eraikitzea; bide publikoak lokatuz gero, bide-segurtasuneko arazoak sor daitezke eta gainera, ur-lasterretako uren kalitatean ere ondorio negatiboak izan ditzake; hori guztia saihesteko, kasu jakin bakoitzerako gurpil-garbitzeta sistema egokiena diseinatu behar da, erauzketa-jarduerako eremutik errepide-ateratzen diren ibilgailu eta kamioi guztiak garbiak daudela bermatzeko. Gurpil-garbitzeta sistematik datozen urak tratatu egin behar dira; hain zuzen ere, ustiatze-irako hautatuko dekantazio-sisteman.

Euri-urak eta ustiapen-eremua zeharkatzen duten urak bereizteko **drainatze-sarea** egin behar da. Erauzketa-jardueraren mugan, areka perimetrala diseinatuko da; isurketa-urak bilduko ditu eta ur horiek ustiategiaren azaleratik barrena igarotzea saihestuko du, baita solidoak herrestan eramatea ere.

Dena dela, harrobiko isurketa-urek solidoen eduki handirik har ez dezaten, **dekantazio-sistema** bat (dekantazio-putzua, orrizko iragazkiak, eta abar) ezarri behar da, hidrokarbuo-iragazki bati konektatuta, eta kutxatila eta guzti; kutxatila hori laginak hartzeko tokia izango da, aztertzeko.

Dekantazio-putzua aukeratuz gero, *dimentsionatu egin behar da, diseinua optimizatuta*, solido eseki asko dituzten ur-isurketak gertatzeko arriskurik izan ez dadin; kalkulaturako emarietarako diseinatuko da, kalitatezko helburuak ezarrita, betiere ur gordinek dituzten solidoen granulometriaren arabera. Eraginkortasuna areagotzeko teknikak txertatuko dira, baita sistemaren garbiketako eta mantentze-lanetako zereginak erraztuko dituztenak ere (deflektoreak eta garbiketa-balbulak). Dekantagailu berria dimentsionatzeko, honako datu hauek izan behar dira kontuan:

- Urteko gehieneko prezipitazioak.
- Ekarpen-arroa.
- Kontzentrazio-denbora.
- Dekantatu beharreko urek izango dituzten solidoen granulometria.

Dekantazio-helburu bat ezarriko da, honako hau kontuan izanik: dekantazio-abiadura partikulen tamainaren arabera delatuta, eta aurreko gutzia oinarri hartuta, dekantagailuaren beharrezko bolumenaren kalkulua egingo da (Stokes-en Legea, $V = Q \cdot T_R$), baita dekantazio-azaleraren kalkulua ere; horren ondorioz, dimentsio ego-kienak aterako dira (luzera / zabalera erlazioa = 1.5 – 7.5, luzera / sakonera erlazioa = 4 – 35). Dekantagailua eraikitze materialak eta non kokatu behar den zehaztu behar da.

Beste aukera bat orrizko dekantazioa da. Hainbat abantaila eskaintzen ditu: orrizko fluxua, dekantazio-tangen dimentsioak nabarmen murriztea (jalkitze-eremuak ugaritzen direlako), eta dekantazio-tangen eraginkortasuna areagotzea (dekantazio-eremua 15 aldiz handitzera ere irits daiteke). Orrizko iragazkiaren behin betiko kokapena eta ezaugarriak finkatu behar dira. Orrizko iragazkiak prentsa-iragazki bat (edo antzekoa) badu lokatzak konpaktatzeko, hondakinen bolumena asko murriztuko litzateke eta zabortegirako garraio-kostuak ere merkatuko lirateke. Neurri osagarriak har daitezke; hala nola tratamendu-sistema gehigarriak (koagulazio / malutapena). PH-aren maila handiak atzematen badira, azidosifikatzaile bat ipintzeko aukera aztertu behar da, zunda eta irabiagailua barnean

hartuta. Orrizko iragazkiaren funtzionamendua eraginkorra izan dadin bermatzeko, koagulatzailearen eta malutatzailearen dosi egokia kalkulatu da eta beharrezko mantentze-lanak egingo dira.

5.8.4.11. *Hondakinak kudeatzea*

Hondakinak eta horiek ezabatzeko zailtasunak arazo bihurtu dira; eta ez okupatzen duten espazioagatik soilik, baizik eta baita eragiten duten kutsadura-arriskuagatik ere. Hondakinak ezabatzeko, bota, erraustu, konpost bihurtu, eta abar egin daitezke, baina beti kostu bat eragiten du, eta kostu hori norbaitek hartu du bere gain. Ustiategian sortutako hondakin bakoitzaren ezaugarriei erreparatuta, kudeaketa-bide bat edo beste erabiliko da. Lehen urratsa identifikatzea da, hau da, sortutako hondakin guztiak eta bakoitza identifikatzea, nola kudeatu zehaztu ahal izateko.

Hondakin gutxiago sortzeko, eta hondakin horiek eragiten dituzten arriskuak minimizatzen, hainbat prebentzio-neurri hartzea komeni da. Neurri horiek filosofia honetan oinarritzen dira: «**murriztu, berrerabili eta birziklatu**». Hondakinak murrizteko ahalegina egin behar da, behar ez dena ez kontsumituz, beharrezkoak ez diren bilgarriak saihestuz, behin baino gehiagotan erabil daitezkeen produktuak erabiliz, eta ahalik eta hondakin gutxien eragiten duten produktuak kontsumituz. Era berean, berriz erabili edo itzuli daitezkeen produktuak erabili behar dira, baita birkargatu daitezkeenak ere. Gaikako bilketaren bidez bereizi daitezkeen produktuak hautatu behar dira, eta ahal dela, material birziklatuz egindakoak.

Hona hemen hainbat proposamen **esterilak kudeatzeko**:

- Berreskuratzea, harrobia leheneratzeko garaian ezpondak naturalizatzen.
- Balioestea, azpiegituretan, obra zibilean edo eraikuntza-obretan erabiliz, egiturazko material gisa, betegarri gisa, egonkortzeko, eta abar. Agregakinak birrintzeko plantan alde zurretik tratatuta edo tratatu gabe.
- Gaur egun, esterilak kudeatzeko beste hainbat ildo ikertzen ari dira; ikerketa horien ondorioz berrerabiltzeko, birziklatzeko edo balioesteko aukera berriak sor daitezke.
- Instalazio baimendutan botatzea. Hondakindegia edo soberakin-gordailuek honako arau hauek bete behar dituzte: 423/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituena (239. EHAA); eta 1995eko otsailaren 15eko Foru Agindua, hondakin inerteen eta/edo inertizatuen isurtegien, lurren beteketen eta egokiketen instalazioei buruzko proiektu tekniko eta azalpen-memoriei buruzkoa.

Lohiak kudeatzea; ebaketako eta zerraketako prozesuetatik datozen lohiak kudeatzeko, prentsa-iragazkiak eta/edo lehortzeko eremuak proposatuko dira, hezetan-maila gehienez % 30era murriztearren. Horren ondoren kudeatu egingo dira.

Hondakin inerte edo geldoak kudeatzea; hondakinak bereizita bildu behar dira, edukiontzi espezifikoetan, eta kudeatzaile baimendu espezifikoetara entregatuko zaizkie, aldizka.

Hondakin arriskutsuak kudeatzea; bereizita bilduko dira Puntu Garbian. Hondakin arriskutsuen mota bakoitzeko bidoi bana izango da, errotulu eta guzti. Hondakin arriskutsuak (HA) biltegiatzeko bidoiak estalpean egongo dira, eta horretaz gain, erretentzio-kubetoen gainean ipini behar dira, isurien aurrean segurtasun handiagoa izate aldera.

Erauzketa-jarduera garatzen duen enpresak Hondakin Arriskutsuen Sortzaile Txikien Erregistroan alta emanda egon beharko du.

Hondakin arriskutsuei dagokienez, honako arau hauek bete behar dira: *10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa, hondakinei buruzkoa;* eta *259/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioen kudeaketari buruzkoa.*

Substantzia toxiko edo arriskutsuren bat ustekabea isuriz gero lursail iragazkor batean, substantzia eta zikindutako lurrak bildu behar dira, lehenbailehen, iragazketarik izan ez dadin. Lur kutsatuak Kudeatzaile Baimendu batek kudeatuko ditu.

Zaborrak; behar adina edukiontzi ipiniko dira langileentzat. Instalazioetan, hiri-hondakinak gaika biltzeko edukiontziak ipini behar dira.

5.8.4.12. *Landaredia babesteko neurriak*

Solido esekien emisioak murrizteko neurrien bidez, inguruneko landaredia babestuko da; hain zuzen ere, hostoen gainean jalkitzen den hautsaren aurrean babestea lortu nahi da, landareen fisiologia aldatzen baitu.

Zedarriztatzea; ustiategiaren ertzean dauden landareak babesteko balio du (ikus 5.8.5.2 idatz-zatia).

5.8.4.13. *Fauna babesteko neurriak*

Landaredia eta uren kalitatea babesteko neurriak, eta zarata eta bibrazioak minimizatzekeo neurriak fauna babesteko ere egokiak izango dira (ikus aurreko idatz-zatiak).

5.8.4.14. *Kultura-ondarea*

Balitzko arkeologiagune bat eraginpean hartuz gero, «Zundaketa Arkeologikoaren Proiektua» egin behar da; proiektu horretan, elementuaren dokumentazioa bildu behar da, baita esku-hartze arkeologikoaren plana ere, hain zuzen eraikina erabat eraitsi ostean

egin beharreko esku-hartzearena. *Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen* arabera, ustiategiaren titularrak azterlan bat aurkeztu behar du balio arkeologikoari buruz eta balio horrek ustiategia lortzeko garaian izan dezakeen eraginari buruz.

Intereseko ondare-elementuak eraginpean geratuz gero, eta elementu horiek ez badaude babestuek, *Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeari* eta arlo horretako agintari eskudunei jarraiki jardun behar da beti.

Ustiapena martxan jarritakoan, gerta daiteke zenbait elementu aurkitzea, eta elementu horiek material arkeologikoa egon daitekeela susmaraztea; kasu horretan, jarduera geldiarazi egingo da eta dagokion Foru Aldundiko Kultura Departamentuari jakinarazi behar zaio lehenbailehen, neurri egokiak hartzeko.

5.8.4.15. *Zerbitzuen jarraitutasuna eta irisgarritasuna*

Ustiapen-plana eta sarbideen diseinua lantzeko garaian, eraginpean gera daitezkeen zerbitzu eta irispide guztiek martxan jarraituko dutela bermatzeko moduan egin behar da. Horretaz gain, bideen jarraitutasuna eta etxebizitza, lantoki eta lurzati guztietarako irisgarritasuna ziurtatu behar da.

5.8.4.16. *Instalazioak eraistea*

Baliabidearen ustiapena amaitutakoan, erauzketa-jarduerako instalazio guzti-guztiak eraitsi behar dira. Arreta berezia eman behar zaio instalazioak aldezturik deskontaminatzeari; hartara, substantzia kutsatzaileen elementu eta hondakin guztiak berezita jasoko dira, eta hondakin arriskutsu gisa kudeatu, motaren arabera.

5.8.4.17. *Paisaiaren integrazioa*

Ustiategia diseinatzen garaian, paisaiaren gaineko inpaktua ahalik eta txikiena izateko ahalegina egin behar da, eta landare-pantailak ipintzea proposatuko da, harrobiaren eta harrobiko instalazioen irisgarritasun bisuala murrizte aldera.

Erauzketa-jarduerak kaltetutako naturguneak leheneratzeko betebeharra ezartzen duten 2994/82 Errege Dekretua eta 115/2000 Dekretua betez, ustiapen-proiektuari Leheneratze Plana erantsi behar zaio, harrobiaren eraginpeko eremu guztien (baita zaborteak eta sarbideak ere) leheneratzea barnean hartuta. (Ikus 5.7 idatz-zatia).

5.8.5. **Ingurumena Zaintzeko Programa**

Proposatutako Ingurumena Zaintzeko Programa bat dator Proiektuarekin eta Ingurumen Inpaktuari buruzko Azterlanarekin, eta proiektuaren faseen arabera egituratuko da: Ustiapen-fasea eta Bertan behera uzteko fasea; fase bakoitzean hainbat jarduera proposatu dira.

Kontrolatu beharreko faktore bakoitzerako **kontrol-metodologia** bat zehaztuko da eta metodologia horretan honako hauek finkatu behar dira: **kontrol-parame-troak**, **laginketa-puntuak** eta **gauzatze-maiztasuna**, baita **muga-balioak** edo **atalase-balioak** ere; balio horiek gaindituz gero, **neurri zuzentzaile osagarriak** abiaraziko dira eta neurri horiek ere adierazi behar dira.

Ez dugu ahaztu behar ingurumena zaintzeko programa horrek aldaketak jasan ahal izango dituela, araudi berria jartzen bada indarrean edo tartean sartutako sistemen egi-turari edo funtzionamenduari buruzko ezaguera berri nabarmenei egokitu beharra ba-dago. Halaber, proiektuaren sustatzaileak eskatuz gero edo ofizioz ere aldatu daiteke, ingurumena zaintzeko programatik bertatik ateratako emaitzen ondorioz.

Ustiapenak irauten duen bitartean eta jarduera ixten ari den bitartean, **ingurume-neko asistentzia teknikoa** izango da. Nolanahi ere, eta sortzen diren premien arabera, instalazioetako presentzia aldatu egingo da. Era berean, Autonomia Erkidegoko ingu-rumen-erakunde eskudunak eskatutako txosten guztiak egiten direla egiaztatu behar da, proposatzen diren aldaketei edo aldaketen jarraipena egiteari dagokienez; inguru-men-inpaktuarekin loturiko edozein gorabehera erregistro-liburuan jasota geratzen dela baieztatu behar da, neurri zuzentzaileen betetze-maila eta betetze-baldintzak ze-haztuta, baita Ingurumena Zaintzeko Programa osatzen duten analisi guztien emaitzak ere. Erregistro horretan, eranskin gisa, ingurumen-aholkularitzaren txostenak bildu be-har dira, eta ingurumen-organo eskudunak ikuskatzeko eskuragarri egon beharko dute. Kasuan kasu, proiektua gauzatzerakoan egindako aldaketa puntualak zehatz-mehatz jaso behar dira, ingurumen-eraginaren ikuspegitik justifikatuta. Gai horiekin guztie-kin loturik jardueraren obra-zuzendaritzak erabakiren bat hartu behar izanez gero, ingurumen-aholkularitzak txostena egin ostean hartu beharko du.

5.8.5.1. *Ustiapen-fasea*

Airearen kalitatea kontrolatzea

1073/02 Errege Dekretuan eta UNE-EN 12341 Arauan xedatutako metodoa erabilia, neurketak egitea proposatuko da; horretarako, PM10 partikulentzako bolu-men handiko kaptadore bat erabiliko da, atmosferako ingurumenean partikula ese-kien kontzentrazioa modu jarraituan neurtzeko diseinatua baitago. Ahal dela, egural-di txarra dagoenean egin behar dira neurketak (egun haizetsuetan, baina euririk gabe).

Atalase-balioak honako arau honetan ezarrita daude: *1073/2002 Errege Dekretua, Presidentetzaren Ministerioarena, ingurumeneko airearen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa, sufre dioxidoari, nitrogeno dioxidoari, nitrogeno oxidoari, partikulei, berunari, bentzenoari eta karbono monoxidoari dagokienez.* (2002/10/30eko BOEa).

Hautsa dela-eta, landarediaren gaineko eragina kontrolatzea

Inguruko intereseko landarediaren gaineko eragina kontrolatzeko proposatuko da, hosto-gainazalean hautsa jalkitzearen ondorioz ez badu funtzionamendu fisiologiko egokia.

Zarata-maila aldizka neurtzea

Zarata-neurketak non egin proposatuko da, maiztasun egokiena ere zehaztuta; horrekin batera, neurketak zein baldintzetan egin behar diren eta zein sonometro mota erabili ere adieraziko da. Bestalde, neurtu beharreko parametroak ere ezarriko dira; gutxienez, honako hauek izango dira: soinu-maila balioakidea (Leq); L90, L50, L10 pertzentilak; balio gorena (Peak), eta maximoa (Max). Udalerri bakoitzeko ordenantzen arabera, atalase-balioak ezarriko dira. Udalerrian inolako araudirik ez badago, atalase-balioak beste erreferentzia mota batzuen arabera ezarriko dira; esaterako, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak egindako «Ingurumenari buruzko Udal Ordenantzaren eredu».

Aurrekoaren antzekoa izaki, beste kontrol mota bat ere zehaztu beharko da; hain zuzen ere, **leherketetako zaraten** neurketa.

Bibrazioak neurtzea

Leherketetan, bibrazioen kontrola zehaztu beharko da: laginketa-puntuak finkatuko dira, baina, ustiapenak aurrera egin ahala, puntu horiek aldatu egin daitezke, bibrazioen eragin handieneko puntuak hautatu behar baitira. Inguruan ondare-intereseko elementurik izanez gero, bibrazioen kontrolak zorrotzagoa izan beharko du. Neurketetan zein sismografo erabili behar den zehaztuko da, baita metodologia ere (UNE 22-381-93 araua). Atalase-balioak Oinarrizko Eraikuntza Arauaren (NBE-CA-88) arabera ezarriko dira.

Lurpeko uren kalitatea kontrolatzea

Eraginpeko iturbururik izanez gero, uren kalitate-kontrolak ezarriko dira, eta laginak hartzeko maiztasuna eta aztertu beharreko parametroak zehaztu; parametroak honako hauek izango dira, gutxienez: solido esekiak, olio eta koipeak, hidrokarburoak, pH-a eta eroankortasuna.

Atalase-balioak ezartzeko 140/2003 Errege Dekretuari jarraitu behar zaio; ura giza kontsumorako erabiltzen bada, berriz, honako arau hau hartu behar da kontuan: *927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, uraren administrazio publikoaren eta plangintza hidrologikoaren Erregelamendua onartzen duena.*

Lur gaineko uren kalitatea kontrolatzea

Kontrol-metodologia, atalase-balioak eta neurri aplikagarriak zehaztuko dira honako hauek kontrolatzeko:

- Dekantazio-putzuak behar bezala funtzionatzen duela.
- Dekantazio-putzuaren irteeran urak aldizka kontrolatzeko; dagokion isurtzeko baimenaren arabera ezarriko dira atalase-balioak.
- Eraginpean hartutako errekaetako uren kalitatea aldizka kontrolatzeko, ustiattegitik gora eta ustiattegitik behera.

Aztertu beharreko parametroak honako hauek izango dira, gutxienez: solido esekiak, olio eta koipeak, hidrokarburoak, pH-a eta eroankortasuna. Beharrezko iritziz gero, uren kalitate biologikoa ere kontrolatuko da (IBMWP).

Lurzoru potentzialki kutsatuak kudeatzea

Lurzoru potentzialki kutsatuak eraginpean geratuz gero, uneoro lege jakin bat betetzen dela bermatzeko beharrezko kontrolak ezarri beharko dira; hauxe da lege hori: *1/2005 Legea, otsailaren 4koa, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.*

Hondakinak kudeatzea

Hondakin arriskutsuak egoki kudeatzen direla kontrolatuko da, baita arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzen dela ere.

Landare-lurra kudeatzea

Ingurumen-leheneratzerako erabili bitarte, landare-lurra egoera onean dagoela eta zaintzen dela **bermatzeko kontrola ezarriko da.**

Leheneratzean erabilitako betelanerako materiala kontrolatzea

Landaredia behar bezala ezartzeko behar beste substratu lortzearen landare-lurra ez ezik, material gehiago ere erabiltzen denez, material horren kalitatea helburuaren arabera izan dadin kontrolatuko da, eta dagokionean, egin beharreko zuzenketak ere gomendatuko dira.

Sartzeko pistetako higadura kontrolatzea

Higadura-prozesuen kontrola ezarriko da sartzeko pistetako ezpondetan eta indusketak egindako beste tokietan, baldin eta ezpondak sortu badira.

5.8.5.2. Zaintzeko Programa bertan behera uzteko fasean

Instalazio osagarrien eraisketa kontrolatzea

Instalazioak behar bezala eraisten direla kontrolatu behar da, aldeztatik deskontaminatuta; deskontaminazio-prozesu horretan, elementu eta substantzia kutsatzaile edo arriskutsu guztiak atera eta berezita kudeatu behar dira, indarreko lege-diari jarraiki.

Hondakinak kudeatzea

Eraikinak eraistearen ondorioz sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla kontrolatuko da, baita arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzen dela ere.

Leheneratzearen arrakasta

Leheneratzea ongi atera dela kontrolatuko da eta garatu beharreko jardunak ezarriko dira; hala nola hutsarteak kontatzea, arrakastaren ehunekoa, planten itxura, eta maiztasuna.

5.8.5.3. *Kontrol-planaren emaitzak igortzea*

Harrobiko jardueren jarraipena egiten dela egiaztatu behar da; horretarako, Lan Egunkaria idatziko da, eta bertan jarduerako aldien ezaugarriak nahiz ustiategiko operazio nagusiak erregistratu behar dira.

Ingurumena Zaintzeko Programa osatzen duten analisisen emaitzak eta informazioak behar bezala erregistratuko dira Urteko Txostenean; txosten hori ingurumengaietan espezializatutako erakunde batek egin beharko du.

Txostenean emaitzak aztertuko dira, aipamen berezia eginez aldi horretan izandako gorabehera garrantzitsuenei, gorabehera horien ustezko arrazoiei eta konponbideei, baita laginak hartzeari buruzko xehetasunei ere.

Ingurumena Kontrolatzeko Planaren urteko txostena dagokion Udalera igorriko da, eta EA Eren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzara.

Kasuan kasu aplikatu beharreko arauak alde batera utzi gabe, jardueraren titularrak datu guztiak biltegitatu beharko ditu, euskarri egokian, gutxienez bi urtez, eta Administrazio Publikoetako ikuskapen-zerbitzuen esku egon beharko dute.

Ustiapenak irauten duen bitartean dokumentu horretan ezarritako mugak gaindituz gero, jardueraren titularrak horren berri eman beharko dio berehala organo baimentzaileari.

Neurri zuzentzaileak eta/edo prebentzio-neurriak proposatuko dira, baldin eta nahikoak ez direla egiaztatzen bada, ingurumen-inpaktu berriak atzematen badira, edo aurrerapen teknologikoei esker zuzenketa-prozedura eraginkorragoak aplika badaitezke. Gainera, Ingurumena Kontrolatzeko Plan horrek aldaketak jasan ahal izango ditu neurtu beharreko parametroei eta horien mugei dagokionez, baita neurketen aldizkakotasunari dagokionez ere, betiere araudi berria jartzen bada indarrean edo tartean sartutako sistemen egiturari edo funtzionamenduari buruzko ezaguera berri nabarmenei egokitu beharra badago.

Balitzko aldaketa horiek jardueraren titularrak eskatu behar ditu, edo bestela, Administrazio eskudunak, betiere Ingurumena Kontrolatzeko Planean lortutako emaitzei erreparatuta.

Neurri Zuzentzaileak eta Ingurumena Zaintzeko Programa **kartografikoki** zehaztu behar dira, eta bai bata, bai bestea, biak ere egoki gauzatzeko beharrezko irudiak egingo dira.

5.8.6. **Azterlanaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Dagokionean, azterlana egiteko garaian izandako eragozpen informatibo edo teknikoei buruzko txostena**

Bukatzeko, Proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bateginaren 7.f artikulua araber, azterlanaren laburpena eta ondorioak idatzi behar dira, baina erraz ulertzeko moduan, eta dagokionean, baita azterlana egiteko garaian atzemandako eragozpen informatibo edo teknikoei buruzko txosten bat ere. Laburpen horretan bildu beharreko datuak:

- Proiektuaren deskripzio labur eta zehatza.
- Ingurunearen sintesia; ingurunearen balioespina eta sintesia egin behar da honako hauek nabarmenduta: balio naturalistikoak, balio estetiko-kulturalak, ondareari dagozkionak, lurzoruaren erabilera-ahalmena, arrisku geotekniko eta hidrokologikoak, eta giza habitata.
- Proposatutako jardunen bideragarritasunari buruzko ondorioak.
- Bestelako aukera hautatzeari buruzko ondorioak.
- Konponbide bakoitzak eragindako inpaktuak kuantifikatu behar dira, labur-labur.
- Neurri zuzentzaileen proposamena eta ingurumena zaintzeko programa laburtu behar dira.

Dokumentuak, gehienez, hogeita bost orrialde izango ditu.

5.8.7. **I. eranskina. Leheneratze-plana**

Gauzatutako Leheneratze Plana sartu behar da ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean. Ikus 5.7 idatz-zatia.

5.8.8. **2. eranskina. Natura 2000 Sarea**

Natura 2000 Sarea Europako sare ekologiko koherentea da eta European arrisku larrienean dauden espezie eta habitatak zaintzen ditu, giza jardueren inpaktu negatiboak eragindako biodibertsitate-galera geldiarazten lagunduta. Honako hauek osa-

tzen dute sare hori: Batasunaren Garrantzizko Lekuek (BGL) eta Hegaztientzako Babes Berezikoko Eremuek (HBBE), Habitategi eta Hegaztiegien buruzko Zuzentzarauen bidez, hurrenez hurren, izendatuta.

Natur ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen arabera, eta honako hauei jarraiki: «Estudios específicos de afecciones a la Red Natura 2000/Natura 2000 Sareari eragindako ondorioen azterlan espezifikoa» (Ingurumen Ministerioa, 2005) azterlanak prestatzeko gomendio metodologikoei eta «Evaluación de los planes y proyectos que tienen afecciones significativas sobre lugares Natura 2000/Natura 2000 Sareko eremuetan ondorio esanguratsuak eragiten dituzten plan eta proiektuak ebaluatzea» (Europako Batzordea, 2001) izeneko Europako gida metodologikoari, Natura 2000 Sarearen gaineko eragina bi faseetan aztertuko da (ikus 4.2.3 idatz-zatia): I. fasea edo Garrantzia Zehaztea, eta II. Fasea edo Ebaluazio Egokitua. Agintaritza eskudunaren ustez tokiaren osotasunaren gain efektu negatiboak baldin badaude, III. eta IV. faseei ekingo zaie.

Ebaluazio Egokitua egiteko, Natura 2000ren kontserbazio-helburuetan eta Sarearen koherentzian izan daitezkeen efektuak balioetsi behar dira.

Hain justu, honako inpaktu potentzial hauei erreparatu behar zaie: Habitategi buruzko 92/49/EEE Zuzentzarauaren I. eranskinean barne hartutako habitategien gaineko inpaktuei; Habitategi buruzko Zuzentzarauaren II. eta IV. eranskinetan, nahiz Hegaztiegien buruzko Zuzentzarauaren I. eranskinean bildutako espezieen gaineko inpaktuei; eta tokien funtzionamendu ekologikoaren gaineko inpaktuei. Eragina kuantifikatzea garrantzitsua izaten da, betiere eraginpean hartutako azalera guztiari dagokionez, baita espazioaren azalera guztiarekin erlatibizatzea ere. Ariketa berdina egin behar da eraginpean hartutako intereseko habitat mota bakoitzaren kasuan. Espazioaren okupazioak sortutako zuzeneko eraginez gain, honako hauek ere kontuan izan behar dira: habitategien kalitate-murrizketa interes komunitarioko espezieentzat, eta ekosistemen zatiketa.

5.9. INGURUMEN INPAKTUAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUA IZAPIDETZEKO INGURUMENARI BURUZKO AZTERLANA

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. eranskinaren C idatz-zatiaren barnean hartuta daude «Zulaketak, zundaketak eta mea-bilketak egin beharreko meatze-ikerketak» eta, beraz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedurari atxikita daude.

Lege horren 49. artikulua arabera, eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuari dagokionez: «Eranskineko C) zatian aipatzen diren eta bertako B) zatian

ez dauden proiektuak egiteko (edo, dagokionean, baimena emateko) ebazpen administratiboa onartu baino lehen, ebazpena onartzeko eskudun organoak proiektuaren ebaluazio sinplifikatua eginaraziko du. Ebaluazioa ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko txostenarekin amaituko da. Bertan ingurugiroaren gaineko eragin garrantzitsuenak eta hauek minimizatzeko neurri zuzentzaileak adieraziko dira. Txostenaren edukia aipatutako ebazpen administratiboan joango da».

Hori dela-eta, Meatze-ikerketako proiektuari Ingurumenari buruzko Azterlana erantsiko zaio; azterlan horretan, ingurunearen diagnostiko labur eta zehatza egin behar da, ikerketa-proiektuaren laburpen txiki bat, eta neurri zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa deskribatu behar dira, betiere ingurumen-jardunak minimizatzea helburu izanik.

5.9.1. **Proiektua eta ekintzak deskribatzea**

Impaktuak eragin ditzaketen ekintzak deskribatu egin behar dira. Sarbide berriak ireki edo daudenak egokitu egin behar izanez gero, horren guztiaren deskribapen zehaztua egin behar da.

Eraginpean hartutako eremuaren kokapen-planoa aurkeztu behar da, eta xehetasun handiagoko beste plano batean, ezinbesteko zundaketa, zulaketa eta mea-bilketen kokapena eta horiek guztiak gauzatzuta eraginpean geratuko den ingurune hurbila adierazi behar dira. Horretaz guztiaz gain, sarbide berrien eta ikerketa egiteko egokitu beharreko sarbideen goitiko bistaren plano eta zeharkako profilak aurkeztu behar dira. Ur-lasterren gain eraginez gero, zein jardun garatuko diren deskribatu behar da (hodietan sartzea, ibilbide-aldaketak, ertzak indartzea, eta abar).

5.9.2. **Ingurumen-diagnostikoa eta ingurumenaren eta ekologiaren arloko gako-elkarreraginak deskribatzea**

Aurreikuspenen arabera, eraginpean gera daitezkeen aldagaiak deskribatu behar dira, betiere ikerketa-proiektua gauzatzeko baldintza dezaketen alderdiak nabarmenduta. Aztertu beharreko aldagaiak hautatzeko txeko-zerrenda moduan erabil daiteke 5.6.1.3 idatz-zatian aurkeztutako zerrenda. Hala ere, a priori aldagai jakin batzuk aurkeztu behar direnez, aldagai horien edukiari buruzko hainbat ideia emango ditugu jarraian.

Tokiaren **geologia eta geomorfologia** deskribatu behar dira labur-labur, hegalen ezegonkortasuneko fenomenoak sor daitezkeen puntuak edo interes geologikoko puntuak identifikatuta, ahal dela.

Lurzoru potentzialki kutsatuak daudela atzemanetz gero, horien zerrenda egin beharko da.

Lur gaineko ur-lasterrak eraginpean geratuz gero, deskribatu egin behar dira, bai sare hidrologikoaren ikuspegitik begiratuta, bai uren kalitatearen ikuspegitik begiratuta.

Akuiferoak kutsatzeko urrakortasun handiko zonak atzeman behar dira, lurpeko baliabide hidrikoen gaineko edozein eragin saiheste aldera.

Atzemanaz gero, **landare-espezie babestuak eta intereseko habitatak** deskribatu behar dira. Eta kasuan kasu, eraginpeko **espazio babestuak** deskribatuko dira.

Horretaz gain, intereseko **ondare-elementuen** zerrenda egin behar da, horien babes ere aipatuta.

5.9.3. Ingurumen-eraginak identifikatzea

Idatz-zati honetan ingurumenaren gaineko eragin garrantzitsuenak identifikatu behar dira; hain zuzen ere, meatze-ikerketa baten ondorioz egindako zulaketa, zundaketa eta mea-bilketek eragindako eragin garrantzitsuenak.

Kasuan kasu, **interes geologikoko** puntu edo eremuen gaineko eragina ere sor daiteke.

Zulaketa, zundaketa edo mea-bilketak egiteak eta horietarako sarbideak sortzeak arriskua areagotzea dakar; hain zuzen ere, **higadura-prozesuak** sortzeko arriskua, eta horrekin batera, **hegalen ezegonkortasuna** ere kontuan izatekoa da.

Lur gaineko ibilgu hidrikoen geometriaren gain eragin dezakete, eta **lur gaineko uren** kalitatean kalte nabarmena eragin.

Ikuspuntu **hidrogeologikotik** begiratuta, lurpeko baliabide hidrikoak kutsatzeko urrakortasun handiko zona batean edo inguruan gauzatuz gero jardunak, lurpeko uren kalitatea murriztu daiteke.

Jardun-eremuan dagoen **landare-estalkia** ezabatzearen ondorioz, eragin garrantzitsua gerta daiteke; izan ere, intereseko edo babespeko landareak suntsitu baitaitezke.

Faunaren gaineko eraginak garrantzitsuak izango dira baldin eta enbarazurik eragiten bada, esaterako, habiak egiteko garaian, eta, bereziki, intereseko edo desagertzeko zorian dauden espeziengand eragiten bada.

Gauzate-eremuan edo inguruan dauden **ondare-elementuak** ere jardunen eraginpean gera daitezke.

5.9.4. Babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak proposatzea

Babes-neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio-neurrien helburua honako hau da: meatze-ikerketa baten ondorioz egindako zulaketa, zundaketa eta mea-bilke-

ten jarduerak ingurunearen elementuen gain eragindako efektu negatiboen prebentzioa eta efektu horiek arindu, minimizatu, ezabatu edo konpentsatzea.

Zenbait neurri obra-fasean behar izango dira, baina beste batzuk beranduago aplikatuko dira, ikerketa amaitutakoan, eraginpeko ingurunearen jatorrizko baldintzei eutsi edo baldintza horiek leheneratzeko asmoz.

- Eremu sentikorrek (ondare-elementuak, landaredia, ur-lasterrak eta iturriak) daudela pentsatzen bada, eta eremu horiek ez badute zertan proiektuaren eraginpean geratu, zedarriztatzea proposatuko da, hesolen eta zinten bidez.
- Obrako materialak metatzea edo soberakinak (erabilgarriak izan ala ez izan) kokatzea debekatuta dago, aldi baterako bada ere, ur-lasterren edo iturrien inguruan, zuhaitzietan, edo ondare-elementuen inguruan.
- Makina-parkea toki egokian egongo da, eremu sentikorrek saihestuta. Koka-pena hautatzeko garaian, honako hauek izan behar dira kontuan: litologia, luraren iragazkortasuna, eta urak kutsatzeko urrakortasuna. Okupatu beharreko azalera mugatu egingo da, eta mugak zorrotz errespetatu.
- Operazio jakin batzuk makina-parkean egin behar dira; hala nola olio-aldaketak, erregai-horniketak, eta abar. Debekatuta dago makinetatik datozen olio erabiliak botatzea; kudeatzaile baimendu batek kudeatu behar ditu.
- Landare-estalkia ezabatzeko garaian, soilik behar-beharrezkoa den azalera egin behar da. Ildo beretik, eremu sentikorrek kontu handia izan behar da, botanikari dagokionez (interes bereziko flora izan baitezake) eta faunari dagokionez (espezie katalogatuen habitata).
- Faunaren gaineko eragina mugatu daiteke makinaren eta jardueren mugimendua ahalik eta gehien murriztuz gero; neurri hori are eraginkorragoa izango litzateke baldin eta obrak jarduera-egutegi bati jarraiki egingo balira, espezie urrakorrenen sasoi kritikoenetan lanik egin gabe.
- Obrak irauten duen bitartean aurkikuntzaren bat eginez gero eta aurkikuntza horrek aztarna arkeologikoren bat dagoela pentsarazten badu, honako hau proposatu da: dagokion Foru Aldundiaren Kultura Departamentuari berehala horren berri ematea, eta erakunde horrek erabakiko du nola jardun, proiektu espezifikoko bat garatuz.
- Higadura-prozesuen ondoriozko eraginak mugatze aldera, eta ingurunea berriro ere jatorrizkoaren antzeko egoerara lehenbailehen itzul dadin errazteko, eremua leheneratzea proposatuko da, soildutako azalerak berriz landatuta.
- Meatze-ikerketako kanpaina amaitutakoan, metaketa eta betegarri guztiak kendu egin behar dira, hasierako egoerara itzultzearren.

1.1. OROKORRAK

- EUROPAKO BATZORDEA. INGURUMENENKO ZN. 2001. Natura 2000ko tokietan eragin esanguratsua izan dezaketen planen eta proiektuen ebaluazioa. 92/43/CEE zuzentarauaren 6. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietako xedapenei buruzko metodologia-gida. Luxemburgo: EUROPAR ERKIDEGOEN ARGITALPEN OFIZIALEN BULEGOA.
- EUROPAKO BATZORDEA. Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko 2001/42/EE Zuzentaraua aplikatzeko gida. http://ec.europa.eu/environment/eia/pdf/030923_sea_guidance_es.pdf
- EUROPAKO ERKIDEGOAK. 2000. Natura 2000 espazioen kudeaketa: Habitategi buruzko 92/43/CEE Zuzentarauaren 6. artikuluko xedapenak. <http://europa.eu.int>.
- ARABAKO FORU ALDUNDIA. Hirigintza eta Ingurumen Saila. Arabako kartografia. <http://carto.alava.net/Cartografia/>
- ARABAKO FORU ALDUNDIA. Ingurumenari buruzko web-orria. http://www.alava.net/mambiente/medioambiente_c.html
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Garraio eta Hirigintza Saila. Bizkaiko Kartografia eta Ortoargazkiak. www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=2099&Idioma=CA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Ingurumenari buruzko web-orria. http://web.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleDepartamento.asp?Tem_Codigo=9&idioma=CA
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Lurralde Sustapen eta Antolaketa Saila. Lurralde Informazioaren Zerbitzuaren Web Orri Ofiziala. <http://b5m.gipuzkoa.net/web5000>.

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Ingurumenari buruzko web-orria. <http://www4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumena/es/home.asp>
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Euskadiko Ingurumeneko Datuen Iturrien Katalogoa.
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina aztertzeke dokumentazioa. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4532/es/contenidos/informacion/eia_proyectos/es_8419/documentacion.html#
- EUSKO JAURLARITZA: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. EAEn plan eta programek ingurumenean duten eraginaren ebaluazio bateratua aplikatzeko gida. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4532/es/contenidos/manual/guia_eia/es_doc/indice.html
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Ingurumenari buruzko web-orria. www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-579/es/
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 2000. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen kartografa-sistema. CDa.
- EUSKO JAURLARITZA. GIS online-korporatiboa. www.geo.euskadi.net
- EUSKO JAURLARITZA. Garapen iraunkorrari buruzko web-orria. www.udaltalde21.net
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen Hobekuntzaren Ihobe sozietate publikoari buruzko web-orria. <http://www.ihobe.net>
- GEOLOGIAREN ETA MEATEGIEN INSTITUTUA. 1996. Lurzoruak zaharberritzearen inguruko eta meategietan ingurumenak eduki duen eraginaren inguruko esku-liburua. ISBN : 978-84-7840-019-5. 342 or.
- INGURUMEN MINISTERIOA. ANIZTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. 2005. Estatuko Administrazio Orokorrak bultzatutako plan eta proiektuetarako «Natura 2000 Sarea gainbegiratzeko ardura duen Agintaritzaren deklarazioa» bidaltzeko eskaerarako metodologia-gida. Argitaratu gabea. www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-cfda/es/contenidos/informacion/cfda/es_cfda/indice.html
- INGURUMEN MINISTERIOA. Biodibertsitatearen Datu Bankua. HYPER-LINK «http://www.mma.es/portal/secciones/biodiversidad/banco_datos/» http://www.mma.es/portal/secciones/biodiversidad/banco_datos/

1.2. GEOLOGIA ETA GEOMORFOLOGIA

- EUSKO JAURLARITZA. Industria eta Energia Saila EEE Euskadiko Mapa Geologikoa E 1/25.000.
- EUSKO JAURLARITZA: Energiaren Euskal Erakundeari buruzko web-orria. http://www.eve.es/index_hc.asp

1.3. HIDROGEOLOGIA

- EUSKO JAURLARITZA. 1996. Industria eta Energia Saila EEE Euskadiko Mapa Hidrogeologikoa E 1/100.000.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Uren Zuzendaritza. Argitaratutako azken urtea. EAEko Lurpeko Urak Kontrolatzeko Oinarrizko Sarea.
- URA. UR AGENTZIA. URAREN EUSKAL AGENTZIA. Lurpeko Urak Kontrolatzeko Oinarrizko Sarea. <http://www.eve.es/redbas/default.html>

1.4. EDAFOLOGIA

- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Lurzoruari eta edafologiari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-7932/es/contenidos/informacion/suelo/es_1044/indice_c.html.
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. EAEko lurzoruen higatzeen mapa. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/es/contenidos/informe_estudio/mapa_erosion/es_erosion/indice.html
- FAO. Lurzoruen sailkapenari buruzko web-orria. <http://www.fao.org/ag/AGL/agll/key2soil.stm>

1.5. LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERAK KOKATZEN DIREN TOKIAK

- IHOBE INGURUMENAREN KUDEAKETARAKO SOZIJETATE PUBLIKOA, SA. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak kokatzen diren tokien inbentarioa.
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen Hobekuntzaren Ihobe sozietate publikoari buruzko web-orria. <http://www.ihobe.net>

- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Lur-zoruaren kutsadurari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-7932/es/contenidos/informacion/suelos_contaminados/es_9995/indice.html

1.6. HIDROLOGIA ETA SARE HIDROLOGIKOAREN KALITATEA

- ARABAKO FORU ALDUNDIA. Informazio hidrologikoari buruzko web-orria. <http://www.alava.net/mambiente/elaguaenalava/webdelagua/menu.htm>
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Informazio hidrologikoari buruzko web-orria. http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo= 2383
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Garapen Iraunkorreko Saila. Argitaratutako azken urtea. Gipuzkoako Ibaien Uraren Kalitatearen azterlana. Ekolur Ingurumen Aholkularitza.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Informazio hidrologikoari buruzko web-orria. <http://www4.gipuzkoa.net/oohh/web/esp/01.asp>
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Ur eta itsasertzari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-7663/es/contenidos/informacion/aguas_y_litoral/es_955/indice_c.html
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Uren Zuzendaritza. Argitaratutako azken urtea. EAEko Azaleko Ur Kontinentalen Masen ezaugarriak Ibaiak eta Urtegiak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. Argitaratutako azken urtea. EAEko Azaleko Ur Kontinentalen Masen Kalitatea Zaintzeko Sarea.
- EUSKO JAURLARITZA. Garraio eta Herri Lan Saila. 2001. Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrologikoa, E 1:150.000. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz
- URA. UR AGENTZIA. URAREN EUSKAL AGENTZIA. <http://www.uragentzia.euskadi.net/>
- URA. UR AGENTZIA. URAREN EUSKAL AGENTZIA. Barruko hezegu-
neen egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informe_estudio/estado_humedales_interiores/es_doc/indice.html

1.7. LANDAREAK ETA FLORA

- AIZPURU, I. & al. 1999. Euskadiko floraren gako ilustratuak eta lurralde mugakideak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- AIZPURU, I. & al. 2003. Euskadiko Floraren ezagutzari egindako ekarpenak (V). *Munibe* 54, 39-74. or.
- ASEGINOLAZA, C., GÓMEZ, D., LIZAUR, X., MONSERRAT, G., MORANTE, G., SALABERRIA, M.J. ETA URIBE-ETXEBARRIA, P.M. 1988. Euskal Autonomia Erkidegoko landareak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia, Plangintza eta Ingurumen Saila. 1992. Euskal Autonomia Erkidegoko landareen mapa, E 1/25.000.
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. 2003. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian arriskuan dauden landareen kokapen geografikoa. I. fasea E 1/5.000.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arriskuan dauden espezien euskal katalogoari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3074/es/contenidos/informacion/especies_ame nazadas/es_1090/especies_catalogo_c.html
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 1996. Euskal Autonomia Erkidegoko landareak.
- LIZAUR SUKIA, X. 2003. «Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Landare Katalogoaren eguneratzea (osagarria) - Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Landare Katalogoa» (1984). Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila - Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.
- URIBE-ECHEBARRÍA, P.M., CAMPOS, J.A., ZORRAKIN, I. & DOMÍNGUEZ, A. 2006. Euskal Autonomia Erkidegoan arriskuan dauden landare bascularrak.

1.8. INTERES KOMUNITARIOKO HABITATAK

- EUROPAKO BATZORDEA. INGURUMENENENKO ZN. 1999. Manuel d'interprétation des habitats de l'union européenne. 132 or.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. 2008. EAeko interes komunitarioko habitat motak. IKT

- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Interes komunitarioko habitatei eta espeziei buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/es/contenidos/informacion/natura_2000/es_10989/habitats_especies.html
- INGURUMEN MINISTERIOA. 2005. Espainiako interes komunitarioko habitat motak. Oinarrizko gida. M.I.M.A.M. Madril.
- WEB ORRIA. Life-Nature. <http://europa.eu.int/comm/environment/life/life/nature.htm>

1.9. FAUNA

- AIERBE, T., OLANO, M. & VÁZQUEZ, J. 2001. Gipuzkoako hegazti habia-gileei buruzko atlasa. Munibe (Ciencias Naturales-Natur Zientziak), 52.
- ÁLVAREZ, J.; BEA, A.; FAUS, J. M.; CASTIÉN, E. & MENDIOLA, I. 1985. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ornodun kontinentalei buruzko atlasa (Chiroptera izan ezik). Eusko Jaurlaritza. Bilbo.
- ÁLVAREZ, J.; BEA, A.; FAUS, J. M.; CASTIÉN, E. & MENDIOLA, I. 1985. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ornodunak. Eusko Jaurlaritza. Bilbo.
- BAHÍLLO, P.; OLANO, I.; GÓMEZ, B. & ORTUÑO, V. M. 2002. Euskal Autonomia Erkidegoan arriskuan dauden espezie ornogabeen katalogo-propo-samena. Argitaratu gabea.
- BEA, A. & FERNÁNDEZ DE MENDIOLA, J.A. (koord.). 1998. Ornodun kontinentalak. Euskal Autonomia Erkidegoko egungo egoera. Eusko Jaurlari-tza. Vitoria-Gasteiz.
- BEA, A. 1999. Euskadin arriskuan dauden ornodunak. Eusko Jaurlaritza. Vi-toria-Gasteiz.
- DOADRIO, I. (ed.). 2002. Espainiako arrainei buruzko atlas eta liburu gorria. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- GALANTE, E. & VERDÚ, J.R. (ed.). 2000. Espainiako Zuzentarauko artro-podoak. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Arris-kuan dauden espezien euskal katalogoari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3074/es/contenidos/informacion/especies_ame-nazadas/es_1090/especies_catalogo_c.html

- MADROÑO, A. (ed.). 2004. Espainiako hegaztiei buruzko liburu gorria. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- MARTÍ, R. & DEL MORAL, J.C. (ed.). 2003. Espainiako hegazti ugaltzaileei buruzko atlasa. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- PALOMO, L.J. & GISBERT, J. (ed.). 2002. Espainiako lurreko ugaztunei buruzko atlasa. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- PLEGUEZUELOS, J.M.; MÁRQUEZ, R. & LIZANA, M. (ed.). 2002. Espainiako anfibio eta narrastiei buruzko atlas eta liburu gorria. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- RAMOS, M.A., BRAGADO, D. & FERNÁNDEZ, J. (ed.). 2001. Espainiakoak diren eta Zuzentarauaren intsektuak ez diren ornogabeak. Ingurumen Ministerioa. Madril.

Gainera, eraginpeko hegaztien arabera, arriskuan dauden espezien kudeaketa-planak eta espezien berriarazko azterlanak eta interes-espazioak berrikusi beharko dira Eusko Jaurlaritzaren arriskuan dauden espezien Legediari buruzko web-orrian. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3074/es/contenidos/normativa/legislacion_biodiversidad/es_13730/especies.html

1.10. **ESPAZIO BABESTUAK (PARKE NATURALAK, BIOTOPO BABESTUAK, ZUHAITZ BEREZIAK, RAMSAR HEZEGUNEAK, NATURA 2000)**

- ARABAKO FORU ALDUNDIA. Natura zaintzeari buruzko web-orria. <http://www.alava.net/mambiente/conservacion/default.asp?idioma=cas>
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Natura zaintzeari buruzko web-orria. http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=215
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Natura zaintzeari buruzko web-orria. <http://www.gipuzkoa.net/DFG/landagarapena-c.html>
- ESPAINIAKO GOBERNUA. Ingurumen Ministerioa. Natura zaintzeari buruzko web-orria. http://www.mma.es/conserv_nat/presentacion/index.htm
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Natura zaintzeari buruzko web-orria. <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-19677/es/>
- EUSKO JAURLARITZA. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 1990. Euskadiko zuhaitz bereziak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Parke naturalek kalteak jasanez gero, [haien s_10989/natura_euskadi.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-10989/natura_euskadi.html)

1.11. PAISAIA

- EUSKO JAURLARITZA. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 1990. Euskal Autonomia Erkidegoaren paisaiaren kartografia.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 2000. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen kartografia-sistema.
- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. 2005. EAEko paisai berezi eta nabarmenei buruzko katalogoa. <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-19677/es/>
- ARABAKO FORU ALDUNDIA. Hirigintza eta Ingurumen Saila. 2004. Arabako Lurralde Historikoko paisai berezi eta nabarmenak. 16 or..
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Lurralde Sustapen eta Antolaketa Saila. Lurralde Informazioaren Zerbitzuaren web-orri ofiziala. <http://b5m.gipuzkoa.net/web5000>.

1.12. KORRIDORE EKOLOGIKOAK

- EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. EAEko korridore ekologikoen sareari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r493074/es/contenidos/información/corredores_ecologicos/es_7871/corredores_ecologicos

1.13. ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA HISTORIKO- -ARKITEKTONIKOA

- ALTUNA, J., ARMENDARIZ, A., DEL BARRIO, L., ETXEBERRIA, F., MARIEZKURRENA, K., PEÑALVER, J., ZUMALABE, F. 1990. Gipuzkoako arkeologi-mapa. I Megalitoak. Munibe 7. Donostia-San Sebastián.
- ALTUNA, J., ARMENDARIZ, A., DEL BARRIO, L., ETXEBERRIA, F., MARIEZKURRENA, K., PEÑALVER, J., ZUMALABE, F. 1990. Gipuzkoako arkeologi-mapa. II Kobazuloak. Munibe 10. Donostia-San Sebastián.
- ALTUNA, J., DEL BARRIO, L., MARIEZKURRENA, K., 2002. Gipuzkoako arkeologi-mapa Megalitoak. Aurkikuntza berriak 1990-2001. Munibe 15. Donostia-San Sebastián.
- DAGOKION UDALA. Dagokion Udaleko Plangintzako Arau Subsidiarioak edo hala badagokio Dagokion Hiriko Antolamenduko Plan Orokorra.

- EUSKO JAURLARITZA. Kultura Saila. Kultura Ondareko Zuzendaritza. Euskal Kultur Ondare-zentroa. Zerrendak eta kartografia.

1.14. GIZA HABITATA

- DAGOKION UDALA. Web-orri ofiziala.
- EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundearen web-orri ofiziala: <http://www.eustat.es>

1.15. AIREAREN KALITATEA

- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila Argitaratutako azken urtea. Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. Ingurumen-adierazleak. IHOBE (Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa).
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila Airearen kalitateari buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6392/es/contenidos/informacion/aire_y_ruidos/es_965/introduccion.html
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila Ingurumen-adierazleei buruzko web-orria. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3352/es/contenidos/informacion/indicadores_cabecera/es_10172/03.html

1.16. ZARATA MAILA

- DAGOKION UDALA. Web-orri ofiziala.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 2000. Euskal Autonomia Erkidegoko zarata-mapa.

1.17. ALDERDI JURIDIKO ADMINISTRATIBOAK

- DAGOKION UDALA. Dagokion Udaleko Plangintzako Arau Subsidiarioak edo hala badagokio Dagokion Hiriko Antolamenduko Plan Orokorra.
- EUSKO JAURLARITZA. Lurralde-plangintzari buruzko web-orria (LAA, LAP eta LZP), Plangintza Informazioa, Lurralde Programak, Lurralde Antolamendurako Batzordea. <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-578/es/>

1. ERANSKINA.

MEATZE ADMINISTRAZIOAK USTIAPEN PROIEKTUARI DAGOKIONEZ AZTERZEN DITUEN ALDEAK

1. LURSAILEN TITULARTASUNARI ETA USTIAPEN PROIEKTUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1.1. Ustiapen-proiektuaren eraginpean hartutako lursailen titulartasuna edo erabilgarritasuna justifikatzea.

1.1.1. Tartean sartutako lursail guztien titulartasuna egiaztatzeko eskriturak.

1.1.2. Dagokionean, erabilgarritasuna egiaztatzeko eskriturak.

1.2. Planoak, lursailak mugatuta.

1.2.1. Partzela-planoa, 1:5000 eskalan.

1.2.2. Plano takimetroa, 1:1000 eskalan. Ustiapen Proiekturako erabilitako oinarri topografikoa.

2. USTIAPEN PROIEKTU OROKORRA. ITC MIE 07.1.02 ETA 07.1.03

2.1. Aurkeztutako Ustiapen-proiektuak bete beharreko alderdiak.

2.1.1. Teknikari eskudunaren sinadura eta proiektua ikus-onetsia egotea.

2.1.2. Deskripzio-memoria.

2.1.2.1. Ustiapen-metodoa (Fase bakoitzaren deskribapen zehatza, honako hauek adierazita: ura husteko azpiegiturak eta horien kalkulua; pista nagusiak eta bigarren mailakoak, profil eta guzti; lanen hasiera eta akabera, dagozkien eskema eta guzti).

2.1.2.2. Ustiapenaren bizitza eta erritmoa (Fase bakoitzaren deskribapen zehatza, honako hauek adierazita: kubikazioak, denbora-erritmoak, erabiliko diren baliabide mekanikoak).

2.1.2.3. Esteril/mineral erlazioa ustiapenaren bizitzan.

2.1.2.4. Zaborteziak, hondakindegia eta metaketak, aldi baterako nahiz behin betiko (honako hauek adierazita: zehaztapen geometrikoak, egonkortasun-kalkuluak, eta kokapena, 1:1000 eskalako planoan).

2.1.2.5. Karga eta erauzketa.

2.1.2.5.1. Harroketa mota. Ezaugarriak eta ekipoa.

2.1.2.5.2. Karga-sistema eta Garraioa. Ezaugarriak eta ekipoa (Leherketa-puntutikako karga, iraultetak saihestuta).

2.1.2.6. Ustiategiaren ezaugarriak.

2.1.2.6.1. Diseinuzko ezpondak eta operazio-baldintzak, mantentze-lanak eta bertan behera uzteko ebaiki-lerroen saneoproiektua.

2.1.2.6.2. Banku kopurua.

2.1.2.6.3. Bankuen dimentsioak eta orientazioak.

2.1.2.6.4. Bermak.

2.1.2.6.5. Laneko plataformak, diseinua eta operazio-baldintzak.

2.1.2.6.6. Sarbideak, kalkulua eta diseinu tipoa.

2.1.2.6.7. Pistak. Diseinu zehatza.

2.1.2.6.8. Lur-erauzketako operazioak. Segurtasun-bermak.

2.1.2.7. Saneamendua.

2.1.2.8. Hustubideak.

3. MINERALA PROZESATZEKO PLANTEN DEFINIZIOA ETA KOKAPENA, ETA PRODUKTU AMAITUAK BILTEGIRATZEA

4. AZTERLAN EKONOMIKOA

4.1. Azterlan ekonomikoaren memoriaren 4.4 puntuan adierazitako 300.000, 600.000 eta 1.300.000 t/urte kantitateak justifikatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

4.1.1. Bezero potentzialen aukeraketa proposatzen duena, horretarako erabilgaitako zentzuzko irizpideak adierazita, eta agregakinen egungo

kontsumoari (hormigoiak, morteroak eta asfaltoak fabrikatzeko eta/edo eraikuntzarako) buruzko egiazko datuak emanda.

- 4.1.2. Adierazi 25 km-ko inguruan lortu nahi diren agregakinen ustiategiak, baita horien egungo produkzioak eta produktu-erabilera nagusiak ere.
 - 4.1.3. Adierazi *arrazoituta* etorkizuneko ustiategiaren aurreikusitako urteko produkzioa, merkatuaren premiari eta dagoen eskaintzari buruzko aurreko datuetan oinarrituta. Dagokion merkatu-azterketa erantsiko da.
- 4.2. Memorian adierazitako produkzioari egokitutako ustiapen-baliabideak justifikatze aldera, honako hauek azaltzeko dokumentazioa aurkeztu behar da:
- 4.2.1. Erauzketa. Erauzketa-operazioetarako makineria egokiena zein den adierazi behar da, fabrikatzailearen katalogoak eta unitate berrien salmenta-prezioak adierazita. Makina mota bakoitzari buruzko azterlana egin behar da; azterlan horretan datu hauek bildu behar dira:
 - 4.2.1.1. Jabetzaren ordu-kostua, amortizazio linealean.
 - 4.2.1.2. Jabetzaren ordu-kostua, zeharkako kargetan (kapital-interesak eta aseguruak).
 - 4.2.1.3. Operazioaren ordu-kostua (erregaia, lubrifikatzaileak, pneumatikoak, zaliak eta/edo suntsikorrak, konponketak eta langilea).
 - 4.2.1.4. Ordu-kostua guztira.
 - 4.2.2. Instalazioak Birrintzeko, ehotzeko, sailkatzeko eta biltegitatzeko operazioetarako makineria egokiena zein den justifikatu behar da, fabrikatzailearen katalogoak eta unitate berrien salmenta-prezioak aurkeztuta. Plantaren funtzionamenduaren eskema aurkeztuko da. Instalazio osoaren kasuan, azterlan bat aurkeztu behar da; azterlan horretan datu hauek bildu behar dira:
 - 4.2.2.1. Jabetzaren ordu-kostua, amortizazio linealean.
 - 4.2.2.2. Jabetzaren ordu-kostua, zeharkako kargetan (kapital-interesak eta aseguruak).

4.2.2.3. Operazioaren ordu-kostua (erregaia edo energia, lubrifika-tzaileak, suntsikorrak, konponketak eta langilea).

4.2.2.4. Ordu-kostua guztira.

- 4.3. Proiektuak irauten duen bitartean, fondo-mugimenduen taula edo *cash-flow operatiboa* aurkeztu beharko da, erantsitako ereduaren arabera. Taula horretan, proiektuaren Balio Erantsi Garbia (BEGb) eta Barne Errendimenduaren Tasa (BET) kalkulatu behar dira. Hori horrela, kontzeptuak zehaztu egin behar dira, behar izanez gero taularen 1., 2., 3. eta 4. puntuak bitan banatuta.
- 4.4. Proiektuaren sentikortasun-analisia egin behar da, operazio-kostuetarako +/- % 10eko, +/- % 15eko eta +/- % 25eko bariazio-kasuak barnean hartuta; horretarako, *cash-flow operatiboaren* taula 6 kasuetara egokitu beharko da.
- 4.5. Proiektuaren sentikortasun-analisia egin behar da, salmenta-prezioetarako +/- % 10eko, +/- % 15eko eta +/- % 25eko bariazio-kasuak barnean hartuta; horretarako, *cash-flow operatiboaren* taula 6 kasuetara egokitu beharko da.
- 4.6. Proiektuaren sentikortasun-analisia egin behar da, produkzio-bolumeneterako +/- % 10eko, +/- % 15eko eta +/- % 25eko bariazio-kasuak barnean hartuta; horretarako, *cash-flow operatiboaren* taula 6 kasuetara egokitu beharko da.
- 4.7. Finantziazio-plana aurkeztuko da, behar bezala justifikatuta.
- 4.8. Azterlan ekonomikoaren eta hortik ateratako ondorioen laburpen bat ere egin behar da.

5. SEGURTASUN ETA OSASUN DOKUMENTUA

- 5.1. Lan-arriskuen ebaluazio osoa, lanpostu bakoitzeko.
- 5.2. Lanpostu bakoitzeko D.I.S.
- 5.3. Enpresaren segurtasun-arauak.

6. HAUTSA KENTZEKO AURREIKUSITAKO BALIABIDEEN DESKRIP-ZIOA. ITC MIE 07.1.04.

7. AURKEZTU BEHARREKO PLANOAK

- 7.1. Kokapen-planoak. Eskala: 1:25000 edo 1:50000, partzela-planoa eta katas-trala barnean hartuta.
- 7.2. Perimetroaren eta instalazioen planoak. Pistak, sarbideak eta hondakinde-giak. Aipatutako perimetroaren inguruan, 500 m-ko zabalerako banda gehi-garria hartuko du barnean.

- 7.3. Ustiapen-planoak. Eskala: 1:1000. Memorian aipatutako ustiapen-fase guztiak hartuko ditu barnean, baita Egungo Egoerarena ere (plano bakoitzarekin, fase bakoitzeko hasierako eta amaierako profilak aurkeztu behar dira, lursailaren jatorrizko planoan gainjarrita).

8. PROIEKTUARI ERANTSI BEHARREKO ERANSKINAK.

- 8.1. Gordailuaren geologia. Ingurunearen azterlan geologikoa, gainazal-kartografia nahiz ikerketa-lanak (zuzenekoak edo zeharkakoak).
- 8.2. Sortutako zabortegeien egungo eta etorkizuneko egonkortasun-justifikazioa, baita produktu salgarriak biltegitzeko zonena ere. Zimenduaren eta diseinuaren analisia.
- 8.3. Azterlan hidrogeologikoa.
- 8.4. Azterlan hidrolologikoa.
- 8.5. Instalazio elektrikoien eta bestelakoen proiektua, ustiategiari erantsitako eraikinak eta mineralak prozesatzeko plantak, plazen xehetasunak, urak biltezeko eta drainatzeko sistemak.